

Joanes Etxeberri «Sarakoa»

**ESKUARAREN
HATSAPENAK**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen egilea: Inazio Mujika Iraola.
Iturria: *Obras vacongadas del doctor labortano
Joannes d'Etcheberri (1712)*, Joannes d'Etcheberri
(Julio Urkijoren edizioa). Geuthner, 1907

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=403>

LABURDIRI ESKUARAREN HATSAPENAK
J. D'ETXEBERRI
SARAKO DOTOR MIRIKUAK
(1712)

§ 31

(ESKUARAREN ZUHURTZIAREN FROGAK)

Beraz badirudi, gure Eskuararen zuhurtziaz ezin frogarik emanditekela? zeren ezpaita edireten Autor, eta istorio guztien artean egiteko huni dagokala, kopia bat bedere atheraduenik, baina nola kopia faltadenean orijinala bilhatzen ohi baita, eta ezpaita kopiarik hura baino seguragorik, eta fidelagorik; hargatik bada nik ere nahidut bilhatu egiteko huni dagokan egiazko orijinala, zeina baita Eskuara bera, edo hunen mintzoa, eta hunetarik beretik esperanza dut, atherako dudala beharden froga, eta argitasun osoa, zeren ezbaita mintzoa baino lekhuko seguragorik, ez egiazkoagorik bat bederaren ezagutzeko, ez eta ere ezta froga komunagorik (eta) naharoago ediretendenik, hala lege Naturalean, nola iskiribatuan, eta Garaziazkoan ere, nola baita mintzotikkakoa; ezen gure Jainkoak noiz eta ere Adam lehenbiziko gizona eta gure Aita ez jeusetarik egin edo kreatuzuen ondoan, ekharriziotzan aitzinera animalia, eta hegaztina guziak, hetarik bakhotsari bere naturalezaren eredura izenaren emai-

teko; *Adduxit ea ad Adam, ut videret quid vocaret ea: omne enim quod vocavit Adam animæ viventis, ipsum est nomen ejus. Gen. 2.* Bide hunetaz Adami, eta haren ondoko ume guztiei ezagutzera emaiteko, nolako zuhurtzia eta jakintasun miragarriarekin mundurat emanzen, ezen ezta kuhurtziaren señaile seguragorik, nola baita gauzen naturalezen ezagutza, zeina Philosophoek deitzenbaitute, *Cognitio a priori*; ezagutza suerte hau izatuzuten Aita Adamek, Salomonek, Apostoluek, bainan bertzek guttik.

§ 32

Halaber lege iskiribuzkoan ere kausitzen da: *Gen. 27.* nola Isak Patriarxa handi hura itsutuzenean lakob bere semea finezioski Esau bere anajaren arropoz edo soinekoez beztiturik joantziaion Isak Aita zaharrari benedizinoaren galdegitera; bainan Isak Aita itsuak mintzarazizuzenean lakob bere semea, zer erranzuen? soinekoak Esauenak dira: bainan mintzoa lakobena.

§ 33

Matheo Ebanjelistaren eredura orobat gerthatuzi-
tzajoen Jondoni Petriri ere bere nausiaz utkhatu zue-
nean: *Nam et loquela tua manifestum te facit.* Math.
26. hire mintzoak salhatzen hau, nor aizen. Ea beraz
mintzazaita zu ere gure hitzkuntza zahar aspaldikoa;
eta erakutsdezozu mundu guztiari zure zuhurtzia
hainbertze mendez mende, eta arrokapean gorderik,
eta ehortzirik bezala egondena, orai bedere ilkhizaitea
kanpainara jendartera, ja denbora da laur milla urthe-
ren ingurua iragan ondoan bedere, etzarela ahalke, ez
herabe, baldin bertze orduz Noemi emakume eder
hura bere herrian sartzean emazteki Bethlemeitek
elkharri erraitenbazioten, *Hæc est illa Noemi? Ruth, I.*
v. 10. hauda Noemi emakume eder hura? Egun bada
munduak enzuten, eta aditzentuenean zure pensa-
mendu, eta perpaus miragarriak, eta hitz misterioz
betheak arrozoin gehiagorekin erranendu: *Hiccine est*
ille Cantabrimus? Hautxe da Eskuara hitzkuntza eder
hura? halakogisaz non baitut uste oraiko hitzkuntza
berri, eta ardurako dabilzanek errespeturekin zure
kuhurtziari agur eginendiotela, eta boz batez aithortu-
ko zure bizitasunaren indarra, eta edertasuna parega-
bekoak direla; eta aitzitik lehen deitzaitezkelak Ainge-

ruen hitzkuntza, ezen ez gizonena, zeren zure hitz bakhotxa baita misterioz, eta zuhurtziaz bethea; hala nola *laungoikoa*, non edirenliteke hitz bat misterio-tsuagoa, eta gure mintzatzeko maneran Jainkotasuna-ren aditzerat emaiteko gauzagoa? ezen *laungoikoa* izen hauda bi hitzatarik moldaturikakoa bezala, jakiteko, *launa*, eta *goikoa*, gainekoa, edo goitikoa, erran nahibaitu, *laun gainekoa*, edo goitikoa, edo *laun zeruetakoa*; halaber *Eguberri*, egun berria. Ilhargia, hilabetheko argia, edo hila, eta arzuirik gabekoadelarik, argia, argi hila, edo argi ilhuna. Heriotzea, eriaren hoztea. *Ilherria*, hillen herria, *Dohaina*, dohainikakoa, edo dohainik emana, edo errezibitua. *urthumea*, urt-heko umea; *Izotza*, ihintz hotza. *Ilhuna*, hilla eguna. *Galtzerdia*, galtzen erdia. *Gaztella*, gaztellua, edo jau-regi, eta gaztellutsua. *Iruñea*, hirurenea, hirurena, edo hiri enea; *Bartzelona*, baratze ona; *Baionna*, Bai-ona. Bai jauna, baja ona. *Bizkaia*, Biz kaia, edo kaia biz. *Lapurdi*, Lau-urdi, Lau urdun edo Lau urdira. *Presundegia*, presunategia, presotegia, edo presoan egon lekhoa. *Bidasoa*, Bide Itsassokoa.

Hauk dira Eskuararen hitzak, eta izenak, zeinetan edireten baitira hain bizitasun, eta signifikanza miste-

riotsuak, non baitirurite Philosophoen sentenziak, eta hetarik hitz bakhotxak gauzaren definizinoa.

§ 34

(ESKUARAZKO IZENEN DEKLINAZINOAZ)

Izenen deklinazinoaz bezanbatean ere baderraket gauza bera: ezen nominatibo singularekoan baititu bi akhabantza diferentak, v. g. Nominatibo Dominus, Jauna, edo Jaunak; bertze hitzkuntza gure artean dabiltzanen berririk baizen eztakitenek, segur naiz, erranendutela, bi akhabantza hautarik bata, edo bertzea, sobera dela, eta halatan bai-etaezpada bata sobera dela.

§ 35

Egiaz hori hala lizatekete, bertze hitzkuntzen erregelen eredura, zeren ezbaitute akhabantza bana baidarik, hala nominatibo singularrekoan, nola pluralekoan; ordea Eskuarak baitu bia eta hetarik lehena zeruitzatzzen da Berbo sustantibo *Naiz, Nago, Nabila*, eta hau-

kin konjugatzen diren Berbo guztiekin, v. g. Jauna da, dago, dabila; Jauna izanda, egonda, ibilida; Jauna izanenda, egonenda, ibilikoda. Eta bigarren akhabantza zeruitzatzenda gainerako bertze berboekin, v. g. Jaunak dio, Jaunak errandu, etc. Horra nominatibo singulareko exenpluak; Pluralean ere erregela bera da, v. g. Jaunak dira, daude, dabilta, etc. Jaunek diote, erraitendute, irakatsi dute, etc. Eta gisa hunetan Eskuarak egiten du akhabantza haukien enplegua; ordea bertze hitzkuntza hau ezin egindezakete diferentzia molde hau, zeren akhabantza bat baizik nominatiboan ezbaitute; jenitiboan ere baitu gisaberean bi akhabantza diferentak, eta diferentki usajan dabiltzanak, v. g. Jenitibo Domini, Jaunarena, edo Jaunarenak: lehena kommutatzenda Berbo sustantibo singularekoarekin, eta ez pluralekoarekin, v. g. Erregerena da Khoroa; Rejis est Korona; eta bigarrenak, bera singularra delarik, darauntsa pluralera, eta behinere ezin juntaditeke berbo sustantibo singularrekoarekin, v. g. Jaunarenak dira Zerua, eta Lurra, Domini sunt Koelum, et Terra; halako gisaz non jenitiboak aditzera emaiten baitu ondotik helduden berbo sustantiboaren numeroa, jenitiboa berbo sustantiboarekin kommutatzen delarikan; ezen gaizki erranalizate Eskuararen erregele-

tan; Jaunarena dira Zerua, eta Lurra; zeren Jaunarena baita berbo sustantibo singularekoari juntatzenajoe-na, eta halatan lizateke astrugaitzkeriabat erraitea, Jaunarenak da miserikordia, zeren Jaunarenak baita jenitibo bat berbo sustantiboaren pluralarekin komunztatzen dena.

§ 36

Bertze hitzkuntzek izenari aitzinetik finkatzen dioten emendaillua deitzen ohidute preposizinoa; ordea Eskuarak ondotik eratxekitzendio hain manera ederrean, eta miragarrian, non biez egitenbaitu gorputz bat, edo izen soil bat, v. g. in Ecclesia; Elizan. In Gallia; Franzian. Ad Civitatem; hirirat; ex Coelo, Zerutik: Ab hominibus, gizonez, gizonetarik, gizonenganik, etc.

§ 37

(ETA BALDIN IZEN XOILETAN BADA MISTERIO-TSU, ESTA ORAINO GUTIAGO BERBOETAN ERE)

Eta baldin jzen xoiletan bada hain misteriotsu, ezta oraino gutiago berboetan ere; ezen hitz gutiz, eta laburzki baliatzen delarik berboez, edo berboen propietatez, artezki, eta zuzentki gauzak deklaratzentzu, hain manera ederrean, non baldin konsidera badadi hunek berboez baliatzeko duen propietatea, edirenenda, dela hagitz misteriotsua, eta antzatsua, eta bertze hitzkuntzetarik hagitz diferenta, zeren komunztatzen baitu Berboa akkuratiboaren numeroarekin, bertze hitzkuntzek ezin egindezaketen maneran; v. g. maitatzendut Jainkoa, Amo Deum: lo amo a Dios; j'aime Dieu. Maitatzentut Sainduak: Amo Sanktos; lo amo a los Santos; j'aime les Saints. Bertze hitzkuntza hauk eztute egiten ganbiadurarik berboan, baina bai Eskuarak, batean dio Maitatzendut Jainkoa, eta bertzean maitatzentut Sainduak; akkuratibo singularrekoari emaitendio berbo diferenta akkuratibo pluraleko arenetik, halako moldez non enzunezgeroztik berboa, baitakigu ondoko kasuaren numeroa, edo kontua; ezen ezta Eskuara dakienik enzunezgeroztikan, emaitendaroat, emaitendarozkiat, lehenbiziko berboak akkuratibo singularrekora, eta bigarrenak pluralekora darauntsala ezagutuko eztuenik; eta bertze alde berboak deklaratzendu datiboa ere; ez ordea bertze hitz-

kuntza hauk, ezen Latinez erraitekotzat emaitendaro-
at, erram (*sic*) behar da; Do tibi; Erdaraz, te doi; Fran-
zesez, Je te donne; eta oraino berbo batez bia elkhar-
rekin baitira bezala, gauzak adiaraztera emaitentu v.
g. Meza entzunarazidiot, Eji, ut audiverit Missam; He
le hecho oir Missa; Je lui ai (fait) ouir la Messe; Halako
gisaz non Eskuarak berboaren bisajan erakusten bai-
tarozkigu hirur gauza diferenten bisaiak; Beraz erran-
diteke, Eskuara habila, anzatsua, eta zuhurra dela
berboen propietatetan ere, non hunen mintzatzeko,
eta gauzen adiaraztera emaiteko manera antzatsu eta
zuhur hunek baitirudi hurbiltzendela Aingeruenera,
zeinek izpiritu kolpe batez hainitz gauza diferent elk-
harri ezagutzera, eta aditzera emaitenbaitiotzate,
hala nola Eskuarak hitz batez hainitz gauza diferent
aditzera emaiten baititu, orai ikhusiduzun bezala;
ordea bertze hitzkuntza hauk barkhabezadate, baldin
erraitenbadut, ezin egindezaketela, Eskuarak egiten-
duena, baldinetariak orai Eskuaratik eskola harturik
ikhasi nahi ezpadute, eta baldin Gienako Prospero
saindu handi hark Latinez mintzozelarikan erranba-
zuen *Ea est, nisi fallor, iudicata latinitas, quæ breviter
& aperte observata dumtaxat verborum proprietate,
res intelligendas enuntiat, non quæ vernantis eloquij*

venustate, atque amenitate luxuriat. Libr. 3 de vita contemplati. Latin onak hitz gutiz laburzki, eta lanoki baliatzen delarik Berboen propietatez deklaratu jakin behar diren gauzak, elhe konturik, eta hitz alferrik enplegatu gabe; errandekaket beraz, saindu handi hunek jakin izanbalu Eskuara, zinez erranenzuela, Eskuara hitzkuntza ona, eta ederra, zeren hitz gutiz, eta laburzki baliatzen delarik berboen propietatez, hain antzosi eta kuzentki gauzak adiarazten-baititu.

§ 38

(BADU BERTZE MANERA ISPIRITUTSU BAT, BERTZE HITZKUNTZEK EZTUTENA ZEINA BAITA BERBOARI JENEROAREN ERATXEKITZEA).

Eta finean badu oraino bertze manera izpiritutsu, eta artifiziosu bat, bertze hitzkuntzek eztutena, jakiteko berboari jeneroaren eratxekitzea, v. g. To, eta No, emaitendaroat, eta emaitendaronat; Errandik, eta errandin; Emaitendarozkiat, eta emaitendarozkinat.

Batean berboak aditzera emaitendu mintzodela gizonkiarekin, eta bertzean emakume arekin, berbo

batak darontsa akkusatio singularrekora bertzeak pluralekora, eta oraino haukin batean datiboa ere deklaritzen du, non guztiak elkarrekin nahastakatuak direlarikan berboan; guztiarekin ere guztiak bat banazka hain miragarriki adiaraztenbaitu; Badakit, Eskuararen berririk eztaitei gauza hau ezin sinheztuzkotzat idurituko zaiela, zeren bisaja batean hirur presuna diferentent iduriak edo imajinak ezin pintaditezken, zerentariak egundaino ezbaita izan hain pintore habilik bisaja batean hirur presuna diferentent iduriak edo imajinak elkarrekin nahastakatuak zein zeindiren ezagutzendirelarikan athera ahal izatu tuenik, ez Apeles pintore guztien buruzagi hark berak ere eztaidiren sekeretu hau, ez eta bertze hitzkuntzek ere, xoilki Eskuarak dirudi dela dohatua abantail eder hunetaz halako maneraz, non iduritzenbaitzait, erranditekela, *Numquid sapientia non clamat, & prudentia dat vocem suam?* Erran nahida, zuhurtzia, eta prudentzia ojhuz daude Eskualdunen ahotik; eta Aristotelek erranbazuen ere, *Nemo est natura sapiens;* nihor eztaela sortzen jakinsun, guztiarekin ere jakin izanbalu Eskuara, uste dut, erranenzuela, *Cantabrimus est natura sapiens, (et doctus indoctus).* Eskuara da irakatslerik, eta Eskola nausirik gabe jakinsuna, eta jaki-

na (eta ikhasia eta miresteke den gauza da, nola erresort haurk hurela jokaten tuen, eztituelarikan, bi koniugazino baizik ossorik, zeinak baitira *Naiz*, eta *dut*, eta oraino hautarik batez dudatzeko da ea defektiboa ala ez, haukien gainean dohazi bertze gainerako berbo guztien koniugazinoak, latinez deitzen diren berbo anomaloek eta defektiboez kanpoan).

ESKUARA GARBIA DA

Axular gure Errotor famatuak ederki ukitzen du pontu hau noiz eta ere baitio, *Aitzitik badirudi, ezen bertze hitzkuntza, eta linguaia guztiak bata bertzearekin nahasiak direla; baina Eskuara bere lehenbiziko hastean, eta garbitasunean dagoela, p. 20.* zeren lenguaia hala zahar, nola berri, eta arrotz, ja hain komun, eta ardurako egindirenen artean den nahastakadura baithoa egun guztiaz aitzinatuz, eta hedatuz, hala nola goaja handiak lurra arrobatuz bere iragaitzako lekhoa baitarama zabalduz, eta hala nahastakadura hau dela kausa hainitz jendaki suertek ossoki utzituzte galtzera bere hitzkuntzak; ezen konsiderabadezagu munduan izandiren hitzkuntzarik famatuenak, Hebreoa, Grekoa, eta Latina, noizbait ardurako, eta komunzebiltzanak, edirenendugu ja estudiatuz baizik nihork eztituela ikhasten, eta ja erregelen manera, eta bat bederaren traballura eroriak daudela: bainan Eskuara egundainotik, eta bere lehenbiziko hatsapenetik ardurako, eta komun izandena, gure Eskual herri hunetan orai ere hala konseruatzen, eta mantenatzen da; baina Hebreoaz lehenbizirik mintzanadin Babiloniako

gathibutasunean hirur hogoi eta hamar urthez Hebreo-
oei ahantzitzajen bere hitzkuntza propiala, eta ikhasi-
zuten Kaldeoa bere etsai garaitiarrena, eta bere herri-
rat itzulizirenean ere hura zerabilaten bere hitzkuntza-
tzat, eta Jainkoaren semea gizon eginzenekotzat,
hekien hitzkuntza Hebreoa nahastekatua zen Siriaka-
rekin, eta Kaldeoarekin, halako moldez, non liburu
sakratuak aditzekotzat obligatuak baitziren estudiantuz
Hebreoaren ikhastera, guk orai Latina bezala. Grekoa
ere bada denboraz munduan izanzen estimu, eta
errespetu handitan; ordea hunek ere bere beheratza-
pena hartu kuen, ezen Horaziok dio:

Licuit semperque licebit

Signatum præsentē nota producere nomen.

Vt silvæ folijs pronos mutantur in annos,

Prima cadunt, ita verborum vetus interit ætas

Et juvenum ritu florent modo nata, vigentque

Debemur morti nos, nostraque...

Nedum sermonum stet honos, & gratia vivax.

(HITZKUNTZAK DENBORAREKIN ZAHARTZEN DIRA)

Hitzkuntzak denborarekin ganbiatzen, eta zahartzen dira, halako gisaz, non ehun, edo berreheun urterik barrenean hainitz hitz ezin adi baititezke, hitzkuntza arrotza balitz baino gehiago; eta arbolak bere hosto zaharrak egotzirik, berriz berriroki hosto berriez bestitzen diren bezala, eta adin gaztetik zahartasuna helduden eredura, hitzkuntzetan ere ganbiadura, edo mudantza, gisa berean ethortzendela, non handikan bere garbitasuna galdurik, bata bertzearekin nahasiak gelditzen baitira; eta hala Grekoak ere manera hune-tan galduzuen bere garbitasuna: ezen Kintilianok, eta Dionisiok diok diote (*sic*), *Et confessis quoque Græcis vtimur verbis, vbi nostra desunt, sicut illi a nobis nonnumquam mutuantur*. Latinak eta Grekoak ordainzka edo aldizka batakbertzea ganik hitzak hartzentuztela.

§ 3

(GODOEN IZENAK ETZIREN DEKLINATZEN, EZ ETA ERE GASTELANIAZKOAK, ITALIANOZKOAK, ETA FRANZESESKOAK)

Eta zer erranendut Latinaz Dionisio Arkanasiok dioena baizik? *Mirum videri possit, quomodo ea civitas penitus barbara non fuerit reddita.* Mirestenzuela, nola Erroma etzen egin ossoki barbaro: eta Isidoro Sainduak emaiten du arrozoina; *Vnaquæque enim gens facta Romanorum cum suis opibus, vitia quoque, & verborum, et morum Roman transmisit. Lib. 1. cap. de barbaris.* Zerenetariak Erromara joanziren jendaki hetarik bakhoxak eraman baitzituen hitzkuntzaren bizioak, eta bajak.

Erromako Enperadoreoak irauntzueino, Latinak ere on edukizuen, eta hura akhabatzearekin, hau ere ganbiatuzen, eta artuzuen bere beheratzapena, Poli-biok dioen eredura: *Tanta enim facta est mutatio Romance linguæ ab ea tempestate in hodiernum diem, ut etiam, qui antiquitatis peritissimi sunt, pleraque non nisi difficulter intelligant. Polib. Lib. 3.* Erromako hitzkuntzak hartu du hain mudantza handia noizbait danik hunat, non istorioen berri dakiten jakin-sunek ere pena baitute hekien aditzea edo konprenditzea: ordea ezta miresteko zeren Godoak, eta bertze jendaki barbaro, eta bassotarrak Italiara eta bertze hainitz erresumetara Enperadoreoarekin ethorrizire-

nean Benzutuek hartubaitzuten garaitiarren hitzkun-
tza; ordea Godoak ere bere ahalean ensejatuziren
Latinaren ikhastera, batean hartzen zutelarik Latinetik
hitz bat, bertzean Latinari iratsekitzeniotelarik bere-
tik bertzebat; eta nola antzekaitz baitziren, eta har-
metara emanagoak letretara baino gaitzki, eta molde-
gaizki ikhastenzuten Latina, izenen deklinazioneak,
eta berboen konjugazioneak luzeak iduriturik konten-
tatuziren Latinetik izen xoilan hartzeaz, deklinazinoak,
utzirik; zeren hek bere hitzkunzan izenak ezbaitzitzu-
ten deklinatzen Latinak, eta Eskuarak ejiten tuen
bezala; kasuen diferenziak egitenzitzuten artikuluen
edo emendailluen bidez, hala nola Españolak, Italiano-
ak, eta Franzesak egitenbaitituzte, hargatik haukien
izenak ere dira indeklinableak, edo deklinatzen eztire-
nak, hora (*sic*) hemen ekharzera nohan exenpluan
ikhusikoduzun bezala.

Nominativo, El Señor. Le Seigneur. Il Signore.

Genitivo, Del Señor. Du Seigneur. Del Signore.

Dativo, Al Señor. Au Seigneur. Al Signore.

Accusativo, El Señor. Le Seigneur. Il Signore.

Vocativo, O Señor. O Seigneur. O Signore.

Ablativo, Del señor. Du Seigneur. Dal Signore.

Ikhustenduzu beraz hemendik hitzkuntza haukien izenak eztirela deklinatzen, ezen Españolak kasu guztietan dio *Señor*, Franzesak *Seigneur*, Italianoak *Signore*, eta hala agerida deklinazino molde hau hagitziferenta dela Eskuararenetik, eta Latinarenetik, zeinok artikuluen, edo emendailluen laguntzarik gabe izenak deklinatzenbaitituzte.

§ 4

**(GODOEK BERBO LATINEZKOEN KONJUGAZINO-
AK SEGITU ZITUZTEN ZENBAIT PARTETAN, BAI-
NAN EZ GUZTIETAN ETA BEREZIKI BERBO PAI-
RUZKOAREN EDO PASSIBOAREN PRESENTEAN,
ETA PRETERITO INPERFETOAN).**

Berbo Latinezkoen konjugazioneak Godoek segituzituzten zenbait partetan, bainan ez guztietan, eta bereziki berbo pairuzkoaren, edo passiboaren presentean, eta preterito imperfektoan Don Bernardo Aldretek dioen eredura Lib. 2. cap. I de Orig. et principio linguæ castellanæ: *Variationes verborum passivorum Gothi secuti sunt in quibusdam partibus; sed non in*

omnibus, et præcipue in præsentis et præterito imperfecto verbi passivi: zerenetariak ezin edirenbaitzetza-
keten Berbo passiboari justuki erantzunzezokion sini-
fikantzarik, hartarakotz bada baliatuziren berbo sus-
tantibo *Naiz*, eta partizipio preteritokoaz, hala nola
Amor, ni naiz maitatua; *Amaris*, hi aiz maitatua; hau-
zen hitzkuntza Godoaren mintzatzeko manera, eta
hala hunekin geldituziren Erromarrak, Italiarrak, Espa-
ñolak, eta Franzesak; Hargatik Luis Vives Autor handi
hark dio: *Ita sermoni vere latino, ac puro successit
mixtus quidem ex Latino, et peregrino. Lib. 1. De cau-
sis corrupt. artium.* Egiazko Latinaren ondoan ethorri-
zela hitzkuntza bat Latinarekin, eta hitzkuntza arro-
tzarekin nahastakatua; Paulok ere gauzabera dio:
*Latine loqui a Latio dictum est, quæ locutio adeo
versa est, ut vix ejus ulla pars maneat in notitia. Paulo.
supra. Faust.* Latina hain ganbiatuda, non ez baitu
parte ossorikan. Beraz ungi erranzuen gure Assular
(*sic*) famatuak hitzkuntza hauk bere lehenbiziko garbi-
tasuna galdurik, bata bertzearekin nahasiak direla.

Orai jakin behardugu, ea Eskuara bere lehenbiziko hastean, eta garbitasunean dagoentz? Axular autor berak dioen bezala Mariana gizon jakintsun hark noiz eta ere arbujaetzen, eta mesprezatzan baitu bere ustez gure Eskuara, orduan emaitendarot, orai nik bilhartzendudan argitasuna, mintzodelarik gisa hunetan: *Soli Cantabri linguam hactenus retinuerunt rudem, et barbaram, cultumque abhorrentem, multumque a reliquis omnibus discrepantem, et totius olim Hispaniæ communem (sic fertur) et antiquissimam, priusquam eam provinciam Romanorum arma, sermoque penetrassent. Lib. 1. Cap. 5.* Xoilki Eskualdunek egungo egunerainokoa dadukate bere hitzkuntza moldegaitz, barbaroa, eta bokkantzarik onhesten ezteua, zeina baita bertzetarik hagitz differenta, eta noizbait Espainia guztian ardurako zebilana, eta hagitz aspaldikoa, Erromarren harmak, eta hitzkuntza parte hartar iraganzitezken baino lehenagokoa. Beraz Marianaren eredura, Eskuara garbia da? bertzetarik denazgeroztik hagitz diferente? ezen zenbatenaz baita diferenteago, hanbatenaz du nahastakadura gutiago, eta zenbatenaz nahastakadura gutiago, hanbatenaz garbiago.

§ 6

Ordea orai nahinuke jakin, Marianak zer arrozoi-
nez deithu-othezuen gure Eskuara, moldegaitza, bar-
baroa, eta bokkantzarik eztuena? ala ziren haren
beharrietan Eskuarazko hitzak estrainio, eta arrotz
ziren? ala zeren bertzetarik diferenta, eta aspaldikoa
dantz? Baldin, zeren hark Eskuararik etzakien, Esku-
ara estrainio, eta moldegaitz iduritzen bazizaion, ezta
hori Eskuararen hobena, baina bai haren enoranziare-
na. Baldin zeren bertze hitzkuntzetarik diferent, eta
hek baino zaharrago den? egiazki ezta kausarik aski
gisa horretan arbujuatzeko, eta mesprezatzeko! batz
zeren hitzkuntza egiazki garbia denak beharbaitu
izan, bertzetarik diferent, eta hortan dago hitzkuntza-
ren garbitasuna; eta bertzeaz zeren gauza zaharrak
estimatuak baitira, ezen badakigu, kobre, eta letoin
puskak, bat bederak joiatzat bezala altxatzen, eta
begiratzentuela, zeren tuzten noizbaiteko Enperado-
re, eta Errege batzuen imajinak; baita oraino pareta
zahar, arrallatu eta hirrituak ere, edo dela zaharkitu
hutsez, edo dela etsaiez hala higatuak, eta bilhaka-
tuak; eta hau nondik helduda baizik zeren gikonak

baitu errespetu zahartasunarentzat; bitartean egun Marianaren erranaren eredura Eskuara, eta eskualdunak mespreziatuak, eta arbujuatuak dira, zeren bere hitzkuntza zaharra dadukaten; ordea entzunzazu zer dioen Damaszenok: *Ne transgrediaris terminos antiquos, quos posuerunt patres tui. Damas. Epist. de Tresagio.* Eztetzatzula hauts zure aitzinekoek finkaturikako xedarriak, edo mugarriak; Beraz autor hunen eredura Eskuara, eta Eskualdunak eztira arbujuatzeko? aitzitik laudatzeko, zeren hain fermuki dadukaten bere hitzkuntza zaharra, eta aspaldikoa.

§ 7

Baldin Marianak jakin izanbalu Eskuara Joseph Skalijerok hau, eta bertze hainitz hitzkuntza ziakitza bezala, segur naiz harekin batean hark ere erranenzuela: *Hispani eam regionem, in qua dialectus locum habet, generali nomine Vasconça vocant: nihil barbari, aut stridoris, aut anhelitus habet, lenissima est, et suavissima, estque sine dubio, vetustissima, et ante tempora Romanorum illis finibus in usu erat. Tract. de linguis Europæorum.* Españolek hitzkuntza

hura jeneralki deitzendute Baskuenza (erranahibaitu (*sic*) Eskuara): eztu barbarotasunik, ez hortz karraskarik, ezetaere ahogan gazkorik, da hajitz emea, leguna, eta ezta, eta dudarik gabe hagitz zaharra, eta Erromarrak baino lehen parte hetan usaian zebilana, eta hala dio Florok ere: *Transgressi (Cartaginenses) parum fretum, quod inter Africam, et Europam interjacet, omni Hispania potiti erant vsque ad Pyrineum montem. In Anibal Lib. 3.* Szpionek konkestatuzuela, eta bere menera ekharri Espainia guztia Kartajendarrak handik khendurik zeinak Polibiok dioenaren eradura nausitubaitziren Espainia guztian mendi Perineotarainokoan. Beraz hemen mendi Perineo hautan, zeinetan orai Eskuaraz mintzobaitgara Eskual herriko jendea geldituzen librerik, eta xahurik etsai haukien menetik? non bertzela ezpaita dudarik hainitz bertze lekhutan bezala hemen ere Eskuara iraungiko zela: zeren garaituek ordinariozki garaitiarren hitzkuntza segitzen, eta onhesten baitute: *Natura ipsa ita fert, ut.*

Ezta beraz zer miretsi, baldin Eskuara gelditu bada nahastakadurarik gabe bere garbitasunean; ordea erranenduzu Eskuaran ere ediretendirela hainitz hitz, zeinek baitirudite bere ethorkia Latinetik, Españoletik, edo Franzesetik dutela, eta segur ere, hitz suerte hek lothu ahalizanzaizkola, bertze orduz Eskual herrirat ethorri izatuizandiren jende arrotzetarik, eta halatan, eztela batere, zer miretsi, baldin nahastekatua edireten bada bertze hitzkuntza haukin, daudenaz geroztikan gauza bat hain ardurako, eta komundabilana munduko hitzkuntza guztien artean, ezen Erromarrak izanzirelarik munduko jendaki guztien garaitiar, eta hanbat artha handi hartzenzutelarikan bere hitzkuntza Latinezkoaren hedarazteko, bai halaber haren garbitasunaren, eta bokanzaren konseruatzeko, guztiarekin ere lothu izanzitzaizkola zenbait hitz batetik, eta bertzetik, baita oraino Kartajendar hekien etsajenetarik ere, handikan erranzuten Kintilianok, eta Dionisiok, *Et confessis quoque Græcis vtimur Verbis, vbi nostra desunt, sicut illi a nobis nonnunquam mutuantur. Lib. 1. Cap. 5.* hala Grekoek, nola Latindunek hitzak, edo jzenak faltatzenzitzaiztenean batak bertzeaganik hartzenzituztela, elkharri ordainzka prestatuz bezala,

halatan beraz, eztela zer miretsi, baldin Eskuara ere zortha berean eroririk kutsatua edireten bada.

§ 9

Hauda zure arrozoinamendua, ordea flakoa, eta Eskuararen kontra jeusik ebarakitzen eztuena aitzitik lehen erranezake, Eskuararen sostengutan dakkarkezula: ezen ustebaduzu, zure arrozoinamendua egiazkoa, eta justua dela, aithortu behar duzu zuzenago, eta justuago dela erraitea Latinean, Erdaran, Franze-sean eta Italianoan ediretendiren hainitz hitzek badi-ruditela Eskuarazkoak, eta bere ethorkia Eskuaratik dutenak, eta segur ere hitz hauk lothuzaitzkotela asko okkasino, eta denbora diferentetan haukien herrietarat joan izandiren Eskualdunetarik, edo erranbeharda, herri hautarat ethorri izandiren jendaki arrotzek Eskuaratik harturik hitzak, eta jzenak berekin eramanizantuztela bere herrietarat, eta hunek khanore du, zeren hek baino zaharragoa baita Eskuara, eta hala errazago zen ediretenzituzten hitzetarik zenbaiten hartzea, ezen ez berriroki hekien asmatzea, eta mol-datzea, *Facilius tamen id præstabit, qui hæc prius*

præcognita habuerit, et inventis facilius est addere.
Senec.

§ 10

(EHUN ETA BERROGOI ETA AMAR URATHEREN INGURUNEAN ESKUARAK EZTU GANBIADURARIK HARTU)

Ordea eztezazula mirets bertze hitzkuntza horietan edirendadin Eskuaratik harturikako zenbait nahastakadura hau denazgeroztikan zure erranaren eredu-ra gauza bat hekien artean hain naharo, eta ardurako dabilana; eta Eskuarak handirozki higintzen, eta gaitzerizten duena halako gisaz non zenbatenaz ere hek baitira ganbiakorrigo, hanbatenaz hau baita iraunkorrigo eta fermuago, ezen agerida ehun eta berrogoi, eta hamar urtheren inguruan Eskuarak ganbiadurarik eztuela hartu, eta bere izaite garbian mantenatzendela halakotz hitzak utzirik, dugun bilha hainitz eskualdunek eskiribaturik utzidarokuten Eskuara bera eta bereziki Aita Materrak, milla, sei ehun eta hamaseigarren urthean: Joannes de Etxeberri Ziburuko Jaun Apézak millasei, ehun, eta hogoi, eta hamabortzgarre-

nean; Eta finean Piarres Axular gure Errotor famatuak milla sei ehun, eta berrogoi eta bigarreanean: halako gisaz, non hirur presunaja hauk baitirudite ahobatez mintzaturik hitzkuntza molde berean atherarikakoa iskiribatudutela, zeina guretzat hain baita berria, eta freskoa, nola egungoa eta guk oraj darabilagunetik diferenziarik batere gabekoa: hura beraz Eskuara ehun, eta berrogoi, eta hamar urthe iraganondoan non ediretenden bere garbitasunean; ordea bitarte hartan bertze hitzkuntzek zenbat ganbiadura hartuduten bat bederak badaki, eta oraino, nola egunguztiez ere hartzen haridiren bai.

§ 11

Badakit orai jhardetsiko darotazula, autor haukien jskiribuak eztirela hain aspaldikoak, eta zaharrak; egia da, eta aithortzendarotzut, iskiribuak gazteagoak, eta geroztikakoak direla; ordea nahi nuke, erremarkazenezan ni mintzo naizela jskiribu hetako Eskuaraz, zeina ezbaita xoilki jskiribu hek egin ziren denborakoa, baina bai, hek bere haur denboran ikhasirikakoa, eta hala gisa hunetan kontua helduda ehun eta berro-

goi, eta hamar urtheren ingurunera, zeren hetarik bakhotsak iskiribatuzuenekotzat baitzituen gutinean berrogoi eta hamar urthe.

Guztiarekin ere, eztut errannahi, Eskuarak zenbait hitz elitukela hartu bertze hitzkuntzetarik, ordea noiz? noiz eta ere edirenbaitzituen bere herrian etzituen gauzak, hargatik ordea, ezin erranditeke hitzkuntza hobenduri, eta faltaduri dela ez eta ere bere garbitasuna galduduela (batzuek hala uste dute) zeren ez baita hitzkuntzarik ahal diratezken, eta ediretendiren gauzaguztien jzenak dituenik, hartarakotz beharlizate jzan Profeziazko hitzkuntza, ezta autorik ere gauzaguztien jzenak iskiribatu tuenik, zeren lekhu batean edireten diren gauza batzuek, ezpaitira edireten bertze batzuetan, eta hala nor da ezagutzen eztuen gauzari eta egundaño entzungabekoari jzena emandezokenik? Hebreoa izanzelarikan Jainkoak gizonari eman zioen lehenbiziko hitzkuntza perfeta, halarikan ere nork erranendu denbora hortan bazituztela orai guk ditugun gauzen hitz guztiak? ezen hainitz gauza berriroki argitara jlkidira, batzuek erresuma hartan, eta mendebatean, bertzeak erresuma hunetan, eta mende diferentean: eta hala noiz eta ere Eskuarak edirenbaitituzte Erresuma arrotzetan, orduan dudarik

gabe obligatua izanda, hetarik hartzera, bertze hitz-kuntzek egin ohi duten bezala. Ordea hargatik arrozoin hau ezta aski erraiteko, Eskuarak galduduela bere garbitasuna, zeren ezbaitu hartu ganbiadurarik bere lehenbiziko hatsapenetan (zeinak baitira deklinazioak, eta konjugazioak) ez eta ere gizonak bizitzearen mantentzeko behartuen gauzen jzenetan ezen nor da erranenduenik, orai aipatzera daramatzidan jzenak egun, eta egundanotik eztirela ardurako, eta komun izan Eskual-herrian? jakiteko, Jaungoikoa, edo Jainkoa: Aingerua; Zerua; Izarra; Airea; Ura; Lurra; Sua; gizona; emaztea; Aita; Ama; Semea; Alaba; Haurra; ogia; Arnoa; Haragia; Etxea; Ganbara; Sukhaldea; othoi erradazu ea hitz hautan edireten duzun bertze linguajen kutsurik? eta bitartean hauk, eta gisa hunetako gauzen jzenak dira Eskuarak bere lehenbiziko mendean, eta gero ondoan ere beharren zituenak? Hemendik beraz erran diteke Eskuara egungo egunean bere garbitasunean dagoela, zeren begiratzen bere lehenbiziko hatsapenak, eta jzenak, zeinetan baitauntza bertze gainerako guztiak Philosophoen erranen eredura. *Principia mole parva virtute maxima omnia principijs insunt.* Lehenbiziko hatsapenak appurrak dira, baina jndar, eta bothere handi-

takoak, gauza guztiak hetan dauntza, eta hei datxezte, eta hunetan dago hitzkuntzaren izaitea, eta garbitasuna. Orai beharbada erranendarotazu Eskuaran hainitz hitz eskas direla, eta oraino bertze alde mintzatzeko maneran-ere eztela alde guztietara berdinki hedatzen, zeren ediren arren izenbatzuek berboetarik, eta berboak jzenetarik atherajak, eta moldatuak, hala nola gezurtatzea, urreztatzea, guztiarekin ere eztirela edireten hei erantzunbehar lioketenak, eta manera berekoak, hala nola egiztatzea, handiztatzea.

§ 12

Badakizu aitzinxean, zer erran dudan, Eskuarak bertze hitzkuntzetarik hartuahallituzken (*sic*) hitzen gainean; ordea jduritzenzait hortaz etzarella oraino satifatua gelditzen, eta hala jhardetsiko darotzut Doktor Aingeruarekin: *Adam habuit omnium scientiam, in quibus natus est homo instrui, et hæc omnia illa sunt, quæ virtualiter existunt in primis principijs, quæcumque et naturaliter cognosci possunt. Divus Thom. 1. par. Quest. 94.* Adamek izanzuen gauzaguzien zientzia, edo ezagutza, zeinen jakiteko gizona sorthubaita, eta

hek dira lehenbiziko hatsapenenen indarrean, edo botherean ehortzirik dauntzanak, eta zein nahi naturalki ezagut ahalditezkenak: erran nahidu Doktor Aingeruak gizonak ardietsdetzakela Adamek izanzituen zientzia guztiak, zeren berenez ezagutahal ditezken lehenbiziko hatsapenetan baitauntza gauzaguztiak ehortziak, eta hatsapen haukien bidez bat bederak edirenbaitetzake gainerakoei dagoztenak. Beraz Doktor Aingeruaren erranaren eredura Tubal Eskualdunak ere bere hitzkuntzako hatsapenean bidez edirendetzake hitzkuntzari dagoztan gainerako hitzak? Eztuzu beraz zer erran Eskuararen hitzak falta direla? Ez eta ere mintzatzeko maneran eztela alde guztietara jgualki hedatzen? ezen zilhegi bada erraitea *Gezurtatzea*, zergatik ezta erranen *Egiztatzea*? eta handiztatzea?

§ 13

Badakit jhardetsiko duzula eztirela usaian; ordea adizazu zer dioen Senekak: *Nullatenus decet quærere quod vsitatissimum est; sed quod optimum*. De vita beata. Cap. 11. Niholerateko maneraz ezta bilhatu behar gauza gehienik ussaian dabilana, baizik hobere-

na eta hunen arrozoina da, zeren *Per non usum*, usaia faltak ez baitu frogatzen gauza ez dela, ez-eta-ere ezte-
la hobea: ezen zuri eta niri usaia faltaz zientzia bat a-
hantzi arren hargatik ezin erran diteke, zientzia hura
eztela, baizik zuri eta niri ahortzi zaikula, eta oraino
bertze alde zuri erakusteko usaia faltak eztuela jeusik
frogatzen, nahi nuke konsidera zenezan orai aipatze-
ra nohan exenplua: Baldin norbaitek lituelarik bi ezpa-
ta, bata baino bertzea hobea, eta hoberen hau zokho-
an utzirik, mendreago hura erabiltzen balu egun guz-
tiaz ongi garbitzen, eta olioztatzen luelarikan, dudarik-
gabe, mendreago hau zorrotzago, eta distirakorrago
lizate, eta hoberen hura zeren zokhoan dagoen,
antzatu faltaz herdoilak jana, guztia khamustua kausi
litekela: ordea zeren haren jabeak eztuen usaian era-
bili, erranen othe duzu berenez etzela hobea? egiaz
eztut uste, baldin zentzua ossoki galdu ez baduzu?
ezen hori da gauza bat jabearen lazotasun handia eta
artha appurra ezagutzera garbiki emaiten darokuna.
Gauza bera erran diteke usaia faltaz; eta antzatu-
bez zokhorataurthikiak bezala daduzkagun hitz hetaz-
ere, halatan beraz hobena lehen da gurea ezen ez
Eskuararena.

§ 14

Halarikan-ere baldin nihor hunelako hitz muetez baliatzen bada, badira presunaja batzuek zeinei iduritzen baitzaje halako hitzak eztirela eskuarazkoak, zeren hainek eztuzketen entzun, konsideratugabe badirela eskuaran hainitz hitz, eta izen hainek eta nik eztakitzagunak eta jakinen-ere ezitugunak; ordea zer erraiteko da noiz-eta-ere halako hitzak eta izenak baitirateke berenez eskuarazkoak, eta eskuararen erregelen eredura moldatuak? edo erran behar da, hainek eskuara nahi luketela egin den baino gathibuago, eta lothuago? ordea nola bethi arrozoinari amor eman behar baitzajo denbora, eta lekhu guztietan, hargatik nahi nuke entzun zenezan Galeno mirikuntzako Prinze handi hark dioena: *Ratio, et experientia instrumenta nobis a natura tributa sunt ad faciendam fidem, et rerum omnium inventionem.* 8 meth. 1. et Aristoteles 1. rethor 2. Frogaren egiteko, eta gauza guztien bilhatzeko naturalezak eman darozkigu (dio) arrozoinamendua, eta esperientzia lanabesatzat, eta erremientatzat. Gauza bera dio Zizeronek-ere: *Est ingenium vis quædam naturalis nobis insita ad inveniendum quod*

ratione judicari possit. Cic. Badugu argitasun natural bat arrozoinaren bidez kausi ahal ditezken gauzen bilhatzeko. Beraz manera berean Eskuarak-ere, arrozoinaren bidez bilha ahal ditezken gauzen kausitzeko, eta ezagutzeko, erran behar da, baduela argitasun eta libertate bera? baldin orai-ere nahaiago ezbaduzu erran hitzkuntza guztietarik hunek galdu duela zentzua eta libertatea, bathere eztelarikan zentzua hanbat segitzen duenik, eta libertateagatik hanbat odol issuri duenik?

§ 15

Orai etzaitzu bertzerik falta baizik erraitea, hauk direla gauza berri batzuek, eta oraino zuk entzun ezitutzunak, eta halatan estrainio iduritzen zaitzula arrozoinamenduketan ibiltzea. Horren gainean eztarotzut nahi ihardetsi jeusere bertzerik, baizik Isidoro Paulok dioena: *Ad hæc nec prave, nec sceleratum est aliquid innovare cum vtilitas novitati adjuncta sit.* Isidorus Paulus. lib. 2 epist 46. Ezta gaitz erraiteko (dio) progotuagatik zerbaiten erreberritzea. Ezeta-ere ezta miresteko beraz baldin Eskuarak bere erregelen, eta

hatsapenen eredura eskuarazko hitzak moldatzen baitu, gauzak hobekiago adiarazteko? ordea hargatik ezin erran diteke bere garbitasunean notharik errezi-bitzen duela: ezen urretik egiten diren gauzak, nahiz izan ditezin itxura diferentetakoak bethi dira urrezkoak, eta urrearen naturaleza berekoak: Agustin Sainduak dioen bezala: *In ipsa autem varietate quid est? ipsa sapientia, non diversum aurum sed varietas de auro.* in. ps. 44. Gauza bera nik-ere erran nahi dut, noiz-eta-ere hitzak baitiratezke eskuarazkoak, eta Eskuararen erregelen eredura moldatuak, arrozoin handirekin hartu behar direla Eskuarazkotzat. Halatan beraz erranen dut Axularrekin batean, bertze hitzkuntza eta lenguaia guztiak bata bertzearekin nahastakatuak direla, baina Eskuara bere garbitasunean dagoe-la.

ESKUARA NOBLEA DA

§ 1

Badira presunaia batzuek zeinek uste baitute egiazko noblezia dagoela urre, zilhar, eta ontasun franko izatean; Bertze batzuek gorputzeko sendotasunean: eta finean bertze batzuek buraso noblenganikako ethorki xoilean, eta hala azkeneko arrozoinamendu hunen eredura, ene aippamenak badirudi ja frogatua gelditzen dela, zeren Eskuara Tubal Prinze handi haren umea, eta alaba baita.

§ 2

Ordea Apulejo gizon jakintsun hark bertzerik dio: *Si laudas virum, quia dives, hoc fortunæ debetur; si quia fortis ægritudine debilitatur, seu fatigatur; si quia nobilis, non ipsum sed parentes ejus laudas.* Baldinetariak presuna bat laudatzen baduzu zeren aberats den (egungo egunean gerthatzen den bezala) hori zor

zajo fortunari; Baldin zeren sendoa eta azkarra den, eritasunarekin flakkatzen, eta herbaltzen da: Baldin zeren sortzez noble den, eztuzu hura bera laudatzen, baina bai haren burasoak, eta aitzineko egokiak: Ouidiok-ere hala erran zuen: *Nam genus, et proavos, et quæ non fecimus ipsi, vix ea nostra voco.* Bere ethorkia, eta leinua, arbasoak, eta berak egin etzituen gauzak, etzituela bereak deitzen. Senekak ere gauza bera dio bere ethorkiaz bantatzen direnez; *Qui genus jactat suum, aliena laudat.* Halakoak bertzeren gauzen laudatzen hari direla: behar bada ustez ezen Birjilioren erranaren eredura.

*Qui viret in folijs venit a radicibus humor
Et patris in natos abeunt cum semine mores.*

Burasoen merezimenduak, eta eginbide ohorezkoak umetara iragaiten direla, hala-nola arbolak erroez lurretik edoskitzen duen urina baithoa hostoetara; hau hala lizelarikan, erran ahal jenezake, munduan eztela hain zorthe dohatsurik, nola noble sortzea, zeren noble sortzen denak bere baithan ediren bailetzake bere aitzineko egokien, eta burasoen merezimendu

guztiak, bera bere partetik bathere entsejatu eta premiaturgabe.

§ 4

Xrisostomo Sainduak bertze hitzkuntza batez usatzen du, gauza hunetaz mintzo denean: *Neque nobilitas censetur, eo quod magnatum sanguine sis prognatus, sed ipse efficiaris magnus*. Chrisostom. ennar. in Isaiam. Dio Dotor handi hunek ezta noble izaitea, zeren buraso nobletarik sorthu zaren, zeroni egin zaittea noble: erran nahi du bat-bederak eztuela zer loriatu xoilki bere aitzinekoen eginbide, eta merezimenduetan, non hek bekala ongi entsejaturik, eta ohorezki enplegaturik, ezten beztitzen berthutearen plumai ederrez; Hargatik Satisberio-ere erran zuen: *Nihil miserius, quam in alieno fulgore gloriari, et eo constat, esse inopem debitorem, qui solutionem celebrare non potest*. Satisberius. cap. 19. Dio, ezta gauza dohaka-beagorik, nola baita bertzeren abantaillez, eta ohorez beztiturik, hetaz loriatzea, ezen handikan ageri da, halakoa erromes dela, eta eztela gai bere eginbideari erantzuteko, eta ihardesteko, eta hunelakoez erraiten

du Zirilo Sainduak-ere *Vanum est extolli de bonis prædecessoribus, et deficere ab eorum virtute*. S. Cyril. in Catena aurea. Ergelkeria da buraso prestuez hantatzea, eta hekien eginbide ohorezkoetarik hastantzea eta apartatzea; zeren Aristotelesekin dioen eredura: *Nobiles ij demum videntur esse, in quibus majorum virtus inest, et copia* lib.5. de Republ. cap. 1. Nobleak dira, zeinen baithan kausitzen baitira aitzinekoen berthute, eta eginbide ohorezkoak. Hemendik beraz ageri da, egiazko nobleziak behar duela izan berthute-tik ethorria, jajoa, eta sorthua, zeren Philosopho beraren errana baita: *Nobilitatis principium, idest honoris, qui solus est præmium virtutis*. Berthutea da nobleziaren ethorkia eta hatsapena, zeina xoilki baita berthutearen errekonpentsa: halako moldez non hau gabeko noblezia, xoilki deit baititeke izenezkoa: ezen nork-ere uste baitu noble eta Aitonon-Seme dela eta apartatzen, eta hastantzen baita aitzineko buraso ohoratuen eginbide ohorezkoetarik, egiazki halakoa enganatua bizi da, zeren berthute gabeko nobleziak baino ohore gehiago egin baitezoke berthuteak. Hau da perla, eta joja balios bat diruz erosten eztena, eta adiskidek emaitzaz ezin eman dezaketena, xoilki merezimenduen bidez ardiesten da, eta ez bertzela: Eta bertzela

uste izatea da Anbrosio Sainduak diona; *coronam exigis, antequam vincas?* S. Ambr. lib 4. in Luc. de recessu diaboli. Khoroa galdegiten duzu merezitu baino lehen? jakin zazu bada eztukezula, kuk nahi zenduke berthutearen arrosa arantzerikgabe eskuetara; ordea hori ezin dateke, zeren arrosa arantzepean sortzen, eta loratzen baita: Gisa berean berthutea-ere arantze-tsu da, zeren trabailuen, eta merezimenduzko obren bidez bere arrosa, eta lili ederrak errepartitzen baititu egia hau ezagutirik (*sic*) erran zuen Boezio autor handi hark: *Virtus ex eo vocata est, quod suis viribus nitens non superatur adversis.* 3 de Consolat. pros. vlt. berthutea deitzen da berthute, zeren bere indarrez, eta bothere guztiez ensejatuz ezbaita bentzutua etsajez. Beraz arrozoinamendu hunen eredura, noble izanen denak behar du izan bere merezimendu propialez bez-titua.

§ 5

Lege hau segitu du gure Eskuarak, zeina hanbat mendez mantenatu eta mantenatzen baita, bere indar propialez entsejatzan delarikan: egundaino izan

eztuelarikan gramatikkako, eta zientzietako laguntzarik, beure zuhurtzia, eta antzea baliatu zaizko, munduko bi etsairik borthitzenen kontra, zeinak baitira denbora eta indarra, zeren denborak gauza guztiak sentitugabe emeki emeki, eta eztiro baitaramatza, eta azkenean ezjeusetara ekhartzen baititu.

§ 6

Halaber gorajak-ere bere menekoei nahi duena onhets-arazten deraue: *Data est opera, ut civitas Imperiosa non solum jugum, verum etiam linguam suam domitis gentibus per speciem societatis imponeret.* D. August. 19. de Civitat. Dei. cap. 19. Exenpluak baitugu bertze hitzkuntzetan, zeinak denborarekin baitohazi ganbiatuz, eta bethi ploma itzuli izatu dute garaitiarraren alde: Hebreoa Babiloniako gathibutasunean hirurhogoi, eta hamar urtez (lehen erran den bezala) ganbiatu zen eta hartu zuen Kaldeoa bere etsajena.

§ 7

Grekoak-ere denboraz eta nausi zeino, irauñ zuen: baina gero denborarekin ethorri zen ganbiadura hartzera. Erromako Enperadoreoak irauñ zueino, Latinak-ere on eduki zuen, baina botherea eta manua faltatzearekin, hunek-ere bere distiadura galdu zuen, hartatik erran zuen, Lipsiok ere: *Ingenium, et natura ipsa ita fert, ut flectant se omnia ad mores, cultumque victoris. Lipsius. cap. 3. de recta pronuntiatione linguæ latinæ.* Arrozoinak, eta oraino naturalezak berak-ere onhesten du, bentzutuek amor eman dekoten garai-tiarren usantzei, hazturei, eta egiramuei; halako gisaz non baiterrakegu hala egin izatu dutela bertze hitzkuntza hauk.

§ 8

Ez ordea Eskuarak, eta hau heldu da, zeren bertze hitzkuntza hauk ganbiarazi tuzten etsajak ez baitira aski botheretsu izan Eskuararen ganbiarazteko, eta hunen iraupenaren ethentzeko; pontu hunen gainean eztugu zer ibili froga berriketan, zeren ja aitzintxean ikhusi baituzu, Eskuarak hirur hogoi eta hamar urthez

eztuela mudantzarik bathere errexitu, aitzitik bere indar propioez mantendu dela, denbora izan arren gauza guztiak sentitugabe, eta eztiro ezjeusetara ekhartzen tuena, urreez kanpoan.

§ 9

Ezta bada zer erran, Eskuararen kontra garaitia batere botheretsuago izatu dela, ezen Espainian izatu direlarikan nausi hainitz jendaki arrotz, eta bereziki Erromarrak garaitiar, eta nausi zirenean, heltzen ziren lekhetan entsejatzten ziren bere hitzkuntza Latinaren sar-araztera, eta hedaraztera, asko lekhetan egin izan zuten bezala: eta bide hinetaz iraungiarazten zituzten kausitzen zituztenak, zeren lehen erran den bezala, gauza guztiak garaitiarraren alde jokatzen baitira: ordea halarikan-ere ezta ageri gure Eskuarak batere jautsapenik egin dioela jende arrotzen garaitiari, aitzitik amorik emangabe bethi on eduki du, eta orai-ere bere hatsapenetan, eta garbitasunean dago, aitzineko kapituluan frogatu dudana bezala: halako moldez non arrotzoin hau dela kausa dudatzeko baita, ea Erromarrak, edo bertze zenbait jendaki arrotzek izan othe

duten garaitiarik Eskual herrian? ezen Silio Italliarrak ere badio: *Cantaber ante omnes hyemisque, æstusque, famisque invictus*. lib. 3. Eskualduna da guztien artean ez hotzetez, ez berotez, ez gosetez ezin bentzuturikkakoa: Nahi dut, zenbait abantail appur ardie-tsi ahal zuketan zenbait lekhu bakkarretan; ordea halarikan-ere sinhesteko da denbora gutiz gozatu ahal zuketela, eta hekien loria iraupen gutitakoa izatu zela, baldin egia bada Horazioren errana: *Cantaber indoc-tus ferre juga nostra*. Eskualdun gure uztarriaren era-biltzen ikhasi gabekoa. Arrozoin haukien eredura, erran dezaket beraz, jendaki arrotzek etzutela izan bothererik aski, Eskualdunaren hitzkuntzaren ganbia-razteko, eta halatan zillegi ikanen zait erraitea Boezio-ren eredura: *Cantabrisimus est, qui suis viribus nitens non superatur adversis*. Eskuara da hitzkuntza guztien artean bere indar propialez entsejaturik, etsajez bentzutugabekoa; hargatik arrozoinekin erran duket, Eskuarak ongi merezitua duela nobleziazko kalitatea.

Eta baldin ongi konsidera badetzatzu Silio Italia-
rrak, Horaziok, eta bertze hainitz Autorek Ezkualdunez
erran tuzten gauzak, ikhusiko duzu, orai aipatu
dudan noblezia hau bera kausitzen dela Eskualdune-
tan, zeren hauk baitira Erromarrei, eta Erromako
Enperadorei hanbat ekhai, eta egiteko eman zioten
jendaki suhar eta azkar hura, eta Autor, eta Istorio
guztiek boz batez hanbat laudorio emaiten diotena,
hala bere balentasunaren, eta kuraja suharraren
kariaz, nola izpirituko habilezia miragarriaz. Hemendik
ordea jelsia, eta inuidia harturik, hainitz jendaki
arrotz, eta bereziki Erromarrak eta Erromako Enpera-
doreak gutiziatu izan ziren, bortxaz, edo amodioz jen-
daki hunen beretzera, halako moldez non gutizia edo
desirkunde hunek berak mugidarazi baitzuen Zesar
Enperadorea Eskualdunen, eta Asturianoen kontra
harmen hartzera. *Cæsar parum in Hispania per ducen-
tos annos actum intelligens, si Cantabros atque Astu-
res duas fortissimas gentes Hispaniæ suis vti legibus
sineret, aperuit Jani portas, atque in Hispaniam ipse
cum exercitu profectus est.* Orosius. lib. 6. cap. 21.
Dio Orosio gizon handi hark: Zesar Enperadoreari
gauza appurra, eta gutia zitzajon berrehun urthez
Espainian egin zela, baldinetariak Eskualdunak, eta

Asturiarrak, Espainiako bi jendaki hagitz borthitzak uzten bazituen bere libertatetan gozatzera, halatan gerla deklaratu zuen, eta bera bere presunaz harmadarekin partitu zen Espainiara.

§ 11

Oraino bertze-alde banituke hainitz autor arrotz ene aippamen hunen fagoretan deitzeko; ordea nola guztien huna ekhartzea bailizateke zure, eta ene nekhearen berretzea, halatan bada kontentatuko naiz hetarik guztietarik zenbaiten ekhartzeaz eta lehenbizirik, D. De Ivigne Brossiniere abokat handi hura, zeinak erraiten baitu bere hitztegi Istoriozkoan:

Biscaye est vn quartier d'Espagne costoyant la mer oceane vers l'occident pres le Bearn; le Ciel y est, fort doux, et temperé a cause qu'estant toute entourée de montagnes, elle n'est incommodée, ni par le grand froid, ni brulée par les ardeurs du Soleil: Elle est chargée d'arbres propres a batir Navires, abonde en animaux terrestres, maritimes, et volatiles, comme aussi en toutes sortes de fruits, excepté de vin: Il s'y fait vn grand trafic, a cause des marchandises qui y

viennent de France, Angleterre, Pays bas, et autres endroits, ayant a cet effet des havres fort commodes. Les habitans estoien jadis appellees Cantabres, Valcons, Vasques, Basques, et Biscains, recommandez par leur valeur entre tous les peuples d'Espagne: Elle estoit anciennement comprise sous le Royaume d'Aquitaine, mais qui depend maintenant pour la plus part de la couronne d'Espagne: et l'autre partie contenant les villes de Bayonne, de S. Jean de Luz, et quelques autres jusques au fleuve d'Iron (sic) qui en fait la separation, appartient au royaume de France. Les Biscains son (sic) ingenieux politiques, et adroits a manier toutes sortes d'armes, gaillards au reste, et propres. Les jeunes filles Biscaines ne coupent ny couvrent leurs cheveux jusques a ce quelles soient mariees. Plin. lib. 4. c. 20: Mercator en son Alas (sic).

Bizkaia da Espainiako parte bat itsaso Ozeanoaren kosta bazterrari dagokala, iguzki sartzeko aldetik, Biarnoatik hurbil, hango airea ezta eta emea da, zeren mendiz inguratua baita guztia, ezta hotzegia, ez beroegia untzi egiteko arbola fixoz bethea da, lurreko animaliez itsas-arrainez, eta hegastinez naharoki konplutua da, baihalaber zernahi fruitu suertez, arnoaz kanpoan. Frantziatik, Angeleterritatik, Ollandatik eta

bertze lekhuetarik ethortzen diren marxandizak direla kausa egiten da merkatalgoa handi bat. Hango jendeak noizbait deitzen ziren Kantabresak, Valzontarrak, Vaskotarrak, Baskotarrak, eta Bizkaitarrak, Espainiako populu guztien artean famatuak bere balentasunaz; lehenago Gienako erresumarekin bat zen, baina orai gehiena Espainiako khoroaren azpiko da; eta Franziako erresumakoa da bertze gainerakoa, zeinetan baitira Baionako hiria, Donijoanekoa, eta zenbait bertzerik Irungo hibaiarainokoa, zeina zerbitzatzan baita mugarritzat. Bizkaitarrak (erran nahi da Eskualdunak) izpiritutsuak dira, bizitzen dakitenak, edo kortesak, eta zernahi harma suerteren erabiltzen trebeak, alegerak edo umore onetakoak, fixoak, eta ongi eginak, neskatxa gazte bizkaitarrek ezkon artean eztute buruko illea mozten, ez estaltzen. Plin. lib. 4. c. 20. eta oraino autor hunek berak badio bere hitztegi istoriodunean, Kantabres hitz hunetan.

Les Cantabres estoient d'un tel courage qu'ils se donnent (sic) volontairement la mort pour eviter quelque peril eminent, mesme les meres mourtrissoient leurs enfans, et les enfans leurs parens de peur de tomber entre les mains de leurs enemis. (Estant vne fois poursuivis par l'Empereur Auguste, et reduits a

l'extremité) apres s'estre mis a faire bonne chere, ils se deffirent eux-memes au milieu du festin, les vns par le fer, les autres par le feu, les autres par le poison (qu'ils portoient ordinairement avec eux pour avancer leur mort en semblables occasions) et ainsi se delivrerent de la captivité dont ils estoient menacez. Flor. lib. 4. chap. 12. Ils se voüent aussy fort volontairement a la mort pour leurs amis, voir mesme estant au supplice ils avoient coutume de chanter le Pæon. Alex. d'Alex. lib. 1. chap. 26.

Kantabresak (erran nahi da Eskualdunak) hain ziren kuraja handitakoak, non erortzeko hain hainean ziren periletarik eskapatzeagatik, bere buruak bere nahiara hiltzen baitzituzten, baita Amek-ere bere haurrak, eta haurrek bere burasoak etsajen menera eror zitezin beldurrez. Behin Augusto Enperadorea zerrajelarikan, eta azkeneko hesturara ekharriak zeduzkan denboran, eta assetzen jarri ziren ondoan, elkhar hiltzuten, erdi assexo zirenean, batzuek harmaz, bertzeak suaz, bertzebatzuek pozoinaz (zeren berekin baitzerabilaten halako okasinoetan bere buruei bizia- ren laburtzeko) eta gisa hunetan libratu ziren erortze- ra zihoazin gathibutasunetik. Flor. lib. 4. c. 12. Adiski- deak gatik halaber bere buruak bere nahiara hiltzera

emaiten zituzten, eta hiltzerako puntadan usantza zuten kantatzeko bere arteko kanta bat.

§ 12

Luis Moreri gizon handi hark-ere erraiten du bere hitztegi istoriozkoan, Baske hasten den izenean:

Les Basques sont renommés par leur adresse, par leur fidélité, et par leur intelligence dans le commerce qu'ils font avec les Espagnols (sic).

Leur langue est toute particulière. Ludovicus Moreri dans son *Dictionnaire Historique* au mot Basque.

Eskualdunak famatuak dira bere agudeziaren eta leialtasunaren kariaz, eta Espainolekin egiten duten tratuko ezagutza dela kausa. Hekien hitzkuntza bere gisakoa da.

§ 13

Orai dugun entzun D. Sebastian de Kobarrubias Orozko Erregeren kapillan eta Kuenkako Kalonjeak erraiten darokuna.

Vascuña por otro nombre dicho Gascueña, y por otro Lypuzcoa, y Cantabria comprehende en si los pueblos de Vizcaya y parte de Navarra, la lenyua de los de esta tierra llamaron vascongada, tienese por cierto que la primera poblacion de España fue la de esta tierra por Tubal nieto de Noe, y es cosa admirable que asta nuestros tiempos se aya conservado sin mezcla de otra alguna, excepto algunos vocablos, que por la comunicacion de los demas pueblos se avran introducido. Esta gente asta la predicacion del Evangelio vivio en la ley de naturaleza, adorando un solo Dios verdadero. La Cantabria, Guipuzcoa, Alava, Vizcaya, y las demas partes de el Reyno de Navarra que han participado, y participan desta lengua, es dela gente mas antigua, y más noble y limpia de toda España D. Sebastian de Covarruvias Orozco, capellan del Rey catolico, Maestrescuela, y Canonigo de la Santa Iglesia de Cuenca, y Consultor del Santo oficio, en el tesoro de la lengua Castellana, fol. 203, p. 2.

Baskueña bertze izenez Gaskueña, eta bertzela Ippuzkoa eta Kantabria hedatzen da Bizkaiako, eta

Nafarroako zenbait populuetara herri hetako hitzkuntza deitzen da Eskuara: gauza segurtzat dadukate Espainiako lehenbiziko populua izan zela herri hunetakoa Tubal Noeren illobassoaganik, eta gauza miragarria da (dio) nola gure denboraraino mantenatu den bertze zenbait hitzkuntzarekin nahastekatugabe, zenbait hitzez kanpoan: zeinak bertze jendakiekiko hantazinotik sarthu baitirateke. Jende hau Euanjelioa predika ziteken artean, bizi ikan zen naturalezaren legean, adoratzen zuelarikan egiazko Jainko bat. Kantabria, Ippuzkoa, Alaba, Bizkaia, eta Nafarroako parterik gehiena, hitzkuntza hau dadukatenak, dira Espainiako jenderik zaharretik, noblenetik, eta garbienetik.

§ 14

Bertze-alde Erromarrek nolako estimua egiten zuten Eskualdunaren kuriaz eta Balentasunaz, hemendik juja dekakezu, zeren eginbiderik borthitzenetan, eta athearik perilosenetan Eskualduna ezartzen baitzuten: lekhuko da Tazito, Erromarrek Anglesen, Alemanen, eta hekien Kapitain jeneralaren kontra izan zuten gerla hartan, bitoria etsajetarat erortzera

zihoana, Eskualdun tropelak estrosadaren min minean ethorririk Erromarrak garaitiar eragin zituztela.

§ 15

Eta hauk hunela aippatu eta ondoan, Oihenartok dioen bezala, daritzat badagotela aippatzea Eskualdunen eta Karlo Magnoren harmadaren artean gerthatu ziren gauzei, jakiteko, harmada hunek Oierriagan izan zuen odol issurizko sarbaskia, eta mundu guztian hanbat habarrots eginikkakoa, zazpi ehun, eta hirur hogoi, eta hemezorzi garren urthean.

§ 16

Eskualdunek Erromarrekin konserbatu zuten libertate osoa, eta Suebiarren Godoen, eta Sarrasinen kontra anhurik egin gabe sostengatu zutena: Karlo Magnorekin galdu bezanbatsu zuten, noiz-eta-ere baitzihoan Espainiarat harmada handi batekin, Ibnabala deitzen zen errege Sarrasina hartaz deithua, iragaiten zelarikanbada Eskualdunen, eta Nafartarren eremue-

tarikan, batzuek eta bertzeak bere meneko, eta azpiko, trebutari eta billau eragin nahi izan zituen Iruiñea Eskualdunen hiri buruzagia, murrailak urraturik, eta aurthikirik kontra altxa etzekioen amoreagatik, bas-herritzat egina utzi zuen: Lekhuko dira Ejinhardo, eta mende hartako bertze Istoriolari Karlo Magnok eginikakako gauzez iskiribatu dutenak.

§ 17

Eta nola jende sentikor hau bere baithan minbertua baitzegoen errezibitu zuen bidegabeaz, eta laidodaz mendekatzeko parada bilha zebilan, eta hargatik Franziaiko harmada gibelat itzultzen zelarikan, haren gibel aldeko soldadueriari kurajozki ekhin zitzaien Pirineoko atketan: soldaduz eta harmaz gutiago izan arren, estrosada dohakabe batez garaitu zituzten. Halatan beraz dugun entzun Eginhardo Erregeren Gortheiko Notaria, eta Karlo-Magnoren gauza gehienekagutza izan zuena, zeinak Prinze hunen bizitzearen ganean xehero iskiribaturik moldatu zuen liburuan, zer passatu zen Espainiako estrosada hune-tan, deklaritzen baitaroku hitz hautaz: *Ipse per bella*

memorata, primo Aquitaniam, et Vasconiam, totumque Pyrenæi montis jugum, et vsque ad Iberum amnem, qui apud Navarros ortus, et fertilissimos Hispaniæ agros Secans & ita perdomuit, ut eas tributarias efficeret.

Lehen aipaturikkako gerla hetaz, bere menera, eta azpira zituen lehenik Giena eta Eskual-herria, bai halaber Mendi pirineoaren gaindegi guztia Hebrorainokoan (*sic*), zeina Nafarroan sortzen baita, eta Espainiako kanpo fruitutsuak arrasatzen zituelarikan, hala-ko gisaz hezi zituen, non trebutari eragin baitzituen.

§ 18

Oierriagako estrosada heriotzetsu hartaz mintzo da gisa hunetan: *Nam cum agmine longo, vt loci, et angustiarum situs permittebat, porrectus iret exercitus, Vascones in summi montis vertice positus insidijs (est enim locus ex opacitate Sylvarum, quarum maxima est ibi copia, insidijs ponendis opportunus) extremam impedimentorum partem, et eos qui novissimo agmine incedentes, subsidio præcedentes tuebantur, de super incursantes in subjectam vallem deijciunt: consertoque cum eis prælio, vsque ad vnum omnes*

interficiunt: ac direptis impedimentis, noctis beneficio, quæ jam instabat, protectisumma cum celeritate in diversa disperguntur. Adiuuabat in hoc facto Vascones, et levitas armorum, et loci, in quo res gerebatur, situs. E contra Francos, et armorum gravitas, et loci iniquitas per omnia Vasconibus reddidit impares. In quo prælio Egartus Regiæ mensæ præpositus, Anselmus Comes Palatij, et Rutlandus Britannici littoris præfectus, cum alijs compluribus inferticiuntur. Neque hoc factum ad præsens vindicari poterat, quia hostis re perpetrata ita dispersus est, vt ne fama quidem remaneret vbinam gentium quæri potuisset.

Nola harmadako jende tropela baitzihoan herronkan hedatua, lekhuko paraia hestuak permetitzen zuen eredura, Eskualdunak estrosada preparaturik mendi mehaka gainean (zeren hartako lekhu ona eta behar bezalakoa baita, hango saroi, eta oihan itsuak direla kausa) oldartzen zitzaitzelarikan gain-aldetik bagaierien azken parterainokoan, eta aitzineko jende tropelaren pausuen begiraletzat gibeletik heldu zirenei jazarririk, irioarazi zioten mendia behera haren hegalean den haran batetara, eta hekin guduztaturik eta gathazkaturik, guztiak hil zituzten, batere utziga-be. Eta hekien tresneria, eta bagaieriak harturik,

gabaren laguntzarekin batean, zeren arratsa hurran baitzen, berehalaxe lehiadura handirekin banatu ziren bata horrat, eta bertzea hunat, bata baterat, eta bertzea bertzerat, guztiak lekhu diferentetarat. Egiteko hunetan Eskualdunak laguntzen zituen harmen arintasunak, eta gathazkako lekhuaren parajak: eta kontra-
ra Franzesak harmen pisutasunak, eta lekhuaren paraia gaitzak eragin zituen Eskualdunen azpiko. Gerla hunetan hil ziren Egarto Erregeren mahainzaina edo despensaria, Alselmo Palazioko Kondea, Errolan Bretoiniako kostetako Kapitain jenerala, bertze hainitzekin. Egiteko hunetaz etzen mendekatzeko biderik, zeren etsaja bere kolpea egin eta, banatu baitzen, halako moldez, non nihork esbaitzeakien norat galde.

§ 19

Ejinbardo berak, edo Ademarok, edo nor-ere baita Karlo Magnoren, eta Luis Pioren istorioen iskiribatzailea edo Autora, hainak estrosada dohakabe hau, hitz gutiz aditzera emaiten daroku gisa bunetan, mintzo delarik Karlo Magnoz: *Pompelonem revertitur. Cuius muros ne rebellare posset, ad solum vsque destruxit,*

*ac regredi flatuens Pyrenæi saltum ingressus est. In
cujus summitate Vascones, insidijs collocatis, extre-
mum agmen adorti, totum exercitum perturbant
magno tumultu. Et licet Franci Vasconibus tam armis,
quam animis, præstare viderentur, tamen & iniquitate
locorum, & genere imparis pugnæ inferiores effecti
sunt. In hoc certamine plerique aulicorum, quos Rex
copijs præfecerat, interfecti sunt, direpta impedi-
menta, & hostis propter notitiam locorum statim in diver-
sa dilapsus est. Cujus vulneris accepti recordatio,
magnam partem rerum fæliciter in Hispania gestarum
in corde Regis obnubilavit.* Dio, itzultzen da Iruiñera,
zeinaren murrailak, erreboltaturik altxa etzekion
amoreak gatik, aurthiki baitzituen lurrerat, eta delibe-
ratu ondoan Franziarat itzultzeko, sarthu zen Pirineo-
aren athekan zeinaren kopeta kukuilloan Eskualdunak
estrosada preparaturik ekhin baitzitzaizkon gibelesko
tropelari: hilu bulu handi batekin nahas-arazi zuten
harmada guztia, eta Franzesek iduri arren Eskualdu-
nak baino fixoagoak zirela, hala harmaz nola kuraiaz,
guztiarekin ere lekhuaren paraja gaitzaz, eta gerlako
manera diferentaz egin ziren Eskualdunen meneko:
Gudu edo estrosada hunetan Gortheke presunaja
gehienak Erregek harmadako Agintari egin zituenak,

hillak gelditu ziren, eta bagaieriak galduak, eta nola etsaiak baitzeakien lekhuetakoko berria, berehala horrat hunat banatu zen. Kolpe hunen orhoitzapenak Erregeren bihotzean goibelarazi kuen lehen Espainian dohatsuki gerthaturikkako gauzen parte handi bat.

§ 20

Oraintxeon iduritzen kait frogantzarik aski ekharri dudala, erraiteko Eskualduna noble dela, zeren Balduino legetako autor famatu hark erraiten darokunaren arauera: *Perfecta autem nobilitas est generis cum animi magnitudine decorata. In lib. nobiliores. C. de commer. et Marc.* Egiazko noblezia baitago kurajan, eta balentasunean, zeina egundainotik edireten baita eskualdunetan: *Nec vitam sine Marte pati: quippe omnis in armis lucis causa sita est, damnatam vivere paci.* Silio Italiarrak Eskualdunaz mintzo delarikan erraiten du; Eleakikela Eskualdunak bizitzen, non ezli-tuen harmak eskuan eta halatan dirudi naturalezaren Autorak-ere ezarri duela burdina eta altzairu meap-pean, bere baitharikkako naturalezaren eredura,

hetaz baliatzeko, eta harmatzeko; ezen non egiten da hanbat burdina, nola Eskual-herrian?

§ 21

Hunarainoan jeneralki minlztatu naiz Eskualdun guztiez: ordea nola eskoletako erregela baita: *Doctrina communis neminem doctum facit*: halatan orai hetarik zenbait bat banazka nahi nituzke izendatu: lehenbizirik hasten naizelarikan, aitzineko mendetan Eskual-herritik ilkhi izatu diren presunaja ohoratu, eta ospe handitako hetarik: badakit ordea erranen darotazula, hainak aspaldi hillak direla, eta mundu hunetako aldia eginik, ja ahantziak bezala daudezila? egia da hori, eta hala da, baina ezta axola: aitzitik egun hetaz hemen mintzo naizenean, erran dezakezu begien aitzinean tutzula, eta orai-ere bizi direla, Nizeto Xronistak dioenaren arauera. *Haud abs re liber viventium appellabitur historia rerum gestarum descriptio, tubæ languor, quo iam olim mortui, velut e sepulchris excitati in medium producentur.* Nicet. Chroniates. Aitzinekoen eginbide ohorezkoez zenbait istorio, eta aip-pamenen egitea deitzen da bizien liburua, istorioak

jujamenduko tronpetak bezala (dio) ja hillak, eta ahantziak daudezinak, bere hobietarik berriroki pitz-arazirik bezala, deitzen tu Gizon jakintsunen izpirituetan jujatuak izaitera. Beraz arrozoin dut, eta arrozoinere handia hetaz mintzatzeko, bataz zor diotegun errespetua dela kausa, bertzeaz zeren hekien aipamena bera gure ohoratzeko eta alegeratzeko aski baita, Pliniok dioen bezala: *Et enim si defunctorum imagines domi positæ dolorem nostrum levant, quanto magis et in quibus non modo species, et vultus illorum, sed honor, et etiam gloria refertur.* Plin. lib. 2. epist. 7. Baldinetariak gure aitzineko zirenen pinturen ikhuste xoillak gure bihotz-mina arintzen, eta konsolatzten badu, zenbat ezgenetzake gehiago konsola, eta boz, hekien ohorearen, eta loriaren aippatzen entzuteak? hartarakotz bada nondik, edo norenganik hasiko naiz izendatzen, eta batbederari bere merezimenduen, eta kargen eredurako herronkaren emaiten ?

§ 22

Ordea beldur naiz, bata baino, bertzea lehenago izendatzeaz, huts egin dezadan, zerenetariak behar-

bada zenbaitek usteko baitute batbederaren merezimenduen eredura herronka hau moldatu dukedala; ordea hau dateke gauza bat zeinetan nik ezagutzarik hartu nahi izatu eztukedana, eta halatan, ahalaz entsejatuko naiz bat-bedera bere adineko edo mende-ko herronkaren eredura izendatzera.

D. Antonio Okendo Almirante Jenerala, eta bere seme D. Migel Okendo Jenerala; eta halaber hunen seme D. Migel Karlos Okendo Sanmiliango Markesa, eta haukien bertze aitzineko hainitz.

§ 23

Hemendik, konsideratuko duzu nolakoak izan ziren lehenagoko Eskualdun ohoratu hek: ordea hekien ondokoek-ere eztute hekinganikkako ethorkiaz ukhatu ez hekien ohorea eta loria bathere gibelatu; zeren egungo egunean-ere kausitzen baitira hanbat presunaja handi, batzuek Eskualdun fin eta natural garbiak, eta bertzeak Eskualdunen leinu ohorezkotik eta arraza garbitik ethorkia dutenak: hala batzuek nola bertzeak bere merezimenduen bidez baitaude-

ohorez, errespetuz, eta ontasunez gaindi eginak, hala nola baitira:

Lardizabal ippizpikua.

D. In. de Idikez (*sic*).

D. Thomas de Idiakez.

D. Armendariz.

D. Fran. de Enparan.

D. Gabriel de Zuloaga.

Los General

Eskalona.

§ 24

Eta azkenean hauk guztien khoroatzeko, erranen dut, Eskual herriak izan tuela bere Erregeak: *Ad Joannem Cantabriæ Regem aufugavit: Jonius in Elogio Valentini Ducis*. Bernardinus Gomesius. lib. 8. de gestis Regis Jacobi. Ihes egin kuen Joannes Eskual-herriko Erregerengana; ordea hemendik erran nahi dana da, Errege hek Eskualdunak zirela ezen istorioen eredura Eneko, eta Semeno Nafarroako Errege izan ziren, zeinen izenek aski klarki aditzera emaiten baitarokute Ekualdun izenak direla: Eta oraino bertze alde erranen

dut, Tubal Eskualdunak hemendik aitzinago hedatu duela bere xedea, noiz-eta-ere igan baita munduko bi khoroarik, eta Erresumarik handienetara; hartarakotz frogantzak begien aitzinean tugu; zeren mundu guztiak dakien bezala egundainotik Iruñea deithu, eta deitzen baita Iruñea, zeina, egiazki baita Eskuarazko izena, eta hala hiri noble hura izatu da Eskual-herriko hiri buruzagia Zelio Augustoren arauera: *Navarræe fines ingressus ad Pompelonam Cantabrorum regni caput castra posuit*. Celius. Aug. Curio. lib. 1. de hist. sarracenicæ, et lib. 2. Sarthu zen Naffarroako eremuetan, eta setiatu zuen Iruñea Eskualdunen hiri buruzagia: eta hala lehen erran dudan bezala, hau da Tubalen lehenbiziko Gorthe hautu, eta ohoratu hura, egundainotik eta bethi eskualdun izatu dena; non hiri hartako familia zahar, eta ohorezkoenak bethi izatu baitira Eskualdun fin garbiak, eta kalitate hunetaz estimu handi egin izatu dutenak.

§ 25

Bertze-alde Doña Katalina Iruñeko alaba, Naffarroako Erregina zenaz geroztikan, ezta dudarik hura-ere

Eskualduna zela, ezen Eskual-herriko umea zer ahal dateke baizik Eskualduna? hala nola Parisko umea, Paristarra? Madrilgoa, Madriltarra? eta hala gisa hune-tan frogantza klara da, Tubal Eskualduna munduko bi khoroarik handienetara igan dela, ezen gauza jakina da, zeren munduan asko habarrots egin baitu, LUIS gure Errege handiak Erregina handirenganik ethorkia baduela, eta handikan deitzen dela: *Ludovicus XIIIJ. D. G. Francorum, et Navarræ Rex*. Franziako, eta Naffarroako Errege: zeren Henrri laugarrena Andre haren Illobasoa baitzen, eta Henrrirena LUIS gure Errege handia; manera berean Philippe kinto, LUIS handiaren Illobasoa, eta Espainiako Errege dena da leinu, eta ethorki beretikakoa: halako gisaz non baiterraket, Noek Japhet bere semeari eman zioen benedizino profeziazko hura, hemen konplitu dela: *Dilatet Deus Iap-het, & habitet in tabernaculis Sem, sitque Chanaam servus ejus*. Genes. 9 Jainkoak hedaraz dezala Japhet, eta demola hainitz eremu, eta Erresuma, bai halaber egin dezola garazia haren Eliza Sainduan bere egoitzaren egiteko, eta Xanaam biz haren muthil, eta zer-bitzari.

Profezia hau konplitu da ossoki, noiz-eta-ere Tubal Eskualduna bi Errege handi eta Elizako Semel (*sic*)

fidel, eta leial haukien Majestateari juntatu baitzaje; hargatik beraz egun arrozoin du Iruñeak handirozki loriatzeko, zeren den munduko bi Monarkha handien Ama, bai halaber Espainiako, eta Franziako Erresumen artean Erregiña bezala. Eta hala erran bezate jendaki eta nazione guztiek, Samaritarrek erran zutena: *Non propter tuam loquelam credimus: ipsi enim audivimus, et scimus.* Joan. 4. v. 4. 2.

§ 26

Hunarainokoan ekharri tudan frogantzak, athera tut, ikhusi duzun bezala Eskualdunak bere balentasanaren bidez ardietsi izatu tuen merezimenduetarik. Ordea Klaudino gizon handi hark dioenaren eredura, badirudite oraino eztirela aski: *Gaudet enim virtus testes sibi jungere musas.* Zeren balentasunak duen atseginik, eta loriarik handiena baita letrak lekhukotzat berekin juntatzea: halatan bada nahi dut erakutsi, Eskualduna letretako eginbidetan-ere eztela, harmetan baino merezimendu gutiagokoa: Marianak zernahi derran arren, mintzo delarikan Eskualdunaz gisa hunetan: *Gens enim agresti rudique ingenio; quæ*

plantarum instar translata, tamen terræ bonitate mitigatur, & montanis inaccessa locis, externi imperij jugum, vel admissit penitus nunquam, vel excussit quamprimum atque cum antiqua libertate veterem gentis atque communem Provinciæ sermonem conservatum fuisse fide non caret. lib. 1. cap. 5. Jende salbai, burugogor, eta har-airagaitzetako hau, zuhaitz eta belhar landareak bezala birlandaturik, lurraren naturaleza onarekin batean gozatzen eta ematzen da.

§ 27

Egiazki hemen Marianak aurthikitzen dio Eskualdunari, aurthik ahal zezoken harri ukhaldirik borthitzena, edo ahappaldirik gogorrena: zeren Aristotelesek dioen eredura, Gizonari hitzez egin eta eman ahal dakioken laidorik handiena baita, izpirituz labur eta eskas dela deitzea: *Vt hominis decus est ingenium, sic ingenij lumen est eloquentia*: zeren gizonaren ohorea eta noblezia (Zizeronek dioen bezala) baitago adimendu izatean, eta ongi mintzatzen jakitean, bide hunetaz gizona differentziatzen da abre mutuetarik, eta egiten

Jainkoaren iduritako zeina baita naturalezak ardiets ahal dezaken abantailik handiena.

§ 28

Zentzuz eskas direnez erraiten du Platonek, hala-koek ezin duketela ohorerik, ez eta ere fortuna egiazkorik: eta hunen arrozoina emaiten du zuhurrak. *Natus stultus est in ignominiam suam.* Prov. 17. § 21. Izpirituz eskas den burugogor erhoa bere buruaren laidogarri sorthu da; zeren hau baita bat-bederak ahal dukeen baiarik handiena, eta Gizonari erran ahal dakioken ahapaldirik itsussiena, eta erantzukirik ukigarriena: hargatik dio iskiribu sakratuak-ere: *Qui dixerit fratri suo racha, reus erit consilio, qui autem dixerit fatue, reus erit gehenæ ignis.* Math. 5. § 22. Norkere koleraz, mendekuz edo herraz erranen baitioke bere anajari buru arina, merezi du jujamendua, baina deitzen badu zoroa, hainak mereziko du sekulako sua.

§ 29

Beraz arrozoin dut eta arrozoin ere handia Maria-nari errefertatzeko eta barkhamendurekin eziagutzera emaiteko, egiazki enganatu zela.

Ordea halarikan-ere ezin sinhets dezaket, Mariana hain gizon jakinak Eskualduna Raxa deithu nahi izatu zuela, eta oraino are gutiago Fatue: lehen erran neza-ke, Eskualdunen, eta Eskual-herriko berririk jakinga-bez, eta bertzetarik entzun ahal zituzken ajerupenez-ko kontairei sobera fede emanik: aitzinatxe iragan zela. Ezen segur naiz etzela hain aitzina iraganen, baldin Eskual-herriko berri jakin izan halu, eta Eskualdu-nak ezagutu, eta oraino are gutiago baldin gogora balitzajo Aristotelesen errana: *Optima enim temperies non solum corpori, verum intelligenti homini prodest.* (Erran nahi du) tenperamendu eta sasoala eztela xoil-ki gorpputzekotzat progotxatzen baina bai oraino Gizonaren adimendutsu eragitzeko-ere.

§ 30

Baldin dastatu balu bada Marianak Eskual-herria ikhusikko zuen aski emea eta eztia dela izpiritu habi-len, eta adimendu haltoen emaiteko: ezen ezta bero-

egia, hala nola baita eguberdiko partea, ezeta-ere hain hotza, nola Nortea: hargatik erran zuen Galenok-ere, Nortearen azpian egoitza dutenak adimenduz eskas direla: baina northearen, eta Egerdiaren artean direnak, hagitz direla prudentak, eta izpiritutsuak zorthe hunetako da Eskual-herria, zeren Nortearen, eta Egerdiaren artean baitago jarria, eta halatan erran behar da izpiritu, eta adimendu agudoen emaiteko dela lekhu ona, eta bebarbezalakoa, eta baldinetariak baldin baliz oraino nihor hain burugogorrik egia hune-taz dudatzen luenik, hainaren sinhetsgogortasunaren bentzutzeko, ekharrikko diotzat lekhuko herri hautako arbola ferde fruitutsu eta hagitz ederrak, ithurri gozo garbiak, itsassoko, eta ur eztietaiko arrain ozteak, hegastina, eta ihizi arinak, eta abre mutu tropelak; zeinek aski klarki, nik erran dudana egia dela erakus-ten baitute.

§ 31

Eskual-herriaz mintzatu eta ondoan, zer erranen dut bada orai, Eskualdunetz? baizik bere sort-herriaren naturaleza, ela trenpu berekoak direla, eta hargatik

direla hain kolore, eta iduri ederretakoak, habilak eta gorpputz thailu onetakoak: ezen eztira hain iharrak, eta meheak, nola egerdi-aldekoak, ezeta-ere hain haragitsuak, nola northeikkoak; hargatik ordea dira zientzietakotzat ere hain gai onak, ezen badio Hipokratasek: *Conducit etiam ad sapientiam, vt minime carnosu sint, nam ad carnis bonam habitudinem ardoris inflammationem fieri necesse est.* Ez haragitsu izaitea on dela jakintsun izaitzeo; Eta oraino bertze-alde gauza huni berari dagokala dio Hipokrates Autor berak: *Si ignis, et aqua in corpore temperamentum acceperint, fit anima sapientissima, et memoria valentissime prædita, si vero ignis superetur ab aqua fit tarda:* Erran nahi du, adimendu eder baten izateko, eztela halakorik, nola gorpputz tenperatua, edo trenpu onetakoak, ezen hotza baldin garai bada, adimendua pisu, dorppe, eta gogor izanen baita. Arrozoinamendu hunen eredura ezin erran diteke beraz Eskualduna burugogor eta har-aira gaitzetakoa dela, baina bai gai ona, eta Eskoletakotzat behar bezalakoa; egia hau Exenpluz hala erakutsi izatu dute Eskual-herritik herri arrotzatarat ilkhi diren bakotxetarik hainitzek, hala nola D. Navarro Baztan Aspilkoeta Semeak; Aita Elizalde Jesusen Konpainiako Jesuistak eta halaber

Etxelarko semeak: Aita Jeronimo Exenike Urdakubiko konbentukoak, eta Erratzuko semea.

§ 32

Horra beraz Eskuarak eta Eskualdunek kalitate ederra franko, non hainitz bertzerik gehiagoren kausitzea, gaitz bailizateke Saindutasunaz kanpoan. Ordea hortaz bezanbatean ere, nahi nuke iakin othe den munduan herririk, edo probintziarik hain fermuki on eduki duenik Saindutasuneko bidea (zeina baita *Jesu Christo* gure Jaunaren lege Katholika Saindua) nola izatu baita Eskual-herria? edo dela egundaino nihork aditu othe du ukhorik egin dioela fede saindu huni? edo gibella (*sic*) eman dioela Xristoren bikarioari? menturetan Eskual-herrian izan da den herririk xumerenik on eduki eztuenik, eta fede katolikaren amoreagatik odola azken xortarainokoan gogotik, eta bihotz onez issuri etzakenik? Jainkoari beraz eskerrak emaitako diotzagu: zeren begiratu baitgaitu eresia eta seta gaixto guztietarik, hargatik egundaino ezta aditu, ez iskiribuetan kausitu: Mahometek, Kalbinok, ez Lutherok, eta ez nihork bertzek-ere kreditik aski izan

dutela Eskual-herrian ostatatzeko: aitzitik bethi behatu diote Eskual-herriari hekien kontrako gaztelu hagitz gogor, eta borthitzari bezala: Eskualdunekin eztute nahi izatu hantazinorik, ez egitekorik; zeren ezaguturik hekien fermutasuna, baitzeakiten progotxurik, ez irabazirik etzuketela, salbatzaillearen erranaren arauera: *Et portæ inferi non prævalebunt adversus eam.* Math. 16. § 18.

Hargatik bada Eskual-herria bethi izatu da xahu, eta garbi, orai-ere da, eta Jaunaren garaziarekin batean aitzinarat-ere bai izanen: halako gisaz non Kalbinok, Lutherok, Mahometek eta Moistarrek erran baitezakete, Horaziok erran zuena: *Indoctus cantaber ferre juga nostra.* Hergaitz, eta moldegaitz ediren dutela Eskualduna bere seten uztarriaren azpian hezteko: egiazki eztute kausitu, ez eta-ere kausituko lurraren gainean jendakirik hekien alderat hain higitza, eta nakhaizdura handia duenik, eta gogotikkago zainetako odola hekien kontra issur lezakenik, nola baita Eskualduna; non arzoinekin erran baititeke hau dela Noeren profeziazko benedizinoaren effetua, eta ondorea: *Dilatet Deus laphet, et habitet in tabernaculis Sem.* Gen. 9. v. 27.

§ 33

Oraino bertze alde Jainkoak-ere Deabruaren mandari, eta Eskolen madarikatu hekin kontra, Eskualherritik hautatu, eta athera tu millaka hanbat presunaja bertutetsu eta lege sainduaren kridari, eta sostengari: Ignazio Loiolakoaren eta Franzisko Xabierko bi Saindu haukien presunetan: bata Jesusen konpainiaren fundatzailea eta bertzea Indietako Apostolua, eta Naffarroako Patroina: Hauk dira bi eskualdun, bi izar argi, eta bi Aingiru zerutik igorriak *Jesu Christoren* lege sainduaren hedarazteko, eta heresien iraungitze-ko.

§ 34

Ordea nola ni sarthuko naiz itsas hondargabe hunetan? eta ezin athera naiteken egitekoan? Saindu dohatsu haukien laudorioen aippamenean? berak dira bere buruz asko gora mintzo: berak dira bere baithan asko klar, eta ozen. Hobedut beraz, utz detzadan, hutsik eztagidan; Elizako Dotor, eta Saindu handi hark-ere badirudi gauza bera burutara emanen daro-

tala Nepoziano appezaren tonbaren gaineko iskiribua: *Magnas materias parva ingenia sustinere non possunt, et cum eas tractare nituntur, in medio itinere oneris depressa magnitudine cadunt, & quo major res est, quam explicandam suscipiunt, eo magis obruuntur, eo quod verbis rerum magnitudinem æquare non possunt.* Izpiritu xumek, eta flakoek ezin sostenga, eta soporta detzakete egiteko, eta ekhai handiak, zeren hei ekhiten zaittenean, karga garajarekin, edo kargaren pissutasunarekin bidearen erdian erortzen baitira: eta zenbatenaz handiagoa baitateke explikatzeke, eta adiarazteko hartzen duten gauza, hanbatenaz kausitzen dira penatuagoak, eta egitekoetan nahasiagoak, zeren gauzen handitasuna hitzez ezin neurt eta nibe-la baitezakete.

Baldin hau badio hain bokkantza eta Saindutasun handitako Dotor hunek appez baten laudorioez mintzatzekoan, zer erranen dut bada nik, zeinak hartu baitut Eskualdunei dagozten materietarik loriosena, eta miragarriena? zein izpiritu, zein bokkantza, zein indar liratzekete aski hain presunaja sainduetz, eta noblez mintzatzeko? zeinen Saindotasunak xitzen eta iragaiten baititu gizonen izpirituak: aithortzen dut

egiazki eta garbiki, ni enaizela gai hain eginbide handieri ekhiteko.

§ 34

Ordea halarikan-ere orai parada hunetan ene zentzu appurraren eredura betaz ez mintzatzea iduritzen zait lizatekela ezagutza gabeko markka, zeren zordun bainaiz hekien alderat, hekien semeen eskoletan Musatik ergorainokoa ene gaztetasunean errezibititudan eskola, eta hazkuntza onen kariaz: halatan beraz dut obligazino, ene antze appurraren eredura ene eginbidearen parte baten bedere satifatzeko, edo beren baratzeko arbolaren fruitua, edo berenganik errezibiturikkako loretarik flokka bat bederen ofrendatzeko, esperantzarekin zernahi eskasia, huts, eta falta ene aldetik izan dadin, hek guztiak haukien karitate handiak estaliko tuela.

§ 35

Itzultzen naizelarikan bada lehenbiziko hartu nuen abiadurara, zeinetan erran bainuen; Bi Saindu dohatsu hauk direla bi Eskualdun, Elizako bi izar argi, eta bi Aingiru; Diot bada orai-ere gauza bera; zeren hauk baitira bi izar handi munduaren bazter zabaletara berthutearen issuriak, eta arraioak naharoki hedatzen tuztenak, ezen iskiribu Sainduak dio: *Fecit duo luminaria magna, vt vnum præesset diei et alterum nocti.* Jainkoak kreatu zituela bi izar handi, bata egunazkoztat, eta bertzea gabazkotz: ordea hautarik bakotxak egunaz, eta gabaz argitzen, eta distiratzen du: eta erran diteke beraz Saindu dohatsu hautaz: *Fecit duo luminaria magna:* Gure Jainko Jaunak athera tuela Eskual-herriko bi familia prestu, eta ohorezkoetarik bi izar argi iguzkiak, eta ilhargiak baino gehiago distiratzen dutenak, hala zeruan, nola lurrean, hala gabaz, nola egunaz, iguzki ilkhitzetik, iguzki sartzeraino, eta iguzki sartzetik iguzki ilkhitzerainokoa: halako gisaz non, Deuteronimoarekin (*sic*) batean erranen baitut: *Estis hodie sicut stellæ cæli;* Deuter. cap. 1. Zuek kareta egun zeruko izarrek bezala, munduko bazter urrunetara Xristoren lege Sainduaren distiadura, eta arraioen issuriak naharoki hedatzen tutzuenak.

§ 36

Eta nola batzuetan iskiribu sainduak Aingiruak deitzen ohi baititu izarrak, arrosoinekin bi Saindu izar eder hauk ere deit ditezke Aingiruak, Ambrosio Sainduak dioen eredura: *Quia non solum Episcopus ad tuendum gregem Dominus ordinavit, sed etiam Angelos destinavit.* lib. 2. cap. 2. Jainkoak ez ditu xoilki Ippizpikuak eman Elizaren mantentzeko, eta sostengatzeko, bainabai Aingiruak-ere; eta hala arrosain hunen eredura, hauk dira bi izar eta bi Aingiru Eliza Katholikaren hedaratzailleak, eta sostengariak: *Angeli, qui Regnis, et Nationibus præsidebant. Glos. interlinealis.* Munduko Erresuma, eta jendaki guztien artean Xristoren lege Sainduaren hedarazteko aitzindaritzat zebiltzan Aingiruak: eta oraino bertze alde hautaz erran diteke Zaxariak dioena: *Isti sunt, quos missit Dominus vt perambulent terram.* Zachar. 1. num. 10. Hauk dira Jaunak igorriak munduaren bazter zabaletan lege sainduaren kridatzeko, eta finkatzeko, eta hala hauk bere denboran hanbat ontasun Elizarat garrajatu dute, eta oraino egungo egunean-ere norik eztaiki gauza bera egiten dutela? bere ondoko seme berthu-

tetsuen bidez? zeinek bihotz gori, eta karitate khartsu batekin Jainkoaren ohoretan emaiten baitituzte bere biziak asko orduz ikhusi izan den bezala: eta oraino egungo egunean-ere ikhusten den eredura; eta hala nor da munduan gure hertar (*sic*) Saindu dohatsu haukien alderat alde, edo moldez, zordun eztenik? haukien seme arthaduriek eta Dabiten dorrearen sostengatzeko bethi zentinelan eta guardian atzarririk daudezinek, egiten tuzten fagore, eta enpleguak direla kausa? Batzuek haur gaztei hazkuntza, eta eskola onak emanaz: Bertzebatzuek bere exenplu onen, eta predikuen bidez bekhatoreak gonbertituz eta infidel salbai barbaroak Elizara tropelaka garrajatuz: halako gisaz, non erran baitezaket, hauk direla, Ignazio gure hertar Eskualdun, kapitain hagitz suhar, eta balent hark Higanot, Luterotar, Heretiko, Idolatra eta bertze gainerako seta madarikkatuen kontra, Elizan utzi darozkigun soldadueriak, edo Eskoadronak, Gure Eliza Ama Saindu Katolikoak lorioski kantatzen darokun bezala: *Quando Lutherus diram tot Hæresum labem per Germaniam evomit, beatissimum Cantabriæ decus Ignatius a Loyola suæ societatis instituta, et milites, præparabit, qui adversus perfidum illum Hæresiarcham, et ejus sequaces, et verbo, et scripto, vt*

faciunt, et fecerunt semper acriter, et fæliciter decertarent.

Luterok bere heresiaren hazi pozoatua Alemanian erain, eta hedatu zuenean: Ignazio Loiolakoak, Eskualherriko edergaillu dohatsuak preparatu zituen bere konpainiako ordenantzak, eta soldaduak, heresiaren Buruzagi traidore, fedegaixtotako haren eta haren banderizakoen kontra, hala hitzez, nola iskiribuz bethi, garrazki, eta dohatsuki ihardukitzeko, zeinek egin, eta egiten duten bezala. Beraz arzoinekin erran dút, Saindu dohatsu hauk direla bi izar argi, eta bi Aingiru: *Qui erudiunt, ad justitiam multos, fulgebunt quasi stellæ*; Daniel. 12. vers. 3. Dio Daniel Profetak, irakasteko eginbidean enplegatzen direnek distiratuko dutela, izarrek bezala: Gauza bera iduritzen zait erran dezakedala haukien ondoko semeez-ere; ezen non kausituko dira irakasteko eginbide hunetan hanbat presunaja, hala gazte, nola zahar, eta adin oneko enplegatzen direnik, nola baitira Jesusen Konpainian? halako maneraz non baitirudi Abraham Patriarka handi haren presunan gure Jainkoak promes eman zioela Ignazio bertze Patriarka huni: *Multiplicabo semen tuum sicut stellas*. Gen. 22. §. 30. Multzutuko, eta berretuko zituela haren umeak, zeruko izarrak

bezala. Eta nola (aitzintxeon erran dudan bezala) batzuetan eskritura sainduak Aingiruak deitzen baititu izarrak, halaber iduritzen zait hautaz-ere erran diteke-la: *Sed sunt sicut Angeli in Cælis*. Hauk direla gure Elika Katholika Sainduan, Aingiruak zeruan bezala. Halatan beraz Eskual herriak egun arrozoin du Joando-ni Paulorekin erraiteko bozkariozko hitz hek: *Gaudium meum, et Corona mea*. Ad Philipens. cap. 4. num. 1. Saindu dohatsu hauk direla Eskual-herriko bozkarioa, eta khoroa.

§ 37

Baina zer diot nik? hauk direnez geroztikan: Ez xoilki Eskual-herriko, baina oraino arrokoinekin, deit ditezke Espainiako, Franziako, Italiako, Alemaniako, Amerikako, eta antipodetako zuzi eta argi biziak?

§ 38

Ordea hemendik eztezazula pentsa, mintzo naizela Eskualdun bezala passionez, ez eta-ere lausenguz:

zeren gauza hala denak lausengurik, ez itxurapenezko bernizadurarik ez baitu onhesten: aitzitik egiteko hunen gainean batbederak baluke materiari aski, hainitz liburu handiren iskiribatzeke, lekhuko dira Europa guztia, Asia, Afrika, eta Amerika. Halatan beraz Theophilotek erran zuena nik-ere Eskual herriarekin erraiten dudalarikan, akhabatzen dut perpaus hau. *Ob eam causam lætor quod sitis corona mihi, et corona glorificationis, hoc est splendidæ gloriæ.* Theophilat. in. 1. ad Thesal. cap. 2. Atsegin eta plazer dut Saindu dohatsuak, zeren zuek zareten bezalakoak izanez zareten Eskual herriko khoroa, eta loria: *Gaudium meum de quorum fide, et opere gaudeo, et corona mea in futuro, idest per quos etiam in præsentia, et in futuro coronabor.* Eta hala nola orai presenteon bozten, alegeratzen fagoratzen eta ohoratzen baitgaituzue, esperantza dugu gisa berean gero bizitze hunen ondoan-ere, zuen bitartekotasunez, zeruan khoratuak izanen garela: Jainkoak hala nahi duela.

ESKUARA BERTZE HITZKUNZETARIK ETHORKIRIK-GABEKOA DA

§ 1

Hala-nola egiazko philosophian materia, eta forma baitira gorpputzaren lehen hatsapenak, eta bere muetan izaite ossoa, eta perfeta emaiten diotenak; manera berean zein nahi hitzkuntzaren lehen hatsapenak dira hitzak, eta gramatika.

Hitzak zerbitzatzen dira materiatzat, eta Gramatika formatzat; zeinak hitzei berenez dispozizino xoilla baizik ezutenei emaiten baitiote izaite ossoa, eta perfeta, non haukien bidez hitzkuntza bat bertzeaganik diferent, edo bata bertzearen iduritako egiten baitira: Eta zenbatenaz hitzkuntzen hatsapenak baitirateke elkarren iduritakoagoak, hanbatenaz elkarren artean hitzkuntzek-ere dukete partalertasun gehiago, hala nola Italianoak, Franzesak, Gaztelaniak, edo erdarak elkarren artean baitute, bai halaber Latinarekin-ere nahastakatzen dira, zeren hunen ganik bai-

tute bere ethorkia, eta hala haukien artean batetik bertzera diferentzia guti da, eta halatan dira hain elkharren iduritako.

§ 2

Ordea zenbatenaz-ere, zein nahi den hitzkuntzak bertzetanik baituke partalertasun gutiago, eta baita-teke urrunduagoa eta hastanduagua, hanbatenaz hatsapenak-ere dirateke diferentago, eta urrunago, ela gisa hunetan batak bertzeaganik ezin duke ethorkirik: *Nullius rei causa remota, reperiri origo potest.* Cic. de Vniv.

§ 3

Hala dira bada gure Eskuaren lehen hatsapenak bertze hitzkuntzenetarik, hagitz diferentak: hala hitzetan, nola Gramatikan, hain dira diferent Hebreotik, Punikatik, Siriakatik, Grekotik, Arabigotik, Godoenetik, Alemanetik, hala-nola baita Hebreoa Latinetik, Aita Joseph Moretek dioen bezala, lib. 1. cap. 5. §1. ezen

konsidera badetzagu hitzen sinifikantzak, izenen deklinazioak, berboen konjugazioak, eta propietateak kausituko tugu, hagitx direla diferentak Hebreotik, Phænikatik, Punikatik, Grækotik, eta Latinetik, bai halaber Godoenetik, Italianotik, Franzesetik eta Gaztelaniatik, zeren haukien izenak ez baitira deklinatzen, eta kasuen diferentziak egiten baitituzte emendailuen laguntzarekin batean.

§ 4

Berboen konjugazioak eta hekien ondoko kasuekiko komuntztadurak, zein diferentak diren ikhuziduzu, noiz eta-ere mintzatu baitgara Eskuararen zuhurtziaz. Beraz Eskuararen hatsapenak bertze hitzkuntzenetarik diferentak direnaz geroztikan, Eskuara bertze hitzkuntzetarik ethorkirik gabekoa da: ezen izan balu Eskuarak ethorkirik bertze zenbait hitzkuntzetarik, dudarik gabe hitzkuntza haren umea eta alaba izanen zen, eta Amak umeari bere iduritik eta propietatetarik komunikatzen, eta iratxekitzen dioen bezala, Eskuarari-ere komunikatukor eta iratxekiko ziotzan bere kalitateak, eta propietateak, guztiak

ezbaziren-ere, zenbait bederen: zeren, *Quodlibet agens intendit producere sibi simile, quantum possibile est.* zer-nahi den gauzak ahalaz bere iduritakoa nahi baitu ekharri, eman edo egin Philosophoek dioten bezala.

§ 5

Ordea berriz-ere erranen duzu, Eskuarak bertze hitzkuntzetarik errezibitu tuela zenbait hitz?

§ 6

Nahi dut hori hala den (oraino jakiteko delarikan, ala bertze hitzkuntzek Eskuaratik hartu othe tuztentz gehiago) halarikan-ere gainerako hitzak, izenen deklinazioak, eta berboen konjugazioak, eta mintzatze-ko manerak, Eskuararenak dira, eta hauk hunela direnaz geroztikan, ezin erran diteke bertzetarik duela bere ethorkia; zeren hautan baitago hitzkuntzaren gora behera guztia: zenbait hitz arrotzen errezibitzea ezta aski hitzkuntzari ethorkiaren emaiteko, ez eta-

ere izaitearen ganbiarazteko: Gauza bera gerthatzen da bertze hitzkuntzetan ere: ezen Erromarrek Latinean errezibitu zituztelarikan hitz arrotzak, guztiarekin-ere etzioten eman ethorki berri bat, ez-eta-ere ganbiatu bere izaitetik; aitzitik badirudi handik Latinak tuela hanbat izen diferent gauka batentzat, zeren hartu baititu jendaki diferentetarik izen diferentak, eta moldatu bere Gramatikkako erregelen eredura. Ordea halere nola, gisa hunetako hitzak appurrak baitziren bertze Latinezkoen aldean, etziren aski izan haren iraungitzeko, ez eta-ere ethorkiaren emaiteko.

§ 7

Diot berriz-ere, eztudala erran nahi, Eskuaran ezlitezkeela kausi zenbait hitz arrotz: ordea ezta mireste-ko, zeren Eskual-herrian eztiren hainitz gauza kausitzen baitira bertze hainitz lekhutan, edo dela zeren lekhu hetako lurrak ekhartzen, eta emaiten baititu: edo zerenetariak herri hetan berriroki izan baitira asmatuak: eta hala Eskualdunek gauka hek bere ize-nez deitzekotzat, baieta-ezbada izendatu beharzituzten zein-ere lenguaietan edo hitzkuntzetan lehenbizi-

rik izenak entzun baitzituzten, eta hekien eredura, edo bertzela berek asmaturik behar zerozten ifeini izen berriak. Ordea hau da baieta-ezbadako premia bat, zeinetan Eskuara ezbaita obligatua bere baitharik halako gauzei izenen emaitera, legeak irakasten darokun bezala: *Necessitas legi non subjacet. L. vt gradatim. 9. 1. D. de muner. et honor L. non solum. §. fin. D. de excusat. tutor. 1. pro tyronib. Cod. de privileg.* Erromarrei-ere gauza bera gerthatzen zitzajen, zeren hainitz gauza kausitzen baitzuten herri hautan, Italian etzenik, eta hargatik ziren obligatuak Eskuaratik izenen hartzera, edo berriroki asmaturik ezartzera.

Bada gisa berean Eskualdunak-ere kausitzen tuesdayean Eskual-herrian eztiren gauzak, non-ere kausituko baitituke, eta han, obligatua dateke hango izenen hartzera, eta hek Eskuararen erregelen arauera moldaturik, hetaz baliatzera: ordea hargatikan ezin erran diteke gisa hunetako hitzak aski direla hitzkuntzari ethorkiaren, eta izaitearen emaiteko zeren lehenbiziko hatsapenak gelditzen baitira bere izaite ossoan, zeinek egiten baitute hitzkuntzaren izaitea, eta gora behera guztia:

Eskuarak bere mintzatzeko manerretarik-ere ezin erran diteke bertze hitzkuntzetarik ethorkirik baduela: ezen gauza segura da, zenbatenaz-ere hitzkuntzak elkharren artean baitira diferentago, hanbatenaz hekien mintzatzeko manerak-ere direla elkharren iduri gutiagokoak, hau da gauza bat Agustin Sainduak erraiten darokuna: *Habet enim omnis lingua sua quædam propria genera locutionum, quæ cum in aliam linguam transferuntur videntur absurda*. D. Aug. de vera relig. cap. 50. Zein nahi hitzkuntzak baitu bere mintzatzeko manera diferentak; zeinek estrainio baitirudite, bertze hitzkuntza batetara ganbiatzen direnean Eta hala nork-ere nahiko baituke hitzkuntza batetik bertzera zenbait gauza hitzez hitz ganbiatu, hainak jakiteko du, manera hartan eginen tuela milla huts, eta falta, eta hunen arrozoina Jeronimo Sainduak emaiten du: *Difficile est, et arduum, vt quæ in alia lingua bene dicta sunt, eundem decorem in translatione conservent, perdunt gratiam, pleraque si quasi invita, et recusantia violentius transferantur*. Tom. 2. Epistol. 101. de optimo genere interpretandi.

Gaitz da, hitzkuntza batean ederki erranikkako gauzek, bertze batera ganbiatzen direnean, iduk eta konserba dezaten edertasun bera, galtzen dute bere garazia, zeren bortxaz bezala baithoazi; eta hitzez hitz ez baitute zentzu ona egiten, hitzkuntzen mintzatzeko manera diferentak direla kausa; non Aita Saindu Nikolao izen hunetako lehenbizikoak iskiribatzen dioelarikan Migel Enperadoreari erraiten baitio: Hargatik direla hanbat interpretazinozko liburu ilhuntasunez betheak, eta hitzkuntza moldegaitzetakoak, eta hala gauka hunen gainean Agustin Sainduak emaiten zenbait exenplu (lib. 2. de Doktrina Xrist.) irakasten tuelarikan ongi interpretatzeko traza, eta manera.

Hargatik bada interpretak behar dio behatu perpausaren sentsuari, ezen bertzela hitzkuntza batean ongi, eta ederki erranikkako gauka, balizateke bertze batean astrugaizki eta moldegaizki errana; eta hori heldu da, zeren, lehen erran dudan bekala, hitzkuntzek baitituzte kuinek bere mintzatzeko manera diferentak; eta arrokoin hau dela kausa hekien senttua; eta propietateak eztira elkharrekin ongi komuntztatzen hitzez hitz egiten den ganbiaduran: non arrozoin bera dela kausa erranen baitu Jeronimo Sainduak ere: *Versionem omnem in qua originalis textus exprimitur*

sensus, esse optimam, esto alijs verbis exprimatur. Nec verbo reddere curabit fidus interpret (ait ille) sed sententias, et sensus transferre studebit. D. Hieronym. tom. 2. de optimo genere interpretandi. Epist. 101. cap. 2. Eztira bethi eskritura Sainduko, eta Dotorren erranak hitzez hitz hitzkuntza batetik bertzera itzuli behar, hitz diferentekin badere sentzu onaren kausitzera entsejatu behar da, eta huraxe date interpretazino, edo ganbiadura ona.

§ 9

Oraino Eskuarak badu bertze diferentzia molde bat, bertze hitzkuntzek eztutena (Oihenarto gure Eskualdunak zer nahi erran dezan arren, lib. 1. cap. XI p. 35), zeren izen gehienei emaiten baitiote akhabantza A letra guztietarik lehenbizikoa, naturalena, eta gozoena; Gizonak ere lehenbizirik hitzez moldatzen duena; ezen ikhusten dugu, nola haur enozentak hitzen moldatzen hasten direnean, lehenbizirik hasten direla erraiten A, A, A, zeina bertze letren laguntzarik gabe hain eztiki pronunziatzen, eta deklaritzen baita: non mutuek ere hunen bidez, eta kheinuekin batean

emaiten baitarozkigute aditzera asko gauza, zeinak hainitz hitzez pena baitkenduke adiarazteko. Hargatik A da letra guztietarik hain misteriotsua, Hebreoek, deitzen dute *Aleph*: Grekoek *Alpha*: Arabiarrek *Aliph*: Feniziarrek *Alios*: Indiarrek *Alephu*: letretarik misterio atheratzen dutenek diote: *Aleph* Hebreoek deitzen dutenak, erran nahi duela Doctrina, bidea, edo dohatsutasuna, eta hirur gauza hautarik atheratzen dutelarik pentsamendu bat diote: *Doctrina legis est via ad beatitudinem æternam*: Eta Grekoen *Alphac* erran nahi du, hastea: *Ego sum alpha, et omega; principium, et finis*. Apocalip. cap. ultim. Ni naiz hastea, eta akhahantza: Egiptoarrek Kanopo bere Jainko faltsoari eskuan ezartzen zioten A, haren Jinkotasunaren seinaleztat, hala diote hainitz Autorek, eta bereziki Aita Joseph Singineok, Jeronimo Sainduaren bizitzean: Lib l. fol. 16. Beraz arrosin haukien eredura erran behar da, Eskuara hitzen akhabatzetan-ere abantailatua dela, A denaz geroztikan letra guztien artean hautuena, eta abantailatuena, zeinaz mutuak, eta haur enozent mintzaten eztakitenak baliatzen ohi baitira: eta nola ni-ere halatsu bainaiz ene obra hunetan, hargatik erranen dut hiruretan A Jeremia Profetarekin batean A, A, A. *Domine Deus ecce nescio loqui, quia puer ego*

sum. Jerem. I. § 6. Zeinek erran nahi baitute Hirur presuna Aita eta Semea, eta Spiritu Saindua, eta egiazko Jainko bat: halatan bada othoizten dut ene Jainko hirur presunetakoa, arren demadan garazia (baldin konbentzi bada) travaillu hunen kontinuatzeko, eta haren loria Saindukotz, eta bat-bederaren progotxukotzat akhabatzeko.

HIRUR GARREN GALDEA ZENBAT GISETARAKOA DENTZ ESKUARA: ETA ESKUALDUN MINTZAIRA DIFERENTA NONDIK HELDU DENTZ (*sic*)

§ 1

Egun Eskualdun deitzen diren herriak, eta Eskuaraz mintzo direnak dira xoilki Naffarroa garaja parterik gehiena; Naffarroa beheera; Zuberoa; Laburdi (*sic*), Ippuzkoa; Bizkaia; eta Alaba herria; Herri hautan dago orai xoilki Eskuara kokkatua, eta erretiratua.

§ 2

Ordea hautan-ere elkharren artean hain diferentki mintzo gara, non Strabonek-ere erran baitu: *Vtuntur, et reliqui Hispani Grammatica non vnus omnes gene-*

ris quippe ne eodem quidem sermone. lib. 3. initio. Zeren herri bateko Eskuarak baitirudi diferent dela bertzekotik, eta egiazki badirudigu herritik herrira diferentki mintzo garela.

§ 3

Diferentzia molde hau heldu da, zeren batzuek mintzo baitira hitza luzatuz: Bertzeek laburtuz: Bertze batzuek mehe, edo hitza mehatuz; eta finean bertze batzuek mintzoa lodiegi-eginez; orai bada jakin behar dena da, mintzaira hautarik zein dentz Eskuararena, eta bide huntaz agertuko da nondik heldu dentz Eskualdunen arteko mintzaira differenta.

§ 4

Ioseph Eskalijerok dio: *Hispani eam regionem in qua dialectus locum habet, generali nomine vas-cuença vocant; Nihil barbari aut stridoris, aut anhelitus habet, lenissima est, et suavissima et ante tempora Romanorum illis finibus in vsu erat. Tract. de linguis*

Europæorum. Espainolek hitzkuntza hau darabilaten lekhuetan deitzen dute baskuenza (erran nahi baitu Eskuara) eztu barbarotasunik, ez hortz karraskarik, ez eta ere zintzurrezkorik, edo ahogangazkorik. Da hagitz emea eta ezta, eta dudarik gabe hagitz zaharra, eta Erromarrak ethor zitezken baino lehen, lekhu hetan usaian zebilana. Halatan beraz Eskuarazko mintzairak eztu behar izan luzegi, zeren hitz luzegiak fastikkatzen, eta penatzen baitu entzuten dagoena, bai halaber minberatzen eta zaurtzen dio beharria, denbora-ere gehiago behar du perpausaren kontatzeko, eta nola denbora baita gauza guztien artean estimatuena: hargatik lizate mengoarik gabe gauza preziatu bat gaizki enplegatzea.

§ 5

Laburregi mintzatzeaz ere huts egiten da, zeren halako mintzaira baita eskasa, eta eskergabea: *Nam, ut profundi & solide Tertullianus. lib. de præscriptionibus, cap. 28 docet quod apud multos unum invenitur, non est erratum, sed traditum.*

§ 6

Mehegi mintzatzea-ere ezta Eskuararena, zeren hala mintzo direnak mintzo baitira mihiaren puntaz, eta ezpainak bilduz; ustez ezen franzesezko mintzairan bezala eginez, ederkiago mintzo direla Eskuaraz; baina huntan enganatzen dira, zeren Eskuarak galdegiten baitu naturalki, eta libreki mintzatzea, ezen Eskuara, eta Eskualdunak bethi izan dira libertatearen maitatzailleak, eta bilhatzailleak: eta hala hunelakoez erran diteke eskritura Sainduak dioena: *Qui vehementer emungit, elicit sanguinem.* Prov. 30. § 33. Sobera edoskitzen duenak, esnea edoski behar bidean, odola edoskitzen, eta iresten duela. Dio oraino Bertze-alde: *Noli esse justus multum.* Eccle. 7. § 17. etzaren hain hertsia, eta kokkart, eta handik eztakizula gertha Jeronimo Sainduak aingiraz erraiten duena: *Vt si velis anguillam, aut murenulam strictis tenere manibus, quanto fortius presseris, tanto citius elabitur.* S. Hieronym. in prolog. lob. ex hebræo in Latinum per eum versum. Zenbatenaz ere aingira eskuetan gehiago hertstuko, eta juntatuko baituzu, hanbatenaz lasterra-

go joanen eta eskapatuko zaitzu, eta handik zure arrantza galdu dukezu.

§ 7

Mintzaira lodiegia-ere ezta ongi heldu Eskuararekin, hala nola I eta X lodiki erraitea: eta baldin eskualdun batzuek hala mintzo badira hori heldu da, zeren erdarak edo gaztelaniak, mintzaira molde hau hartu baitu Arabiatik, eta halaber lehen erran behar da, halako Eskuara ere erdaratik kutsatua dela, ezen badio Aita Joseph Moretek. p. 105. I Eskuaran erran behar dela lanoki, eta arintki latinean, eta herri batzuetan ussatzen dugun bezala; zeren Eskuarak egundaino ez baitu izan gonbersarik, ez hantazinorik Arabiarrekin, ez Juduekin: Beraz Eskuararen mintzaira behar da izan ez luzegia, ez laburregia, ez mehegia, ez lodiegia, baizik naturalki, eta lanoki batere appaindurarik, eta bernizadurarik gabe, zeren hau baita Eskuararen propietatea, eta mintzaira arrotzaren eraketzea hagitz baita estrainio, Agustin Sainduak diotenaren eredura. *Habet enim omnis lingua sua quædam propria genera loquutionum, quæ cum in aliam*

linguam transferuntur, videntur absurda. De vera relig. cap. 50. Hargatik bada guk jeurea behar dugu segitu, eta bertzerenak utzi, Zizeronek erraiten darokun bezala: *Quare cum sit certa vox Romani generis, urbisque propria, in qua nihil animaduerti possit, nihil sonare, aut alere peregrinum, hanc sequamur, neque solum rusticam asperitatem, sed etiam peregrinam insolentiam fugere discamus.* Cic. 3 de orat.

§ 8

Ordea diferentzia suerte hau ezta egungoa ez eta-ere xoilki Eskual-herrikoa, baina bai hainitz lekhanan usatu izan dena, eta orai-ere usatzen dena; Jeronimo Sainduak mintzo delarikan Jondoni Betriz (*sic*), dio: ezagutu zutela Gallilearra zela, mintzo zelarikan Judeako hitzkuntzaz (zeina baitzen Siriako orduan Judean zebilana). *Vere tu ex illis es, nam et loquela tua manifestum te facit.* Matth. 26. § 73. Guztiak ziren hebreoak, eta hitzkuntza berekoak, hala akusatzailleak, nola akusatua: ordea nola herriko mintzaira diferentia baitzuten (orai guk bezala) handikan ezagutu zuten, Gallilearra zela; halaber Zizeronek-ere min-

tzairan, edo mintzatzeko manera xoillean ezagutzen zituen kopia, edo bertsu Latinezkoak, zein ziren Erromarrenak, eta zein jende arrotzenak, halako gisaz, non Erromarrek gutiago jakinik-ere, bere mintzairaren manera emeaz, eta eziaz garaitzen baitzituzten jende arrotz gehiago zeakitenak. Gisa berean erran diteke beraz, Eskualdun naturalki, eta lanoki mintzo direnek, gutiago jakinik-ere, abantail bera eramaiten diotela bertze Eskualdun luzeki-egi, edo laburki-egi, mehegi edo lodiegi mintzo direnei. Halarikan-ere diferentzia molde hunetaz iduritzen zait erran ditekela Agustin Elizako Dotor Saindu handi hark urrezaz erran zuena: *In ipsa autem varietate quid est? Ipsa sapientia, non diversum aurum, sed varietas de auro.* S. Agust. in Psal. 44. urretik egiten dira hainitz joja eder; ordea batzuek bertzeak baino ederragoak, halarikan-ere guztiak dira urrezkoak, eta urretik eginak.

§ 9

Bada oraino Eskualdunen artean bertze mintzaira diferent bat, zeinetan, mintzo baitira herri batzuetan hitzei letrak berretuz, eta berriz bertze batzuetan

letrak ganbiatuz: hala nola Andreia, Buruia, Diruia, ethorri daia? mintzatzen deut, &. Egiazki badirudite hunela mintzo diren Eskualdun hauk bere mintzaira, hartu dutela lehenagoko Latindun hetarik, zeinak Kintilianok dioen arauera, lib. 1. c. 7. mintzo baitziren hitzei letrak berretuz, hala-nola *Puerei, vbei, vtei, quei*: erran behar bidean: *Pueri, vbi, vti, qui*: Eta hala hauk dira letra soberazko hutsak. Bertzebatzuek mintzo ziren letrak ganbiatuz, Ponpeio Festok dioen bezala, erran behar bidean *Aulas, aurum, auriculus, cauda, Aurichalcum*; erraiten ohi zuten, *ollas, orum, oriculus, coda, orichalcum*. Ordea mintzatze molde hau etzen errezibitua jende jakintsun, eta hartako zirenen artean.

§ 10

P. Axular gure Errotor famatuak ederki deklaritzen daroku bertze diferentzia suerte bat. p. 17. erraiten darokularik gisa hunetan. *Badaquit halaber ecin heda naitequeyela euscarazco mintçatce molde guztietara. Ceren anhitz moldez, eta diferentqui mintçatcen baitira Euscal-herrian. Naffarroa garayan, Naffa-*

rroa beherean, Çuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Ippuzcoan, Alaba-herrian, eta bertce hainitz lekhotan. Batac erraiten du behatcea, eta bertceac so eguitea; Batac hassarretcea, eta bertceac samurtcea: Batac ilkhitcea, Bertceac jalguitea: Batac athea, Bertceac bortha: Batac erraitea, bertceac essaitea; Batac iracurtcea, bertceac leitcea: Batac liscartcea, Bertceac ahacartcea: Batac hauçoa, bertceac barridea: Batac Aitonon-Semea, Bertceac Çalduna: Finean bat-bederac bere guisara, antcera, eta moldera: Eztituzte Escualdun guztiec legueac, eta azturac bat, eta ez escuarazco mintçatcea-ere, ceren Erresumac baitituzte different.

§ 11

Hemen gure Axular famatuak differentzia hau erakustearekin batean, ederki, eta sothilki emaiten darokut aditzera, hitzen arteko differentzia hunek nondik duen bere ethorkia, edo zer den hunen kausa: eta hunen gainean dio, zeren Eskualdunek Erresumak baitituzte different. Autor hunen arrozoinamenduaren eredura badirudi denborak eztuela bothererik Eskua-

raren kontra, zeren ez baitu aippamenik egitea denboraz, zeinari hanbat ganbiadura baitarraitzko.

§ 12

Ordea istorioen berri zeakienak bezala, ezagutzen zuen, Erresumen differentziak zein indar eta bothere handia duen hitzkuntzen ganbiarazteko: zeren baitzeakien, munduko hitzkuntzarik urgilluenek, eta soberbiosenek, Erresumen ganbiadurari amor emanik, hautx, eta herrauts jo zutela, halatan beraz arrosoinekin erran zezaken Eskualdunen hitzkuntzan badela zenbait differentzia; zeren Erresumak different baitituzte, ezta beraz zer miretsi, Eskualdunen artean izan dadin zenbait differentzia mintzatzeko maneretan; zeren herri batzuetakoek gehiago hantatzen, eta gonbertsatzen baitute Erresuma batekin: Bertze batzuek bertzearekin, eta hantazino hartarik bat-bederari lotzen kajo hitzkuntza arrotzaren kutsua, zeina ohi baita ganbiaduraren orhantza eta lebamia; non handik heldu baita emeki-emeki hitzkuntza ganbiatzera, eta azkenean ossoki iraungitzera.

Herritik urrun joan gabe exenpluak baitugu Angelun, eta Mearritzen, bi bas-herri hauk bere ethorkiz Eskualdunak direlarik, guztiarekin ere baderrakegu ja eztirela: zeren hango jendek eskuararik ezbaitakite, eta hori nondik heldu da? baizik hitzkuntza arrotzeta-ko jendekin duten hantazino egun-orozkotik? hala-nola Alaba-herriak, eta Bizkaiak Gaztelarrekin duten mugakidetasun hurbila dela kausa hartu baitituzte hainitz hitz erdaratik; Zuberoarrek bere hauzo Biarnesetarik, edo Gaskoinetarik, zeren Hippokratesek dioen bezala: *Corruptum corrumpit sibi conjunctum*. Gauza ustelduak usteltzen du berari juntaturik, eta arrimaturik dagokan gauza usteldugabea; Halarikan-ere zenbait hitz arrotz baizik lothu etzaien denboran, ezin erran diteke, eztirela Eskualdunak, eta hekien hitzkuntza eztela eskuara, baldin izenen deklinazinoak, berboen konjugazinoak, eta Eskuararen mintzatzeko propietateak e (*sic*) manerak begiratzentuzteino. Ezen erran den diflerentzia molde hau, kausitzen da zein-nahi bertze hitzkuntzetan-ere, bereziki Italianoan, Erdaran eta Franzesean, zeinek bere ethorkia dutelarikan Latinetikan, guztiarekin-ere differentsiatzen baitira elkharren artean, batak Latinetik hartu tu hitz batzuek, eta bertzeak bertze batzuek: Batak

sinifikantza batean: Bertzeak bertzean: Batak mintzatzeko manera batean, Bertzeak bertzean; Berboetarik egin zituzten izen berriak bere trazara, eta moldera: baihalaber izenak eta berretgailluak elkharrekin juntaturik, moldatu zituzten berboak: Batzuek letrak khen-duz: Bertzek berretuz: Bertze batzuek letrak aldatuz, edo ganbiatuz, eta trukkatuz: Batak labur zena, egin du luze, eta bertzeak kontrara luze zena, laburtu du; Finean hala nola hainitz bide different baitira bata bertzeaganik apartatzen eta urruntzen direnak, eta azkenean lekhu berera dohazinak, gisa berean haukien artean-ere hautxek dira bide-xigorrak, eta bidex-kak, zeinen bidez bata bertzeaganik apartatzen baitira. Eta halatan guztietan ageri da appurbat gora behera, batean gehiago, bertzean gutiago, nondik duten bere ethorkia; eta oraino hautan-ere kausitzen da, izan arren erresuma, eta hitzkuntza berekoak, diflerentzia badela herritik herrira hitzetan, eta mintzatzeko maneretan. Batzuek delikatuki: Bertzek moldegaizki: Batzuek mintzoari emaiten diote bertzetarik mintzaira diferenta: ordea hargatik hekien hitzkuntza mueta bat da, hala nola Eskuararik bat baizi ezbaita, orai segidantzan ikhustera goazin bezala.

ESKUARA GUZTIETAN BAT DA

Hitzkuntzen edo lenguaiei arteko differentzia heldu da, zeren batak bertzea ganik sinifikantzak, deklinazioak, konjugazioak eta mintzatzeko manerak baitituzte differentiak: eta zenbatenaz-ere bada hauk baitirateke differentago, hanbatenaz hitzkuntzak halaber elkarren artean izanen dirateke hastandua-goak, eta atzeagoak, eta elkarren iduri gutiagokoak; Hala nola Hebreoa, Grekoa, latina, eta Eskuara baitira mueta differentetakoak, zeren hautarik baxhotxak baititu bere hatsapenak ossoki difierentak.

Ordea halaber kontrara, Philosophoen artean erre-zibiturikkako errefin haren eredura: *contrariorum contraria est ratio*; erran behar da, zenbatenaz-ere zimen-du hauk baitirateke elkarren iduritakoagoak, hanbatenaz hitzkuntzak-ere diratezkela bere ethorkian, eta izaitean partalertasun, eta batasun, gehiago dutenak: Italianoa, Gastelania, eta Franzesa diren bezala, zeren haukien arteko izenen deklinazioek, eta berboen konjugazioek elkarri baitarontsate, eta hala haukien artean kausitzen da batassun handiago, ezen ez

Hebreoaren, Grekoaren, Latinaren, eta Eskuararen artean.

Orai bada konsidera badetzagu Eskualdunen arteko sinifikantzak, izenen deklinazioak, berboen konjugazioak, eta mintzatzeko manierak, kausituko tugu, batzuek beraktsu (*sic*) direla Eskual-herrian, zeinek egiten baitute hitzkuntzaren izaitea eta batasuna. *Vnitas est indivisio rei in se, et divisio a qualibet alia re.* Hautxe da Lojikoek batasunaz emaiten duten definizioa, zeina hagitz ongi heldu baitzaio Eskuarari: halatan beraz erran behar da: *Cantabrimus est sermo indivisus in se, et divisus a quolibet alio.* Eskuara bere baitan bat dela, eta bertze zein nahi hitzkuntzetarik berezia.

LAURGARREN GALDEA ZERTAKO DENTZ ESKUARA

Hau da Aristotelesekin zenbait gauzaz tratatzerakoan egiten duen laurgarren galdea, bai halaber nik-ere obra hunen hastean zimendutzat ezarririk segituko nuela prometaturikkakoa.

Ordea galde suerte hunek badirudi alferrikkakoa dela; zeren batbederak baitaki, hitzkuntza guztiak (Babiloniakoez kanpoan), direla gizonek bilhaturikkako imintziona batzuek, eta elkharren artean asmatu-rik, bere nahiara moldaturikkakoak, eta arrozoina- menduz ezin athera ditezkenak, eta hauk ezin ikhas ditezke eta ez jakin baizik entzunez eta izenen sinifikantzak ikhasiz; hargatik dio Aristotelesekin-ere: Sor, edo Gor sortzen dena, bai eta-ezbada mutu izanen dela; lib. 1. de interpretatione. Zeren Gizonak ezin adiaraz ahal baitetzake gogoan tuen gauzak, ez eta- ere adi ahal bertzek gogoan tuztenak, non lehenbizirik eztiren sentsuetarik iragaiten. *Nihil est in intellectu quod prius non fuerit in sensu.* Hargatik bada hizkuntza (*sic*) da lanabes bat zeinaren bidez Gizonak aditzen baititu bertzek hitzez erraiten tuzten gauzak,

bai halaber adiarazten-ere berak gogoan tuenak. V. Gomendioz. carta, pag. 1, 28 y 29.

Eginbide hunetako bereko da bada gure Eskuara ere, zeren hunen bidez adiarazten baitugu, aditzera eman nahi dugun gauza; eta bide beraz aditzen baitarokute erraiten duguna.

P. AXULAR

SARAKO ERRETORA

ESKUARAZKO AUTORETARIK

HAUTUENA ETA FAMATUENA

§ 1

Zein nezesario den egiteko guztietan aitzindari, eta gidari on baten, eta behar bezalako buruzagiaren izatea, egiaz ezta gaitz aditzera emaita; zeren bat-bederak baitaki gauza guztietan behar dela aitzindari, edo gidari on bat bide onerat gidatua, eta ongi gobernatua izaiteko, bertzela maiz, eta gehienez egitekoak makhur, eta errebulu ibiliko dirateke, hala-nola ibiltzen ohi baitira zurtz triste jabegabeen egitekoak, eta untzi Pilotu gabe galdu ordean dabiltzanak. Halatan bada gure Eskuara zurtz jabegabeko, eta hainbertze mendez mende arrokaean, itsaso, eta uhuinpean galdu ordean bezala dabilan hunentzat, nahi nuke bilhatu aitzindari, eta buruzagi on bat baxharra; errandut bat eta hura baxharra, zeren asko-orduz hainitz

aitzindari, eta buruzagiren izatea baino, hobe bailizate ossoki bathere ez izatea: *Nam confregit Dominus conquassabit capita in terra multorum*. Ps. 109. Aitzindari, eta buruzagi hainitz den lekhuan behin-ere ezta enkontru onik, aitzitik han kausitzen eta izaiten ohi dira nahastura, gudu, eta eskatima franko: handik dio iskiribu Sainduak-ere: *Omne Regnum in se divisum desolabitur*. Luc. 11. v. 17. Hargatik beraz Aitzindaria edo Buruzagia behar da izan, lehen erran dudan bezala bakharra, baina hura ona eta beharbezalakoa.

§ 2

Ordena miragarri hau kausitzen da hala gauza naturazkoetan, nola arrozoinetakoetan bai halaber izpirituzkoetan-ere, zeina Bonabentura Sainduak deitzen baitu Jainkoaren providentzia: *Voluntas Dei ratione regulata, dicitur providentia*. S. Bonavent. in opusc. tom. 1. c. 9.

§ 3

Ezen konsidera badetzagu urpean, eta itsassoaren hondar beheretan igerika dabilzan arrainak, bai halaber lurraren gainean bizi diren animalia bestiak eta airearen errejione goretan hegaldatzen diren hegastinak, hek berek erakutsiko darokute ordena hau hagitz nezessario, eta konbeni dela zein nahi-den muetetan: Ezen Isidoro Sainduak, eta Solinok erraiten dute; Perla-maxkorrek bere arteko zaharrena aitzindaritzat, eta gidaritzat hautatzen dutela: halako gisaz non tropa, eta aralde bakkotxak baitu bere aitzindaria kapitaina, eta buruzagia zeinari guztiak jarraikitzen baitzaitzko, eta baldin fortunaz aitzindari haren ganik apartatzen, eta errebelatzen badira, dohakabeki galduak gelditzen direla.

§ 4

Gisa berean dio Aristoteleseki ere, Dauphin kumeak multzuka, eta tropelaka dabilzala; Baina Pli-niok dio zahar bat behin-ere etzaiela falta gidaritzat: Baleaz-ere kontatzen da, bista faltatzen zaiola, zeren gizentasunak begiak tapatzen baitiotza, eta orduan bertze arrain batek eskutik balerama bezala gidatzen

duela: Nork itsas hondarreko arrainei eman othe diote eskola hau? *Tua autem Pater Providentia gubernat.* Sap. 14. v. 3. Aita zure providentzia miragarri eternitatekoak. Lertsunek-ere bere jornada luzean bat hartzen dute gidaritzat, Borkoriosen erranaren eredura; *In Reductorio morali.* lib. 7. c. 39. Erlek-ere hautatzen dute bere agintaria, eta Erregea, zeina handirozki errespetatzen, zerbitzatzan, eta ohoratzen baitute, hargatik Philosophoek erran zuten; *opus naturæ esse opus intelligentiæ.* Naturalezaren obra zuhurtziaren obra dela. Diot berriz-ere, nork eman deraue arrain, eta hegastinei aitzindariaren eta buruzagiaren, hautatzeko ezagutza? Basilio Sainduak emaiten du errespusta. *Nihil est omnino quod non in Dei providentiam, et curam cadat. Omnia pervigil oculus Dei intuetur: omnibus adest atque præsens est: et quod vnicuique commodum est, ac salutare suppeditat. Sæpe numero etiam in minutissimis sapientia divina, atque providentia perspicitur, sed jam tempus est, vt cum vate exclamem: quam magnificata sunt opera tua Domine! omnia in sapientia fecisti.* S. Basilius orat. 19. de providentia. Den gauzarik ttipienezan kausitzen da Jainkoaren probidentzia, eta artha, haren begia bethi dago atzarria, eta gauza guztiei dagote beha, eta bat-bede-

rari emaiten dio konbeni zaikana. Haren zuhurtzia dibinoak distirutzen du den gauzarik ttipienez. Eta hala arrozoin da, Profetarekin batean erran detzadan espantuzko hitzak; zein handiak diren Jauna zure obrak, gauza guztiak zuhurtziarekin egin tutzu.

§ 5

Ordena eder hau kausitzen denaz geroztikan gauza naturazkoetan, eta arrozoinamendurik gabekoetan, ezta beraz zer miretsi, kausi dadin gauza arrozoinazkoetan, eta izpiritualetan-ere: zeren Dionisio Sainduak dioen bezala; *Lex divinitatis est: in nullo negligere ordinem; sed per prima, media, et per medium postrema reducere*. Lib. de Hierar. Angelica. Jainkoak ezarria daduka ordena jeneral bat kreaturen gobernatzeko, lehenbizikoek goberna detzaten hurranak, eta hurranez azkenak: eta oraino hau bera frogatzen da Philosophiako arrozoin batez; *In vnoquoque rerum genere debet dari unum simpliciter tale*; zer nahiden gauzetan kausitu behar da bat lehena; hala nola Philosophian baita Aristoteles; Theolojian, Thomas Akinas Saindua, eta Eskolako Dotor Aingirua;

Mirikuntzan, Hipokrates; Legetan, Justiniano; Elizan Aita Saindua, Ippizpikutasunean Ippizpikua; Herriko Elizan, Errotora; Erresuman, Errege: Probintzian, Gobernadorea: Harmadan, jenerala; Errejimenduan, Koronella, eta konpainian, Kapitaina.

§ 6

Beraz ordena eder hunen arauera arrozoin dut nikere, Aitzindari, eta Buruzagi bat gure Eskurarentzat (*sic*) bilhatu nahi izatea? Ordea nor erranen dut dela, nik orai hemen bilhatzen dudan Aitzindaria, eta Buruzagia, baizik P. Axular gure Errotor famatua, eta ospe handitako hura? Egiazki Eskual-herrian hau da bakharra, hanbat autoren liburuetan zauntzan gauzak, arantzepetik atherarik bezala, eta Theolojiaren mami hau-tua bildurik eskuaraz ederkienik argitara eman darokuna; Halatan beraz baderraket eskuarazko Autoretarik hau dela Aitzindaria, Buruzagia, eta lehena?

§ 7

Bainan zer diot nik? aitzitik badirudi zerbait-ere moldez, eta arrosoinez gradu orai aippaturikkako hauk guztiak hunen baithan bilduak, eta juntatuak bezala kausitzen direla: Baldin Aristoteles bada munduko jenden artean hain famatua, eta ohoratua, baihalaber Philosopho haltoek bere Buruzagi, eta autor prinzipalenarentzat hanbat errespetatzen ohi dutena, zeren iskiribatu duen Philosophia bat gauza naturazkoez tratatzen duena, arrosain gehiagorekin bada Axularri zor zaizko gradu, ohore, eta buruzagitasun hauk: zeren hunen Philosophia, *De non procrastinanda pænitentia*, baita hagitz zuhurragoa, eta segurragoa, ez gauza naturazkoez, eta lurrekoez bainan bai naturalezaz goragokoez tratatzen duena: non handikan segitu baitu Dotor Aingiruaren eskola, eta eginbidea, eta denbora berean merezitu du deit dadin Eskuararen, eta Eskual-herriko Eskualdun Dotor, Aingirua bezalakoa.

§ 8

Ezta bada Hipokrates, eta Justiniano baino gradu gutiagokoa: Baldin Hipokratesek iskiribatu baitu apho-

rismo, eta sententzia gorpputzari, eta gorpputzeko gauzei dagotzatenak, Axularrek iskiribatu tu arimari, eta arimako gauzei ukhitzen zaitzten aphorismo, eta erregela sailduak.

§ 9

Eta Baldin Justiniano mintzatu bada lege zibilaz, eta mundukoaz, Axularren perpausa izan da zeruko lege saildu izpiritualaz; eta nola Aita Saildua baita Elizako Buruzagi prinzipala, eta Jondoni Betriren kadira dadukana: gisa berean Axular izan zen erroter bezala Sarako Elizako kadira iduki zuena. Eta baldin Erregek bere Erresumak, eta Erresumetako jendeak begirutzen, eta sostengatzen baitu, bai halaber manatzten eta legeak emaiten: hortaz bezanbatean-ere, erran diteke Axular izatu dela, ez lurreko Erresumen, baina bai zeruko Erresumen, eta XRISTOREN umen begirale, eta sostengari leiala, eta hekien gainean manatzeko, baita oraino lege Sailduaren deklaratzeko botherea zuena.

§ 10

Eta hala nola harmadan jenerala baita harmak gobernatzan tuena, manera berean Axular izatu da Elizako harma sailduen gobernaria, eta fidelei Satanen kontra gudura ilkhitzeko mekuen, eta manuen emaillea. Egundaino izan othe da munduko kapitain guztien artean hain balentki bere gomendioko soldaduak gidatu tuenik? eta hain fermuki on eduki duenik? non erran baitezaket xitu eta iragan duela Kapitain guztien Kapitaina Alexandro handia bera.

Baldin Zizeronek nahi izan bazuen enplegatu, bere bokkantzaz edera (*sic*) gauza bano, eta mundukoetan, hunek hobeki jakin izan zuen dohain hunen enpleguaren egiten, zeren egin baitzuen gauza katoliko, eta izpiritualetan.

§ 11

Beraz arzoinekin erran diteke, zerbait-ere moldez, ordena, eta gradu miragarri hauk guztiak Axular baithan kausitzen direla; eta halatan hau bere denboran izatu zela eta orai-ere dela, baita oraino aitzinarat-

ere izanen Eskual-herriko Buruzagi Philosophoa, Dotor, Aingirua bezalako; Hippokrates arimetako narrio, eta erhasunen sendatzeko erremedio emaillea; Justiniano zeruko lege Sainduaren kridaria; Elizako aitzindari leiala, eta Buruzagi egiazkoa: zeruko erresumen begiralle fidela; Sarako Elizako harma Sainduen gobernaria, eta jenerala; Populuaren Aita arthaduria, eta bihotz-Samurra; Alexandro handia baino kapitain kurajos eta balentagoa; Eskual herriko Zizeron bokkantzaz bethea.

§ 12

Eta nola ni partida bezala bainaiz, zeren hark bere denboran manajatu, eta bere gomendioan iduki zuen bathajo-harrian errezibitua baitut ene bathajoko ur Saindua; hargatik bada orai aippaturikkako gauzen frogantzatzat ekharriko dut AXULAR beraren obra, zeren Hugo Kardinalaren arauera, offizialek bere obretan kausituko baitute bere laudamena: *Ipsi artifices in suis operibus laudabuntur, et nunc, et in futurum.* Hug. Card. Lirak ere gauza bera dio: *Artifices laudantur ex operibus manuum suarum, quando sunt artifi-*

ciose facta. Ofizialeak bere eskuetako obra ongi eginek laudatzen tuztela; hartarakotz bada orai ezta ikhustea baizik hunek egin zuen liburu ttipi handia, bigarren Thomas a Khenpis Eskual-herrikoa, guztia sententziaz, eta zuhurtziaz bethea; dotrinan hagitz Katholikoa, eta bokkantzaz Zizeronen parekoa, zeren Autorarentzat ahal diteken frogantzarik hoberena baita obra bera. Senekak dioen bezala: *Maxima oratoris laus oratio ipsa*. Halakotz beraz, esperantza dut, hura irakurri ondoan erranen duzula Salbianok bertze liburu batez erran zuena: *Legi librum, quem trasmisisti, stylo brevem, lectione expeditum, instructione perfectum*. Salvian. in Epist. ad Eustachium. Irakurri duzula liburu bat, plama eta iskiribu gutitan hanbat arrozoin eder, eta autoritate halto, Theolojiaren mamia hitz gutiz, eta laburtzki aditzera emaiten darozkiguna; eta hala merezi duela dirudi derragun Tertulianorekin: *Exiguus in oculis patrimonium grande profertur*. Tertulian. Eremu gutitan, lur paporra xerrenda poxin batean primeza aberats bat utzi darokula egiazki, hain gutziagarria, eta zapporetsua, jende suerte guztien artean borondate onez ossoki onhetsia eta bihotz Katholiko guztiez laudatua eta hala letradunez edo estudiantuez, nola estudiantugabez

ongi errezibitua: non batzuek, eta bertzeak bethatzen, eta kontentatzen baititu Elizako Dotoretarik, eskritura saindutik, eta Theolojiaren bidez, atheratzen tuen arrozoinamendu zuzenez, eta ederrez: bai halaber berotzen den bihotzik hotzena ere? bere bokkanta samurraz, eta izpiritu khartsuaz: halako gisaz, non hunen dotrina erran baititeke dela Joandoni Paulok dioenaren eredura appaindurikkako bazka izpiritual bat; *Sermo vester semper in gratia sit sale conditus.* D. Paul. colos. 4. 6. *Ex ejus lingua melle dulcior fluxit doctrina:* Haren ahotik ilkhi zen ezti guztien gozotasuna iragaiten duen Dotrina. Hala bada, ene arrozoinamenduaren frogantzatzat eztut nahi ekharri bertze arrozoinik ez frogarik, baizik irakur dezazun Axularren obra eta irakurri eta ondoan, nahi zinituzket entzun, ea zer diozun, zeren baitakit, erranen duzula nik diodana egia dela.

§ 13

Ordea nola eskuararik eztakitenentzat hau baita froga itsu bat; hargatik bada hek adi dezaketen manerari mintzaraziko tut presunaja herriz kanpokoak, eta

arrotzak, nik orai hemen appaturikkako gauzez fede emaiten dutenak, zeinek baitiote gisa hunetan: *Hunc librum de non procrastinanda pœnitentia Authore Domino Petro de Axular, viro magni nominis in nostra cantabria, ac celebri nuper Rectore de Sara, mandato Illustrissimi Domini Domini mei Episcopi Bayonensis accurate evolvi, & in eo nihil adversum fidei pietatisque, sed recta omnia ornata, & ad bonos mores multum conducentia, iudicasse ego infra scriptus testor. Datum apud Sanctum Ioannem de Luz die quarto Decembris anno Domini millesimo sexcentesimo quadragesimo secundo.* Saluator de Dissaneche. Ene Jaun Ippizpikuaren mezuz arthoski irakurri dut liburu hau zeinak tratatzen baitu, penitentzia ez biharamunekotz utzteaz: zeinaren autora baita P. Axular gure Eskualerrian presunaja fama, eta ospe handitakoa, eta aitzintxean Sarako Errotora, eta hala nik berean ene izena iskiribaturik, fede emaiten dut, eztudala kausitu fedearen, eta debozinoaren kontrako gauzarik, aitzitik guztiak dira azkuntza, eta usantza onetara darontsatena, eta gidatzen dutenak; Donijoannen egina, Abendoaren laurean, milla sei ehun, eta berrogoi eta bi garren urthean. Salbador Dissanexe. Axular. p. 13.

§ 14

Ego infra scriptus iussu Illustrissimi, ac Reverendissimi Domini Domini mei Episcopi Bayonensis attente legi librum de pænitentia non differenda cantabrico Idiomate a Domino Petro de Axular meritissimo olim Rectore de Sara compositum, in quo omnia orthodoxæ fidei, & bonis moribus consona reperi, atque Vberem Authoris facundiam magna cum eruditione, ac singulari pietate conjuctam non semel admiratus sum. Ideo in lucem perutiliter prodire posse censeo, ac judico. Datum apud Sanctum Ioannem de Luz die 25 Decembris millesimo sexcentesimo quadragésimo secundo. Petrus Durthubie Doctor Theologus.

Nik beherean eskiribatuak, Baionako ene Jaun Ippizpikua-
ren manuz arthoski irakurri dut, Betri de Axular ber-
tzeorduz Sarako Jaun Errotor zen, merezimendutsu
hark eskuaraz moldaturikkako liburua, penitentzia
gerokotz ez uztearen gainean, zeinetan gauza guztiak
kausitu baititut fede katholikaren, eta haztura onen
eredurakoak, eta dotrinarekin eta debozinoarekin
Autorak juntaturikkako bokkantzana naharotsu miraga-
rriak behin baino gehiagotan neure baitan miretsirik,

eta espantaturik ezarri nau. Hargatik uste dut, eta juczaten dut, progotxoski ilkhi ahal ditekela argitara. DoniJoannen emana Abendoaren hogoi, eta bortzean milla sei ehun eta berrogoi, eta bigarren urthean. Piere Durthubie Dotor Theologoa.

§ 15

Oraino bertze-alde maiz ikhusten dugu, nola gure predikari batzuek ekhartzen tuzten bere predikuetan Axularren obratikkako parte batzuek; zeinez baliatzen baitira bere perpausen beztitzeko eta edergailluztatzeko: ordea eztiote mereziesten erraitea: *Hau Axular famatuac dio*. Bertze hainitz Autor arrotz mendreagori ohore hunen emaitiaz batere dudarik egiten eztutelarikan; hargatik ordea ezta zer miretsi, zeren Salbataillearen errana baita: *Nemo propheta acceptus est in patria sua*. Luc. 4. v. 24. Nihor ezta Propheta bere herrian. Ordea nahi nuke jakin, zer arzoinez eztioten emaiten zor zajoen ohore hau? ala mesprezio eta laido othe zaien haren izendatzea? ala haren obraz bere buruak beztiturik, gogoan pasatzen othe duten mun-

duaren artean gizon jakin, eta habilitzat bere buruen iragaitea?

§ 16

Lehenbizikoaz denaz bezanbatean batere arrozoinik eztute: *Si quid ab altero hauserimus, id ipsum non est Celandum*. Basil. orat. 6. de institut. Basilio handiaren erranaren eredura, obligatuak gara errezibitzen dugun gauzaren aithortzera, edo bertzela da eza-gutza gabeko markka; eta oraino bertze-alde zeren haren obra hagnosis (*sic*) probotxusa baita katolikuen egiarekin konforme izanez, nihork haren kontra arburorik ez mezipreziarik ezin egin dezaken maneran, non erranen baitut Enodo Sainduak Teodoroz erran zuena: *Nec replicationibus tuis reperiuntur contraria, nec objectionibus facilis occurrit solutio*. S. Enod. in. panag. Tedorica. Nihork eztuela erraitekorik ez errankizunik *Axularrek* egin duen obraren kontra. Eta hauk hunela direnaz geroztikan zer arrozoin da, bada ez egiteko nik diodan agur hura? Baldin Ouidiok bizi zelarikan merezitu bazuen jentilen artean koplak ergel batzuen kariak goza zezan jakintasunaren loria, eta

ohorea, berak sendagailla handirekin kontatzen duen bezala.

*Tu mihi quod rarum est, vivo sublime dedisti
Nomen: ab exequijs quod dare fama solet.
Ouid. lib. 4. tristium. egloga. 9.*

§ 17

Egun beraz arrozoin gehiagorekin katolikoen artean Axularri zor zajo hil ondoan bederen eman dezagun merezimenduen aithorra eta ohorea: *Si post fata venit gloria, non propero*. Dio Marzialek, baldin hil ondokotzat bada laudorioen loria, enaiz lehiatzen, erran nahi du, hil ondoan bederen izanen zela laudatua eta onhetsia, eta ordu artearainokoan etzuela berantesten bere laudorioa; zeren ordinariozki Gizona hil ondoan laudatzen baita. Bitartean Axularrek duela-rik hirur hogoi, eta hamabi urthe Jainkoak deithu zuela mundu huntarik, ezin erran diteke gure predikarien artean merezitu duela, Marzialek hil ondokotzat bere buruari prometatzen zioena: aitzitik lehen erran diteke ohore gehiago egiten diotela Jentil batzuei hala

nola Platoni, Aristotelesi, Zizeroni, Birjiliori, eta Ouidiori, zeinen izenak maiz eta naharo entzuten baititugu aippatzen tuztela, eta non? baizik batzuetan hark bere denboran manajatu, eta gobernatu zuen teatro Sainduan, haren beraren hezurren aitzinean.

§ 18

Ordea hau hunela ikhustea ezta ukhigarri, eta erdiragarri? ezen nor izanen da ez xoilki Sarako Elizan, baina oraino Eskual-herrian ausardiza, hunen ikhustez, eta entzuteaz beraz, Ouidiorekin batean bihotza erdiraturik erranen eztuenik?

*Tunc flevi, rupique sinus, et pectora planxi;
Et secui madidas vngue rigente genas.*

Ouid. Epist. 5.

Ezin nagoke negar egin gabe, eta ene bihotz zaurthuaren auhenak, eta dolamenak erakutsi gabe, ikhusirik, Jentilek gure predikari batzuek baino, errespetu gehiagorekin behatzen diotela ja denbora luzez zuppuan zuhirindurik, eta pipiaturik daudezin presunaja handien hezurrei:

Grandia effosis mirabitur ossa sepulchris.

Virg. lib. 1. Georg.

Baldin altxa badezazu tonba hori horren azpian dauntzan hezur handiez espantatua geldituko zara, dio Birjiliok: zuk ere bada konsidera bazeneza, Axular Eskual-herriko Esdras handi haren hezurak tonba horren azpian dauntzala, eta hortik-ere mintzo direla; agian hobekiago orhoit zindezke errespeturekin zor zajoen ohorearen emaitera. Eta bertzela egitea da, lehen erran dugun bezala, Basilio Sainduak dioenaren kontra, obratzea. *Si quid ab altero hauserimus, id ipsum non est celandum.* Basil. orat. 6. de institut. Zeren bertzeren ganik errezibitzen dugun gauzaren aithortzera obligatuak baitgara; Edo erran behar da Axularren obraz zeure burua appaindurik, eta preparaturik jenden izpirituetan jakintsuntzat iragan-arazi nahi duzula: ordea hori da korneilla hegastinaren propietatea, zeina, bere gorpputz itsussia bertzeren luma, eta plumai ederrez beztiturik, eta berregindurik, hazten eta hanpatzen baita: bada gisa berean zure eginbide suerte horrek-ere aski klarki aditzerat emaiten du, zu-ere zeure buruaren denbora berean eder-

gailluztatzen, eta lausengatzen hari zarella: ordea horren gainean erraiten du Ezexiel Prophetak: *Væ pastoribus Israel, qui pascebant semetipsos*. Ezechiel c. 34. Zori-gaitz bere buruen lausengatzen, eta bazkatzan dabiltzan Israelgo artzaintzat. Eta finean adizazu zer dioen Marzialek:

*Omnis cæsareo cedit labor amphiteatro
Vnum præ cunctis fama loquatur opus.
Martial. lib. 1.*

§ 19

Hemendik beraz ikhusten duzu ohore eta errespetu zor diogula, zeren bethi hari baitzaitzu irakasten eta emaiten.

§ 20

Jerson Parisko xanzelier jakintsunak mintzo delarrikan iskiribatzaillen laudorioez dioen eredura:

Prædicat, atque studet Scriptor, largitur, et

orat

Affligitur, sal dat, fontem, lucemque futuris

Ecclesiam ditat, armat, custodit, honorat.

Iskiribatzaillea bethi hari da predikatzen, eta estu-
diatzen, erremusina, eta othoitz egiten, penatuz
zuhurtziaren ithurri biziz, eta argitasunez Elizaren
aberasten, harmatzen sostengatzen, eta ohoratzen.
Jersonek kalitate eder hautaz beztitzen tuenaz geroz-
tikan iskirabatzaille katholikoak, arzoinekin erran
dezakegu, gure Axular famatua bethi hari dela predi-
katzen, eta estudiantzen, erremusina, eta othoitz egi-
ten. bere denboran iragan zituen travailluen bidez,
zuhurtziaren ithurri biziz, eta argitasunez Elizaren
aberasten, harmatzen, sostengatzen, eta ohoratzen.

Eta oraino are baino gehiago: zeren Tritemio
Abbadeak dioen bezala: *Major est scriptoris pietas,
officio prædicantis; quia illius cum tempore perit
monitio: istius perseverat in annos multos annuncia-
tio. Prædicator loquitur præsentibus dumtaxat: scrip-
tor prædicat etiam futuris. Cum prædicator deficit,
cessat officium: scriptor etiam mortuus in volumine
moribus facit institutum. Parum valet officium prædi-*

cantis, si scriptoris ministerio non tuetur. Quid enim prædicator, si scriptor, quod legat, non scripserit. Aug. lib. de Trinit. Tritermus. lib. de laudibus scriptorum, cap. 6. Iskiribatzaillearen eginbidea handiagoa baita, predikariarena baino: zeren predikariaren abisua denborarekin heldu baita faltatzera; baina hunen iskiribuak hainitz urthez baidirau(te). Predikaria presentekoei xoilki mintzo zaje; iskiribatzaillea presentekoei, eta ethorkizunekoei. Predikaria faltatzearekin akhabo da haren offizioa. Iskiribatzaillea hillik ere, iskiribua bizi da. Guti balio du predikariaren offizioak, iskiribatzaillearen laguntzaz esbada sostengatua; zer erran lezake predikariak, baldin iskiribatzailleak irakurtzeko iskiribatu ezbalu.

§ 22

Aita Borkoriok-ere badio Apostoluek progotxu gehiago egin ziotela Elizari, preso zeudezilarikan iskiribatu zituzten iskiribuez, ezen ez beure predikuez: *In omnem terram exivit sonus eorum.* Psalm. 18. Zeren bide hartaz hedarazi baitzuten bere omena, eta XRISTOREN lege Saindua munduko bazter guztietara: eta

hunen arrozoina Agustin Sainduak emaiten du ederki dioelarik gisa hunetan: *Quia quod lingua dicitur, sonat, et transit; quod scribitur, manet*: Hitzak ahotik ilkhitzean habarrots, eta soinu egiten du baina ezta ahotik hain laster kanpora, non berehala iraungia baita; Baina plumak iskiribatzen tuen gauzak mendez mende diraute, eta bethi dira mintzo: *Quod scribitur manet*. Baina hitzak fite iragaiten, eta ahantzten dira: *Quia quod lingua dicitur, sonat, et transit*. Halatan predikaria mintzo deino, haren predikua-ere bizi da, baina predikaria faltatzearekin, ja haren predikatzeke eginbidea-ere iraungia gelditzen da. Ordea erran den bezala, iskiribuak bertze kondizinerik du, zeren ez xoilki iskiribatzailea bizi deino, baina-bai oraino hura hil ondoan-ere bethi bizi baita, eta mintzo, biziko eta mintzatuko; hargatik erran zuen Errege Profetak-ere: *lingua mea calamus*: Ene mihia da Pluma. Hargatik eginbide ohorezko hau gomendatzen du Gregorio Sainduak-ere, noiz eta-ere baitio: *Imo si Gregorio credis, vel unum librum afferre stude; vt in Tabernaculo Domini non vacuus appareas; si solum etiam habueris, vel minuta duo*. Baldin ezin badaidikezu liburu handirik Elizaren zerbitzatzeko, travailla zaitea bederen baten emaiteko, etzaudezila Jainkoaren etxean

alferrik, offrenda zazu Kornadu bat bedere Euanjelio-ko alhargun probe hark egin zuen bezala.

§ 23

Konsiderazino hauk bada mugidatu ahal zuketen Axular gure Artzain, eta Buruzagi ohoratua egin zuen obraren iskiribatzer, etzen hura ibili aitzakia, eta estakuru bilha, arrozoin zukelarikan erraiteko Kasidorok erran zuena. *Nonus annus ad scribendum datur Auctoribus, nec mihi horarum momenta præstantur.* Casiod. in. præfat. ad. libros. variar. Erran nahi du, denbora behar da iskiribatzeko; ordea nik eztut oren baten espatorik ez errepausarik ene errotoriako egitekoak direla kausa: halarikan-ere ordea bere joan etorri guztien artean ongi enplegaturik, eta entsejaturik kausitu zuen iskiribatzeko behar zuen denbora. Baina hark bezalako eginbiderik, eta enplegurik ezutenek, zer estakuru, edo aitzakia bilhatuko dute, Jainkoak eman dioten dohainaren ez enplegatzeko? begira ordea egun batez entzun eztezaten Euanjelioko zerbitzari hark entzuen (*sic*) zuen erantzukia: *Auferte ab illo mnam, et date illi, qui decem mnas habet.* Luc.

cap. 19. eta nahi nuke bere zori gatzean aihen egin ezlezaten progotxurik eztuket denboran: ezen badakigu Jeremias Profetak-ere nola erran zuen ai izigarri eta ikharagarri hau: *Væ mihi, quia tacui, quia vir pollutus labijs ego sum.* Isaiæ. 6. v. 5. zeren mintzatu behar bidean ixilik egon zen, Jainkoaren populuari egia predikatu gabe. Baina Seraphin batek aldareko suaz ezpainak garbitu ziotzan bezain sarri, gelditu zen hain kurajatu, eta animatua mintzatzeko, non Jainkoak predikariak igortzerakoan; galdegin baitzioen, hura-ere igor zezala: *Ecce ego mitte me.* Isaiæ. 6. ordea erremarka zazu, zeren Isaiasen enplegua zelarikan predikatzea, halarikan-ere Seraphin batek bere aho ezpainak aldareko ikhatz biziak garbitu baitziotzan: *Et volavit ad me vnus de Seraphim, et in manu ejus calculus, quem forcipe tulerat de altari, et tetigit os meum.* Eta nola iskiribatzea, predikatzea baino baita enplegua haltoagoa, halatan arzoinekin erran zezaken Axularrek-ere Job sainduak erran zuena: *Quis tribuat mihi, vt scribantur sermones mei.* 19. § 23. Nork ene aho ezpainak garbituko darozkit, eta emanen darot laguntza iskiribatzeko? Kherubinak, ala Seraphinak?

§ 25

Egiaz erran nezake ez batak, ez bertzeak: zeren iskiribatzeke eginbidean laguntzek behar baitute izan goragotikkagoak: ezen ikhus zazu nola Jainkoak berak iskiribatzeke enpleguan manatu zuen Joandoni Joannis Euanjelista Elizako Aitzindari, eta Buruzagi hura, erraiten zioelarikan. Scribe. Apocal. I. v. et 19. et cap. 2. v. 1. 18. 12. et cap. 3. v. 1. 7. 14. Iskiriba zak. Hunen eredura beraz iskiribatzaillle katholikoak behar du izan Kherubinez, eta Seraphinez goragokko mezua, edo laguntza, baihalaber ikatz biziaren kharra baino su goriagoa.

§ 26

Norenganik bada erranen dut, Axularrek errezibitu zituela iskiribatzeke laguntzak, eta fagoreak? baizik JESU XRISTO aldareko Sakramendu Sainduan egun guztiaz errezibitzen zuenaganik? zeinak bere aho ezpainak garbitzen baitziotzan, ez Seraphinak bezala aldareko ikhatz biaz, bainabai bere odol Sakratuaz?

zeinaren effeta dela hark iskiribatu duen obra (De non prokraslinanda pænitentia) nork dudatuko du? Kontsideratu ondoan, penitentziaren Autora, eta Buruzagia dela KRHISTO gure Jauna, zeinaren odol Sakratutik baitu penitentziak bere ethorkia, indarra, eta botherea, gu bekhatutik libraturik Jainkoaren garazia sainduan ezartzeko, eta zeina gabe nihor ezin salba baititeke: *Nisi pænitentiam egeritis, omnes simul peribitis*. Halatan beraz egun Agustin Sainduarekin baderrakegu: *Et hæ de illa Civitate, vnde peregrinamur, litteræ nobis venerunt, ipsæ sunt scripturæ, quæ nos exhortantur, vt bene vivamus*. S. August. in ps. 50. cant. 2. Eskual-herrian Axularren eskutik errezibitu tugun iskiribu katholikoak direla zerutikkako kartak, edo guthunak; halako moldez, non Eskual-herriak egun ezin erran baitezake Tobias Sainduak Aingiruari erran zioena: *Quale gaudium mihi erit, qui in tenebris sedeo, et lumen cœli non video?* Tob. 5; zer kontentamendu nahi duzu izan dezadan, ilhunbetan nago zeruko argirik ikhusten eztudala? Ordea bertzela mintzatu ziren Jonatas, eta Hebreoak erran zutenean, etzutela nihoren beharrik, zeren baitzituzten liburu, eta iskiribu Sainduak bere konsolamenduko. Hartako bereko utzi darozkigu bada guri-ere Axularrek, bere neke trabai-

Iluz athera zituen iskiribu katholiko eskuarazkoak. Eta halatan esperantza izaiteko dugu, halaber bera-ere orai dagoela bere neke traillaen konsolamenduez lorian gozaten: *Bonorum laborum gloriosius est fructus*. Sap. 3 Jerson jakintsunak dioen bezala; *Speret premium, quoniam merces sua magna nimis erit DEUS jubens scrutari Scripturas, ac perinde scribi, quibus habetur vita æterna, Ipse Dominus noster IESUS CHRISTUS, qui est liber vitæ speciocissimus sit benedictus in sæcula. Amen.* Iskiribatzailearen errekonpentsa, eta pagua izanen da Jainkoa bera, zeinak manatzen baitgaitu iskiribu sailduen miratzera, eta hekien gainean iskiribatzer, zeren hetan baitago bizitze eternala, JESU XRISTO gure Jauna bera, zeina baita bizitzearen liburu hagitz ederra, eta bere gainekoa, biz benedikatua, eta laudatua mendez mende, halabiz.

§ 27

Eta baldin Axular kausituko baliz orai dagoela purgatorioan gure othoitzen beharrean; guztiok galdegiteko gendioke Jainko guztiz onari; othoi urrikal dakio-

en bere zerbitzaria, eta eman dezon bere hautuentzat
preparaturik dadukan bakhezko lekhua: Eta lehen bai
lehen egin dezon garazia entzuteko bozkariozko
berria. *Factus est in pace locus ejus, et habitatio ejus
in Sion: Haren egoitza eskuin dela zeruko Sion Sain-
duan. Vbi requiescat in pace. Amen.*

SARAKO ESKUARA ESKUAL-HERRI GUZTIAN ESTIMU, ETA OSPE HANDITAKOA DA

§ 1

Laudorio emailen eginbidea denaz geroztikan Sort-herriaren loriez, eta abantaillez mintzatzea, arrotzekin ene hertarrek erantzuki egin lezakedate: baldin orai parada hunetan ezbanintz mintzaten ene Sort-lekhuaz, eta herriaz. *Encomiorum lex est, Patriæ dignitatem ostendere.* S. Basil. orat. in S. Gor. mart. Zeren Basilio Sainduaren eredura, laudorio emailen arteko legea baita, Sort-herriaren abantailen erakustea, eta argitara ematea; Beraz ene eginbidea da, Sara ene Sort-lekhuaz, eta Laburdi ene herriaz mintzatzea; eta hala lehenbizirik mintzatuko naiz ene Sort-lekhuaz.

§ 2

Gauzei ezartzen zaizte izenak, edo dela hekien izaitea, edo propietateak, edo kalitateak direla kausa, edo zenbait bertze hunelako arrozoini dagokala: eta hala izendatzen dugun gauza, izenaren bidez ezagutzen da. Beraz arrozoinamendu hunen eredura baderaket Sara ene Sort-herria abantailatua, eta beregainekoa dela: Sara denazgeroztikan hain izen hautua, eta ederra, eta bethi estimu handitan ibili dena: ezen Sara deitzen zen Abrahamen emazte eder hura, zeina bere edertasuna zela kausa bi aldiz izan baitzen erauzia, batean Egiptoko Errege Pharaonez eta bertzean Errege Abimelekez, zeinek uste baitzuten Abrahamen arreba zela; ordea Jainkoak bethi begiratu eta guardatu zuen bere garbitasunean: Tobiasen Esposa-ere Sara deitzen zen, zeinak erran nahi baitu *Domina*, Andrea, edo Prinzesa. Hemendik beraz izen xoilak badirudi aditzera emaiten darokula, bertze frogantzarik elizela-ere, zenbait kalitate, eta propietate eder dela kausa herri huni izena eman zitzaioela Sara: ordea zein diren kalitate, edo propietate eder hek jakitea zaiku orai falta.

§ 3

Bi arzoinez daritzat herri huni hain izen hautua eman ahal izatu ziotela. Behinik behin bere paraia, eta situazino arraia, eta arinaren kariaz; eta bigarrenekorik here eskuara garbiaren edertasuna dela kausa, zeina hain handirozki baita laudatua ez xoilki Laburdin, baina bai oraino Espainiako, eta Franziaiko bertze Eskual-herrietan-ere. Eta orai garbiki egia derradan nik behintzat, izatu naizen herri guztietan, bethi entzun izatu dut (bat-bederak entzun ahal izatu duken bezala), guztiek aho batez aithor hau, eta laudamen bera emaiten diotela Sarako eskuarari.

§ 4

Eta behar bada zeren zenbaitek usteko baitu, herriko Seme bezala neure herriaren abantailletan mintzo naizela, hargatik bada mintzaraziko dut Aita Materra, zeinak mintzo zaielarikan Eskualdunei, baitio gisa hunetan: *Miretsico duçue aguian nic (Escual-herrico ez naiçelaric) escuaraz isquiribatçeco ausart-*

*ciaren hartcea; Baina nahi dut jaquin deçaten halacoc,
nic hitzcuntça hunetan daquidana, Saran ikhasi
dudala, eta hango Escuara vngui erabiltcen badut,
eznaicela gaitz erraiteco, eta ez arbu jatceco. Arrozoin
hunen eredura beraz baderraket Aita Materrak loria
bat egiten duela Saran ikhasi zuen hizkuntzaz (sic),
eta oraino bertze alde behar den aithorra, eta lauda-
men guztia emaiten duela, jeus erraitekorik, ez arbu-
jatzekorik eztenaz geroztik Sarako hitzkuntzaz: Eta
hala bi arrozoin hauk direla kausa erran behar da, ongi
eman ziotela herri huni izena Sara.*

§ 5

Denboraz Athenasko hiria izan zen Greziako hiri guztietarik famatuena, han izaiten ohi ziren presunaja handi, eta eskola-nausi jakinak zirela kausa: Sarak-ere bada eredu berean eztu gutiago merezitu Eskualherrian, bere denboran izatu tuen Gikon galant eta seme ohorezkoen partetik, zeinek baiterraket abantail eraman diotela Athenastarrei, batzuek bere kargu ohorezkoak direla kausa, eta bertzek eskuaraz argitara athera tuzten obra katholikoen bidez. Baina berezi-

ki Beltran de Lehet Bajonako Ippizpikuak, eta Dotor de Ibarrola Bordeleko parlamentean, Erregeren konseillariak, bata Leheteko etxe nobleko semea, eta bertzea Ibarrolakoa. Iskiribatzeke eginbidean-ere halaber izatu dira enplegatu direnak: Aita Haranburu, Aita Seraphikoaren ordenakoa, eta Xristobal de Harizmendi Jaun appeza, bata Haranburuko Semea, eta bertzea Mendiondokoa: ordea guztien gaineratik *P. Axular* gure Errotor famatua: eta nola hauk Eskuaraz iskiribaturik argitara eman tuzten obra katholikoak baitzautdezin Eskual-herrikotzat bertze hitzkuntzen itzalaren azpian estaliak eta gordeak, halatan uste dut ezen arrosoinekin erran dezakedala Saraz, Kasidorok Seberinori iskiribatu zioena: *Sic enim Athenensium scholas longe positus introisti, sic palliatorum choris miscuisti togam, vt Græcorum dogmata doctrinam feceris esse Romanam* &. lib. 1. Epist. 45;. Athenastarren, edo Grekoen hazkuntzak, edo eskolak eragin zituela erromakotzat. Diot bada nik-ere hainitz gauza hitzkuntza arrotzen itzalaren azpian guretzat ehortziak zeudezinak, Sarak eskuaraz argitara emanik, eragin tuela Eskual-herrikotzat: non arrokoinekin erran baitezaket, Eskual-herriko Athenas Sara lau-urdin.

§ 6

Orai nahi nuke mintzatu Laburdi, edo Lau-urdi ene herriaz, batere mintzatu gabe haren abantaillez, eta bere merezimenduen kariez Erregenganik ardietsi izatu tuen libertate, eta garazia bereziez: hauk usten tut bertze okasino batekotz, zeren xoilki orai nik emen bilhatzen dudana baita hunen izenaren ethorkia, edo ethimolojia. *O fortunatos nimium sua si bona norint agricolas.*

§ 7

Badirudi Oihenarto gure Eskualdun jakintsunak batean erran nahi duela *Lapurdi* izen hau atheraja dela *Lapurra* bertze hitz hunetarik: eta berriz bertzean badirudi eztela ausartatzen gauza hala dela ossoki seguratzera, ezen dio: *Est autem Lapurdum nomen vasconicum, seu Biscainum, ideoque ille oppido fortasse impositum fuit, quia ipsius incolæ olim piraticam faciebant, vt testatur Author vitæ Sancti Leonis Pontificis Lapurdensis.* Oihenart cap. jv. lib. 3. Lapurdi da

eskuarazko, edo bizkaitar izena, eta behar bada, zeren hango jendeak arrobazarian, eta eppaskoan baitzebiltzan, hargatik ezarririkakoa, Joandoni Leoren bizitzearen Autorak fede emaiten duen bezala: puntu hunen gainean hau da Oihenartok dioen guztia, eta aitzinago passatu gabe hemen frikatzen da.

§ 8

Ordea iduritzen zait Oihenartoren eginbidea zela, egiteko hunen aippamenean sarthu zenaz geroztikan, dudak khendurik, eta gauzak hobekiago xehakaturik, munduari argitasunaren emaita: ezen haren erranaren eredura bat-bederak eztu bertzerik jukatuko, baidik Lapurdiren deizinoa dela *Lapurra* hitz hunetarik atheraja edo hartua; ezen Oihenartok zimendutzat hartzen duen arrozoina da, zeren lehenago hango jendeak arrobazarian eta ohoitzan baitzabiltzan.

§ 9

Arrozoin suerte hau iduritzen zait dela belearen elhea, eta funtsikgabeko atso kontua: halarikan-ere nahi dut Oihenartok dioena, egia bailiz bezala besarkatu, handik beretik erakusteko, deizino hunen gainean klarki enganatu zela: frogantzaren zimendutzat hartzen tut haren beraren hitzak, zeinetan baitio: Lapurdi da Eskuarazko, edo Bizkaitar izena: nahi dut hori hala den; Baina dugun orai jakin nork, eta nongo eskuaran ezarri ahal zuketena deizino hau?

§ 10

Badirudi arrozoin ez herriko jendek berek, erran nahi dut, Lapurtarrek eman behar ziotela bere herriari izena, eta bere hizkuntza: ordea Lappurra nola ez baita gure herriko izena, zer kharore ahal duke izen huntarik, gure aitzinekoek hartu ahal zuketela bere herriaren deizinoa? nahi nuke jakin Erresumei, hiriei, etxei, eta oraino presunei nork emaiten othe diotzaten izenak, eta deizinoak? herrikoek ala herrizkanpokoek? etxekeok, ala etxeazkanpokoek? Jabek, ala Jabe-ezti-reenek? Mundu guztiak badaki, izenaren, eta deizinoaren emaiteko zuzena, Jabearena dela: ezen lekhuko

dira Zaxariaz (*sic*) eta Elisabet Baptistaren Aitamak. *Et vocabant eum nomine patris sui Zachariam.* Luc. 1. Zaxarias bere aitaren izenaz deitzen zuten; Baina Amak entzun zuen bezain laster ausardiza, eta burupe handirekin ihardesten du: *Nequaquam sed vocabitur Ioannes.* Dio, eztut nahi horla deit dadin, baina deithuko da Joannes. Oraino eztira hortaz kontentatzen. *Innuebant autem patri ejus, quem vellet vocari eum.* Luc.

Kheinuz galdegiten zioten aitari, nola nahi zuen deit zedin haren semea; eta ihardesten du: *Ioannes est nomen ejus.* Luc. Joannes da horren izena: eta oraino dio bertze-alde: *Et Tu puer Propheta Altissimi vocaberis.* Zu haurra deithuko zara Jainko handiaren Profeta; hemendik beraz ikhusten duzu Jabearen eginbidea dela izenaren finkatzea, ezen bertzela, othoi erran diezadazu, nork emanik, edo nondik duen Erromak izena? baizik Romulo bere Jabeaganik?

§ 11

Ordea oraino falta zaiku ebarakitzea, ala herriko hitzkuntzan, ala herrizkanpokoan den izenaren, eta

deizinoaren ezartzeko eginbidea. Baldin galdegiten badiotegu Baptistaren zirkunzidatzera bildu zirenei, erranen darokute: eztela eman behar izen arrotzik, eta ezagutu gabekorik: *Quia nemo est in cognatione tua, qui vocetur hoc nomine.* Luc. 1. Arrozoin hunen eredura beraz eztu molderik gure aitzinekoek bere herriari eman nahi izatu ziotela izen arrotzetik harturikkako deizinoa, eta oraino are gutiago laidozkoa: zeren bat bederak holako eginbidetan ezarri nahi tuen izenak, izaiten ohi baitira ahalik, eta hautuenak, eta gauzaren naturalezari edo propietateari hobekienik dagotzanak; eta halatan Baptistari-ere bere burasoek ezarri zioten izena Joannes, eta ez Zaxarias: zeren Zaxarias baino izen haltoago baitzegokan Baptistari, hala nola baita Joannes, zeinak erran nahi baitu: *In quo est gratia, aut Domini gratia.* Jaunaren garazia; Zaxarias, *memoria Domini*: Jaunaren orhoitzapena. Eta oraino bertzealde, zeren Zaxarias (baitzen hama-bi profeta ttipietarik bat): baina Baptista zen Profeta handia, eta guztien gaineko Profeta: *Inter natos mulierum non surrexit major Ioanne Baptista.* Math. 11. Hargatik beraz Baptista Profeta handiari etzagokan ongi Zaxarias Profeta ttipiaren izena: arrozoin haukien eredura erran dezakegu beraz; Lapurdiren izena, edo

deizinoa eztela, Oihenartok uste duen ithurritik jajoa ez sorthua: halako gisaz non orai bertzetarik hartu behar baitugu deizino hunen zimendua: ezen legeak erraiten du: *Interpretatio æquior, et benignior sumenda est*: L. in his. D. de condit. et demonst. cap. 2. de reg. ins. Interpretazinarik justuena, eta eztiena hartu behar dela. Zeren izenen ethorkia hartu behar baita &.

§ 12

Arasiok, zelarikan Laburdiko Ippizpiku bederatzi ehun, eta laurhogoi garreneko urthearen ingurunean, egin zuen deklarazio bat, zeinetan deklaritzen baitzuen noraraino hedatzen zen haren Ippizpikutasuneko eremua, zuzena, eta autoritatea, eta da gisa hune-tan. *In nomine Domini nostri Iesu Christi. Amen. Ego Arsius indignus, et humilis Laburdensis Episcopus volo tradere notitiæ successoribus, et posteris ea, quæ nostro Episcopatu scilicet Sanctæ Mariæ Laburdensi subjacent loca &c.* é chartario Capituli Bajonensis circa annum Christi. 980. JESU XRISTO gure Jaunaren izenean. Halabiz. Nik Arsio Laburdiko Ippizpiku mere-zigabeak, eta humilak nahi dut jakin dezaten gure

ondokoek, zein herri diren Laburdiko Andre dena Mariako Ippizpikutasunaren azpikoak &k. hau da Bajonako Kapituluaren arxibotik, edo papertegitik, bederatzia ehun eta laur hogoi garren urthearen ingurunekoa.

§ 13

Kausitzen da oraino gehiago Zelestino hirugarrenaren iskiribu bat, milla ehun, eta laur hogoi, eta ama-laur garren urthekoa, zeinetan Laburdiko Ippizpikutasuneko mugak esplikatzen baititu hitz hautaz. *Vallem, quæ dicitur Laburdi. Vallem, quæ dicitur Arberoa. Vallem, quæ dicitur Orsaiz. Vallem, quæ dicitur Cizia. Vallem, quæ dicitur Baigur. Vallem, quæ dicitur Baztan. Vallem, quæ dicitur Lerin. Vallem, quæ dicitur Lesaca. Vallem, quæ dicitur Oiarzun vsque ad S. Sebastianum.* Haran zeina deitzen baita Laburdi. Haran zeina deitzen baita Arberoa. Haran zeina deitzen baita Orzaiz. Haran zeina deitzen baita Zizia. Haran zeina deitzen baita Baztan. Haran zeina deitzen baita Lerin. Haran zeina deitzen baita Lesaka. Haren zeina deitzen baita Oiarzun Donostiarainokoa.

§ 14

Ekharri tut huna Ippizpiku, eta Aita Saindu haukien deklarazioak, ikhusteko, orai duela zazpi ehun urthe, eta oraino geroztik-ere; nola gure herri hau deitzen zen Laburdi, eta ez Lappurdi: gauza bera emaiten darokute aditzera Franzessezko, eta Espainolezko Autor, bai halaber liburu zahar, eta berri guztiek, batzuek deitzen dute Labourt, eta bertzek Labort: eta Eskuaraz-ere daritzat lehenago deitzen ahal zuketela Laburdi, eta denborarekin B khendurik, P ezarri diotela: ezen ezta gauza errazagorik, nola baita B khendu eta, haren lekhuak ekartzea P. Kintilianok-ere hargatik erran zuen. *Cum dico, obtinuit, secundam enim B literam ratio poscit, aures magis audiunt P.* Quintil. lib. 1. cap. 7. Erraiten dudanean *obtinuit*, arrosainak galdegiten du bigarren letratzat B. Ordea beharrietako soinuak lehen dirudi dela P. ezen ez B. Horra beraz nondik ethorri ahal dateken letra hunen ganbiadura.

§ 15

Eta nola oraino ez bainaiz ene xedera hedatu, har-
gatik hemen frikkatu-gabe, nahi naiz iragan aitzinago,
eta erakutsi denbora berean, B hura-ere ganbiatua
dela, eta U khendurik ezarria: zeren letra guztien
artean ezbaitira kausitzen bertze bia hain maiz, eta
ardura bata bertzearen lekhuari dabiltzanak, nola
hauk: ezen ikhusten dugu, Autor batzuek, eta bertzek
gauza bat beraren izendatzeko baliatzen direla letra
hauk biez, hala nola: Baskonia, ae. Vaskonia, ae.
Vasko, onis: Basko, onis &k. Eta hala baldin B khendu-
rik ezar badadi U, erran nahi du: Lau-urdi, edo Lau-
urdun, edo lau-urdira. Non baitut uste, hau zela gure
herriaren lehenbiziko izena, eta deizinoa. Eta arrozoin
hunent zimendua, eta funtsa da, zeren baitago lau
uren artean fintzatua, eta hedatua, jakiteko Bidassoa-
ren, Xarakariaren, Errobiren, eta Atturriren artean;
Badakigu Bidassoa heldu dela Baztango ingurunetan
Espainiako aldetik, eta bereziki Erratzuko eremuetan
sortzen diren ithurrietarik, zeina iragaiten delarik
Biriaturtik Hendajera itsassoan sartzen baita. Bigarre-
na da Xarakaria, hau Sarako, eta Urdazubiko eremu-
tan sortzen da, handik iragaiten da Senperera, gero
Azkaina, eta azkenean Doni-joane Ziburueta, eta
han itsassoarekin bat egiten da. Hirurgarrena deitzen

da Errobi, edo Nivi, zeina jausten baita Izturiztik Itsatsura, handik Kanbora, eta Uztaritz, eta azkenean Bajonara. Laugarrena deitzen da Atturri (nik lehen erran nezake Ithurri) zeina heldu baita Bidaxuingo aldetik, eta azkeneko hauk biak juntatzen dira Bajonan, non baitut uste, batzuek Errobi hargatik deitzen dutela (Ni bia eskuarazko hitz hunetarik), *Nivi*. Beraz laur uren artean dagoenaz geroztikan, khanore du, eta arrosoinekin erran diteke lehenbiziko hatsapeanean izena eman ziotela *Lau-urdi*, *Lau-urdun*, edo *Lau-urdira*. Zeren lau ur baititu bere baitharik iragaiten zaizkonak, eta hekien beren artean dago fintzatua, hedatua, eta errepartitua

§ 16

Halatan beraz erran behar da gure aitzinekoek hemendik hartu zutela gure herriaren izena, eta ez zeren lapurra Bizkajako izena den: Joannes Saresberensek dioen bezala: *Verba accipienda sunt ex sensu, ex quo fiunt, non ex sensu, quem faciunt*. Ioann. Saresb. Epist. 290. Hitzak hartu behar dira nondik-ere

baitute bere izaitea, eta ethorkia, eta haren eredura,
eta ez egiten duten sentsuaren soinutik.

ESKUALDUN ESKUARAREN ARBUJATZAILLEAK, BERAK DIRA ARBUJAGARRIAK

§ 1

Bi arzoinez ordinariozki gauzak mesprezatzen ohi dira, edo dela hekien baliostasuna ezagutu gabez, hala nola urrea, eta zilharra lupean (*sic*) daudeino, baitira oinpean ostikkatuak, lur puska batez baino gehiago, hetaz estimurik egiten eztelarikan: baina ongi preparaturik bere garbitasunean ezar ditezinean, mundu guztiak du estimu handi hekintzat. Oraino ber-tze-alde mesprezatzen dira gauzak, noiz eta-ere naha-ro, eta frankian baitabiltza.

§ 2

Hau bera gerthatzen da bada hemen-ere: ezen Eskuara delarikan Babiloniako dorretik ilkhi ziren hitz-kuntza hautuenetarik bat, eta Eskual-herrian ardura-kotzat dabilana, guztiarekin-ere egun kausitzen da arbujatua, eta mesprezatua bi jende araldez. Batzuek dira Eskuararik eztakitenak, eta bertzeak Eskualdun Eskual-herriko ume eskuararen jakiteko obligazino dutenak.

§ 3

Lehenbizikoek arbjatzen (*sic*) eta mesprezitzen dute gure Eskuara mintzoaren habarrotsetik, edo hitzen soinutik, zeren hekien beharriari estrainio, edo arrotz eta irrigarri iduritzen zaizkon Eskuarazko hitzak; Marianak-ere hargatik erran zuen: *Soli Cantabri linguam hactenus retinuerunt rudem, et barbaram cultumque abhorrentem.*

§ 4

Ordea hau da arrozoin hagitz flakko bat, eta bere-
nez indarrrik gabekoa: ezen linguaja baten arbutzete-
ko aski baliz bat-bederari hitzkuntza arrotzetako
hitzak estrainio eta irrigarri iduritzea, dudarik gabe
hitzkuntza guztiak liritezke arbutzeteakoak: zeren
Eskualdunari-ere estrainio, eta arrotz iduritzen bai-
tzaitzko bertze hitzkuntza arrotzetako hitzak, hala
nola batzuei iduritzen baitzaizte estrainio direla
eskuarazkoak. Ordea, zein nahi hitzkuntza arrotz ikha-
si dugun ondoan, egiten gara hartara, egundainotik
eta bethi hartan ethorriak, eta ohituak baitgine beza-
la. Eta nola arbujo molde hau heldu baita arrotzka-
lean, eta usaja faltatik; halatan erran diteke mespre-
zio suerte hau barkhakizun dela, eta oraino hanbate-
naz barkhakizunago, zenbatenaz-ere Eskualdun
Eskuararen jakiteko obligazioa dutenen enorantzia,
eta arbujoa baitira hobenduriagoak; zeren hurkoetarik
heldu den arbujoa, eta bidegabea sentikor-ago, eta
ukhigarriago baitira, ezen ez jende arrotzetarikkako-
ak, Profetak-ere hargatik erran zuen: *Quoniam si ini-
micus meus maledixisset mihi, sustinuissem vtique.*
ps. 54. Etsai baten ganik zernahi sofritu nukkeen; baina
adiskidetarik, hurkoetarik, eta beretarikkako laidoak,
eta bidegabeak, nork eztaki zein mintki errezibitzen

diren? ezen badio Suetoniok-ere, Julio Zesari bere etsajak hiltzera joan zitzaizkonean, eta hil izan baitzuten hogoi, eta hirur traketa kolpez, nihortaz-ere etzuela erakutsi hanbat sentimendu, nola Marko Brutoz, zeina bere seme propiala izan bailu bezala hajitz maitaroki hazi baitzuen, eta hala haren bihotz uherraz, eta borondate gaitzaz miretsirik erran zioela: *Et tu quoque fili mi?* eta zu-ere ene semea ene kontra? hanbat ontasun eta fagore egin eta ondoan, hau da zure aitari baino obligazino gehiago diozun presunari emaiten diozun pagua eta errekonpentsa?

§ 5

Iduritzen zait egun Eskuarak edo Eskual herriak-ere arrozoin handirekin erran dezakela gauza bera bere seme ezagutza gabeko hautaz Profetarekin batean (erraiten tuelarikan hitz hauk): *Tu vero homo unanimes, dux meus, et notus meus, qui simul mecum dulces capiebas cibos: in Domo Dei ambulavimus cum consensu.* Psal. 54. Hazi zaitut neure ugatz garbiaz, gidatu, eta ezarri Jainkoaren lege Sainduan, bitartean zure ganik eztut errezibitzen laidorik, eta arbujorik

baizik: zu izan behar bidean ene sostengu, zu zara ene etsairik handiena, eta ene ongi eginak esker gaitzez pagatzen tutzuna, ikhus zazu munduko bertze jendaki guztiek nolako amodioa erakusten duten bere herriarentzat, eta amak emanikkako hitzkuntzaren alderat? handik ikhusiko duzu batbederaren eginbidea dela sortzeak bahitzat bezala emanikako hitzkuntzaren jakitea, ohoratzea, eta aitzinaraztea.

§ 6

Obligazio hau exenpluz erakutsi darokute munduan izan diren jendakirik jakintsunek, eta balentenek, hala Grekoek, nola Erromarrek, hala batzuek nola bertzek bere hitzkuntza propiala denbora, eta lekhu guztietan egin ahalaz bethi ohoratzen abantaillatzen, eta aitzinatzen zuten, eta bertzerenez nausa eta irri egiten.

§ 7

Erromarrek bereziki estimu handia egiten zuten bere hitzkuntzaz, ezen lekhu, eta denbora guztietan berek berea ohoratzen zuten, eta bertzek-ere ohora zezaten egin ahalaz entsejatzon ziren; hargatik Greko-
ei ihardetsi behar ziotenean, errespustak Latinez emaiten ziotzaten, eta oraino etzituzten entzun nahi, non Latinez edo interpretez etziren mintzatzon: etzuten hau xoilki egiten Erroman bainabai oraino Grezian eta Asian-ere, bide hartaz bere hitzkuntza Latina hobekiago errespetarazteko, eta jendaki arrotzetara hedarazteko, Balerio Maximok dioen bezala. lib. 2. c. 2. § 2. erraiten du Suetonio Frankilok-ere; *Sermone Græco quamquam alias promptus, & facilis, non tamen vsquequaque vsus est. Abstinitque maxime in Senatu, adeo quidem, vt monopolium nominaturus, prius veniam postularit, quod sibi verbo peregrino vtendum esset; atque etiam quodam decreto Patrum cum emblemata recitaretur, commutandam censuerit vocem, et pro peregrina nostratem requirendam, aut si non reperiretur, pluribus, et per ambitum verborum rem enuntiandam. Militem quoque Græce testimonium interrogatum, nisi Latine respondere, vetuit.* Sueton. in Tiber. cap. 71. Dio bada, Tiberio, Zesarek zeakielarikan hitzkuntza Grekoa, etzela hartaz balia-

tzen, ez mintzatzen; aitzitik behin okasino batean hitz arrotz baten erraiteko zegoelarik, lehenik bere parlamentari, edo konseilluari galdegin zioela hitz arrotz haren erraiteko libertatea eta denbora berean Parlamenteko Jaunekin batean deliberaturik, eman zuela mezua edo manamendua, hitz arrotza khendurik, haren lekhuari herrikoa ezarriko zela, eta baldin kausitzen ezbazen herrikoa, hainitz hitzez edo itzulingurak baten ere, herriko hitzkuntzan erran behar zela: eta soldadu bat-ere baitzen lekhukotzat etzun (*sic*) beharra, baldinetariak ezbazen mintzatzen Latinez etzedila izan entzuna.

§ 8

Egiarki ezta hau Eskuararen zorthea, ez-eta-ere Eskualdun haukien xedea, zeinek aitzinarazi behar bidean, nahiago bailukete ikhusi ossoki iraungia, eta ehortzia, erraiten dutelarik ezen, Eskuara hitzetan agorra, eskasa, eta moldegaitza dela, eta eztela jeu-setako: laudorio suerte hautaz dakite hainek Eskuaren ohoratzen, laguntzen, aitzinarazten, eta edergailuztatzen: hautarik bat izatu da Oihenarto gure

Eskualduna, zeinak baitio: *Neque adeo verisimile est, sagacem naturæ dispensatorem tantulæ genti propiam linguam tribuere voluisse, nulli fere rei opportunam. Ad exercendum vero commercium, et tuendum cum finitimis populis consortium, prorsus incommodam.* Oihenart. cap. xij. lib. 1. p. 44. Eztu khanorerik naturalezaren autor zuhurak hain jendaki gutiri, eta appurrari eman nahi izatu dioela hitzkuntza propiala, edo beurea, kasik jeusetako eztena. Tratuaren, edo merkkatalgoaren egiteko, eta mugakidekin batasunaren konserbatzeko, eta iraunarazteko jeusik balio eztuena. Hautxek dira Oihenartok Eskuarari iratxekitzen diotzan aitzinamenduak, edergailluak, laguntzak, ohoreak, eta fagoreak.

§ 9

Nukelarik hainitz gauza Oihenartori hemen ihardesteko, guztiarekin-ere oraiko aldian uztentut bertze aldi batekotz, eta xoilki kontentatzen naiz Zizeronek Phaborinori eman zioen errespustaz: *Tum Fronto ad Phavorinum, non inficias, inquit, imus, quin lingua Græca, quam tu videre legisse, prolixior, fusiorque sit,*

quam nostra. Sed in ijs tamen coloribus, quibus modo dixisti designandis, non perinde inopes sumus, vt tibi videmur. Marc. Tul. lib. de Oratore. Diotsa Zizeronek, Greka bazatekela zen konpliagoa, eta hedatuagoa, Latina baino, ordea hargatik etzezala pentsa hari iduritzen zitzajon bezain erromes, eta eskas zirela.

§ 10

Eredu berean bada nik-ere erraiten diot jendaki aralde huni, eztutela pentsatu behar, eskuara hain erromes, eskas, eta moldegaitza dela, nola hek uste baitute: zeren Eskuarak, eta Eskualdunek baitakite gogora ethortzen zaizten gauzen adiarazten: nik behintzat, egia derradan, oraino eztut ikhusi, ez entzun, Eskualdunik ezin mintzatzuz gelditu dela, gogoratzen zaizkon gauzen adiarazteko, hitzek, eta gauzen izenek eskas, eta labur eginik: edo bertzela erran behar lezateke Eskuara, eta Eskualdunak erdimutuak direla? zeren mintzatzean hitza faltatzen baitzaie, eta hala kasu hartan behar lukete kheinuz bederen adiarazteko libertatea, baldinetariak nahiago ezbadute erran mutuek-ere baino, oraino habilitate,

eta traza gutiago dutela eskuarak, eta Eskualdunek: Irakur baletzate Eskuarazko autorak, Axular perpau lanoan, eta Etxeberri Jaun appeka bere kopletan, egiaz hetan khausi lezakete, ea Eskuarak, eta Eskualdunek baituztentz hain naharoki, eta frantzoki, nola zein nahi bertze hitzkuntzek, izpirituko pentsamenduen sothilki, eta agudoki adiarazteko: behar tuzten hitzak, izenak, eta mintzatzeko manera diferentak, eta agian orduan erran lezakete Sidoniok erran zuena: *Intelliges non tam cursum deesse, quam campum.* Sydon. lib. 4. Epist. Erran dut: ezta Eskuara hitzetan hain erromes, nola eremuz baita eskas, eta labur: Eta hala eztute ez zer Eskuara hobenduri eta faltaduri egin, baina bai bere buruak, zeren diren hain lazoak, eta artha appurretakoak, sortzeak emanikkako hitzkuntzaren ikhasteko.

§ 11

Baldin bere baithan ausnar egiten balute, egiaz ezagut lezakete irrigarri, eta laidagarri direla; frogantzatzat eztut nahi ekharri bertze lekhukorik baizik hekien beren mintzatzeko manera astrugaitz nahasi

maneragabekoa, hitz bat Latinez, bertzea frantsesez, bertzea Gastelaniaz, edo Italianoaz, eta bertze gainerako ahotik atheratzen tuzten hitzez jar zaitezke dudatzen ala diren Antipodetakoak, ala Barbariakoak; gisa hunetan egiten dute saltsa bat hanbat saltsakari diferentez appaindua, eta hain zappore gaitzetakoa, non munduan den sabeldarrajorik handienari-ere eman baitezoke higintza, edo goragalea. Bitartean orduan uste dute dohakabe hauk, mintzo direla haltokienik, eta ederkienik; noiz eta-ere baita okasinorik handiena, hetaz nausa, eta irri egiteko, eta Alvaro Aitonon-Seme Godo Kordobar hark Latindunez erran zuen gauza beraren erraiteko: *Eheu Latini linguam propriam ignorant.* cap. 22. Ai helas jendaki haukien irrigarriak beure hitzkuntza propiala eztakite? mihia dute gathibu, flako, eta lothua eskuaraz mintzatzeko, baina bihoaz Zizeronen gana, eta hark emanen diote erremedio ona: *Quorum linguæ sic inhærent, vt loqui non possent, hæ scalpello resectæ liberarentur.* Cic. 2. de Diu. Halakoen mihiak, dio Zizeronek, lantzetaz pikkatu rik sufla, eta zalhu litezke, eta menturaz orduan ikhas lezakete ahotik hitzak athera baino lehen, nola mintzatu behar luten, Arnulo gizon jakintsun haren erranaren eredura: *Habere quid dicas, et scire quomo-*

do dicas. Arnul. Serm. habito in Concil. Turon. p. 2. tom. 12. biblioth. veter. Patr. Entseja litezke mintzatu baino lehen, zer erran behar duten, eta nola mintza jakitera, eta ikhastera. Ezen ezta aitzakiarik, ez desen-kusarik bat bederak sortzetikkako hitzkuntzaren ez jakiteko. Hargatik erran zuen Isidoro Sainduak-ere: *Omnem autem linguam vnusquisque hominum, sive Græcam, sive latinam, sive cæterarum gentium, aut audiendo potest tenere, aut legendo, aut ex præceptore accipere. Cum autem omnium linguarum scientiam difficilis cuique sit, nemo tam desidiosus est, ut in sua gente positus, suæ gentis linguam nesciat. Nam quid aliud putandum est, nisi animalium brutorum deterior, qui propriæ linguæ caret notitia.* S. Isidor. lib. 9. orig. cap. 1. Batbederak dio, ikhas detzake-la hitzkuntza guztiak, edo dela Greka, edo dela Latina, edo dela zein nahi bertze, edo mintzatzan entzunez, edo irakurriz, edo dela eskola-nausiaganik. Baina hitzkuntza guztien jakitea gaitz baita, hargatik eztela hain lazorik sort-herrian sortherriko hitzkuntza eztakienik. Ezen sortherriko hitzkuntza eztakienaz zer erran ahal diteke, baizik bestiak baino bestiago dela? zeren bestiek garbiki, eta klarki emaiten baitute aditzera, zer muetetakoak diren, batzuek janbaz, bertze batzuek

marrumaz, bertzek arrubiaz, bertzek irrintzinaz, eta finean bertze batzuek kanta errepikaz: xoilki gure Eskualdun hauk eztakite adiarazten, nor, eta nongoak diren.

§ 12

Eta oraino zein itsusi, eta ahalkagarri den sort-herriko hitzkuntzaren ez jakitea erakusten daroku Sparzianok Sebero Enperadorearen bizitzean: *Cum soror sua Leptitana ad eum venisset, vix latine loquens, ac de illa Imperator erubesceret, dato filio ejus lato clavo, atque ipsi multis muneribus, redire mulierem in patriam præcipit.* Sparciau. lib. fin. in fin. de censibus. Dio; abiadura gutitarik ethorri zela Enperadore izaitera, eta Enperadore egin zenean, bere arreba joan zitzajoela ikhustera, mintzo zela Latinez hain astrugaizki, non ahalkarazten baitzuen Anaja Enperadorea: ahalkeria hura bada bere begien aitzinetik khentzeagatik, berehalaxe eman zioela haren semeari konseillaritasuneko arropa, edo kargua, eta arrebari-ere hainitz emaitza, eta joja handi, eta hainbertzez despediturik, herrirat igorri zuela. Ikkus beza-

te bada Enperadore hau nola ahalkatzen zen, bere arrebaren mintzatzeko astrugaitzkeriaz, eta bitartean badaikit, hauk ez tutela axolarik beure ahotik erraiten turtzun erhokeriez: O guztion ahalkagarrizko gauza (?) ezin sofrituzkoa!

§ 13

Menturaz erranen darotazu Enperadore hau sentikkor, eta minbera egin zela, edo jeus guti aski zuela, Arrebaren despeditzeko; zeren Emazteki baten Latinez ez ongi mintzatzekoak baitirudi hoben appurra, eta jeusgutia dela, Anaja Enperadore batek arrebaren gisa hartan bere etxetik, edo Enperador tegitik igortzeko? zeren emakumek ez baitute obligaziorik hitzkuntza arrotzen jakiteko, eta bereziki Latinaren.

§ 14

Bai-ordea Latina etzen hitzkuntza arrotza Arreba harentzat, zeren Latin herrikoa baitzen, haren herrian haurrak, eta emakumeak Latin mintzo ziren, orai gu

eskuara bezala: baldin Leptisen Enperadorearen, eta haren Arrebaren herrian Latina izan ezbaliz hitzkuntza ardurakoa, Enperadorea etzen ez ahalkatuko, baina nola herriko umeak obligazino baitzuen herriko hitzkuntzaren jakiteko, eta hura mintzo Latinez hain astrugaizki, hargatik Arrebak ahalkarazten zuen Anaja Enperadorea, eta hori zela kausa berehala igorri kuen bere etxetik.

Halatan egungo egunean-ere on lizateke halako Eskualdun ahalkagarrien herritik igortzea, eta khen-tzea; (badut uste kausi litezken zenbait joaiteko onik, bai halaber gogotik lihoazkenik, baldin kausi baledi bertze halako kargu, eta present emaille bat).

§ 15

Gisa berean diote: Klaudiok jujetasuneko kargutik athera eta khendu kuela Greziako Printze bat, zeren etzeakien herriko hitzkuntza Latina, eta oraino etzela hortaz kontentatu, haren izena marraturik, eta borra-turik, Erromarren herronkatik khen zezaken artean. Baldin egun ethor baledi Eskual-herrira bertze Klaudio

bat, zenbat kargutarik khentzeko, eta Eskualdunen herronkatik atheratzeko kausi othe letzake?

§ 16

Eta baldin orainokoan ekharri tudan arrozoinak eta presunaja handien exenpluak ezbadira aski egia-
ren hainei sinhetsarazteko: Bihoaz Indietara, eta ikku-
siko dute hango jendek nolako amodioa ekhartzen
dioten bere herriko hitzkuntzari: eta baldin biaja, edo
iornada hori luze bazaie entzun, eta sinhets bezate,
Aita Agustin Davilak dioena: *Nunc vero tanta est inge-
nij eorum, fælicitas, vt et Latine, et hispanice scribant
nostris pueris elegantius &c.* lib. 1. cap. 43. Indiarrak
izan arren hain izpirituz habilak, atzarriak, eta har-aira
onetakoak, non gure arteko muthilkoek baino bokkan-
tzoskiago Latinez, eta Espainolez iskiribatzen baitute:
guztiarekin-ere badutela bere baitharikkako amodio
berezi bat bere hitzkuntzarentzat, eta hura dela
kausa, asko ikhasiko luketenek Latinez, eta Gaztela-
niaz mintzatzen, gelditzen direla ikhasi gabe, bere
herriko hitzkuntza ez galtzera uzteagatik. Horra beraz
Eskualdun aralde hautaz gainerako bertze jendaki

guztiak zein issuriak, eta emanak diren bere sort-herriko hitzkuntzarentzat: xoilki gure hertar hauk dira bakharrak, mamia dastatu gabe, axaletik bere hitzkuntza arbujaizen dutenak: iduritzen zaje jakintsunak direla, ordea egundaino eskoletako berririk ikhasi gabe: itxurapenezko jakintasun baten azpian dabilta guztiak hanpatuak, eta airatuak eta handik banitatearen guajak berekin daramatza herrestatuak: zereu Eskuara faltaduri eginez nahi baituzte bilhatu bere abantaillak; erran nahi dut bere baiak, eta faltak eskuararen gain eginez, nahi lituzketela gorde, eta estali bere enorantzia, eta hutsak: hartarakotz bere usajara, eta nahi dutenera gauza guztiak itzultzen tuztelarikan eta hala hekien hitzak, eta solasak dira nahasiak, eta batere bokkantzarik gabekoak; hitzetik hitzera barbarismoa darie; eta bide hunetaz bere buruak jende-xehearen artean jakintsuntzat iragan-araztentuzte. Hautaz iduritzen zait erran ditekela Bernat Sainduak dioena: *Multi multa sciunt, et se ipsos ignorant.* lib. 2. de consideratione. Hainitzek hainitz gauza badakitela, eta bere buruak eztuztela ezagutzen: eta hala ezagutza hau ikan gabez dabilta ergelkeria, eta enoxentkeriaketan, eta asko orduz bere buruez goragoko gauzen ondoan. Ordea halakoez

erraiten zuen Sokrates Filosofo handi hark: *Putabat Socrates furori ac dementiæ proximum est, suprema inquirere, et aliena perscutari, ijs ignoratis, quæ sunt in nobis.* Jeure baithako gauzak jakin gabe gure buruez goragoko gauzen bilhatzea, eta gauza arrotzketan ibiltzea dela erhokeria bat bekalatsu. Gauza hau Atso batek Thales Milesiarrari Greziako zazpi zuhurrenetarik lehenbizikoari sothilki eta ederki eman zioen aditzera. Atso gaizoak ikhussi zuen Thales gizon handi hau begiak goiti altxaturik, jeusi goardiarik egin gabe, zeruei beha zegotelarikan, nola erori zen zulho batetara, harri batek trabaturik, eta orduan diotsa: *ô Stulte vir, quæ supra te sunt, quæris, quæ vero infra te, imo intra te ipsum sunt, ignoras?* O Gizon zoro, eta zentzugabea, hitazgoragoko gauzen bilha abilana, eta heure azpian, eta oraino heure baithako gauzak-ere ezagutzen eztituana? A zein abisu miragarria, eta konseillu ona, eta ez atso gisakoa; zeren atsoek ordinariozki ez baitute konseillu, eta abisu makhurrik baizik; baina hunen erranak merezi du urrezko letrez iskiribatzea; Filosofo guztietarik haltoenak eta jakintsunenak ere etzukeen eman sententzia bat ederragoa: zeren hitz gutiz hain izpirituzki emaiten baitaroku aditzera; zein gauza ederra den, eta progotxosa, bat-

bederak bere buruaren, eta bere baithako gauzen ezagutzea, eta gure ezagutzaz goragokoen uztea. Hargatik bada othoitzten tut gure Eskualdun Eskuaren mesprezatzailleak. Atso gaizo hunen sententzia hau gogoan ongi idukitzeaz, eta hunen eskolaz ongi baliatzeaz: hau hala egiten badute, esperantza izanen dut, hitz arrotz hortik, eta hemendik ebatsirik Eskuarari juntatzen diotzatenak, utziko tuztela, eta eskuarazkoak bilhatuko eta hau da bat bederaren eginbideta. *Aliena concupiscere noli, ait Cato, id est tuo contentus esto.* Dio Katon zuhurak: Etzaren bertzeren gauzen gutizioz, zeureaz kontenta zaitea; bertzela begirautzu zenternara eror etzaitezin, Thales ustekabea erreka bezala.

§ 17

Hunarainokoan ekharri tudan frogantzak, eta arrozoinamenduak dira, batzuek presunaja handi, eta zuhurretarik atherajak: bertzeak abre mutuetarikkako konparazioak. Ordea on lizateke huts egiten ezbanu: batz, zeren jendaki haukien izpirituak ikanez (?) hain laburrak, eskasak, eta minberak niholarateko mane-

raz, ez baitira gai arrozoinamendu hautaraino hedatze-ko: zeren baitakit gaitzituko zajela, eta oraino mespre-ziotzat hartuko, abre mutuekin konparatzea, ezen halakoen errefina ohi da, presunak eztirela abre mutuekin konparatzeko.

§ 18

Bitartean iskiribu Sainduak dio: *Homo cum in honore esset, non intellexit, comparatus est jumentis insipientibus, et similis factus est illis.* Psal. 48. Gizonak, ohorean zeino, etzuen aditu ez ezagutu bere burua, eta konparatua da bestia erhoekin, eta hekien iduritako egin da. Eta oraino bertze lekhu batean laudatzen du sugearen, eta xinhaurriaren prudentzia, (*vade ad formicam &c.*), zeinekin gisa hunetako presuna erho enorantak, eta urgilliaz betheak ez baitira gai konparatzeko, aitzitik (*halakoez lehen*) erran diteke xoilki: *Homo cum in honore esset, non intellexit, comparatus est jumentis insipientibus, et similis factus est illis.* Eztute beraz zer arrankuratu bestiekikko konparazinoaz? Eta hala jautsiko naiz oraino ekharritudan konparazinoetarik beherago, eta nora? baizik

munduan den gauzarik appallenetara, eta beherenera, zeina baita Lurra bere belhar, zuhaitz, eta arbolekin, haukien bidez, hei irakasteko bere eginbidea: *Germinet terra herbam virentem, et facientem semen, et lignum pomiferum faciens fructum juxta genus suum.* Gen. 1. Dio iskiribu sakratuak: Lurrak eman beza belhar ferde hazi emaillea, eta arbola fruitukorra, here muetaren eredura fruitua ekhartzen duena. Ela oraino bertze-alde dio: *Arbor bona fructus bonos facit autem arbor malos, malos fructus facit.* Zuhaitz, eta arbola onak fruitu ona, gaix-toak gaix-toa dakkarre, halakotz hunelako arbola gure Salbatzailleak ere pikkatzera, eta suan erretzera manatzen du: *Omnis arbor que non facit fructum bonum scindatur, et mittatur in ignem.* Hemendik ikhusten duzu beraz, zer erran nahi dudan, eta-hala; *Qui habet aures audiendi, audiat.* Nahi duenak entzun beza, eta bertzela han konpunt (*sic*).

§ 19

Orai iduritzen zait aski garbiki mintzatu naizela, baldin gure hertar hauk gauza onik egin nahi balute. Eta hauk hunela entzun, eta aditu ondoan gelditzen

badira bere theman eta hisian gogortuak: deithuko dut hekien kontra Agustin Elizako Dotor Saindu handi hura, zeinak erranen baitharoku. *Pertinacia in opinionibus, et sententijs propijs per quam quis non est paratus corrigi, damnabilis, et vix sanabilis est præsumptio, imo cuncta turbat, et perdit.* August. lib. de reg. morum. sub titulo de superbia, et vana gloria. Bere hisitik, eta thematik ilkhitzeko gogorik eztuena kondenakizun dela, eta halakoarentzat erremediorik eztela, eta halakoaz eztela zer izan esperantzarik, aitzitik gauza guztiak gaizkoatzen, nahas-arazten, eta galarazten tuztela: Eta hala alfer da halakoekin arrozoinatzea: *Cum dormiente loquitur, qui enarrat stulto sapientiam.* Euli. 22. Arrozoina aditzen eztuenarekin arrozoinatzea da lo datzanarekin mintzatzea bezala. Hartarakotz beraz ezta hemen bertze biderik, baizik Galenoren sententzia haren deklaratzeari, eta jendaki ostinatu hau harekin uztea. *Si quidem deploratos non oportet aggredi curare, sed relinquere, et morbi finem tantummodo prænunciare.* Gal. in Aphor. 29. lib. 2. Eri etsitu, eta ezin sendatuzkoak, dio, utzi behar direla erremediorik eman gabe, zeren alfer baita hekin erremedioketan ibiltzea. Eta nola hauk ere halatsu baitira, utz detzagun beraz diren bezala, egin ahala egin, eta

ondoan, ezin bertze daidikegu. *Curavimus Babylo-*
nem, non est sanata.

IRAKURTZAILLEARI

§ 1

Hunarainokoan mintzatu naiz gure Eskuararen ethorkiaz, eta hari dagotzan gauzez. Utzi tut hainitz gauza sobera mintzatzuz ene obra fastikagarri egin dadin beldurrez: ezen Hugo Kardinalak erraiten du: *Lectio duobus modis fastidium ingerere solet, et affligere spiritum; qualitate videlicet si obscurior est, et quantitate si prolixior extiterit.* Hugo Card. Dio bada, iskiribuak ilhunegi, edo luzegi izanez fastikatzen, eta nekhatzen ohi du izpiritua. Arrozoïn hau bera dela kausa entsejatu naiz ahalik eta garbikiena, eta klarikiena iskiribatzerà eta mintzatzera. Bai ordea behar bada izanen da zenbait hitz arrapatzaille, eta pontukari, zeinari ene hemengo eskuara ez baitzaitzo agradatu; halatan haina othoizten dut, arren bilha dezan bertze bat hobeagoa, eta garbiagoa, hartaz garbikiago, eta klarkiago iskiribatzeke, nik behintzat aithortzen dut, bertzerik eztakidala, eta hala ikhasi eztudana, ezin iskiriba dezaket, Autor berak dioen bezala:

Cæterum de accuratione dictionis elucubratae non satago, nec mihi pudori est, si disputatio mea, quæ forte probatur in rebus, aliquos innanium verborum sectatores horrore incomptæ orationis offendat. Quia quod ab homine doctore studendo non didici, id exhibere loquendo non potui.

§ 2

Utzi tut hainitz gauza aipatu gabe, lehen erran dudan bekala: eta elxarri bertze batzuek; ordea hale-re baldin bat-bederak ongi pisa, eta konsidera bade-tza; esperantza dut, eztituela soberetsiko: zeren guz-tiek baitarontsate xede berera; eta oraino bertze alde, zeren gauzaren hobekiago, eta klarkiago argitara emaiteko ekhartzen diren frogantzak behin-ere ezbai-tira sobera, ez luzegi.

§ 3

Egia da, eta ez tut dudatzen, baldinetariak jarri izan banintz Eskuarari eta Eskualdunei zor zaizten lau-

dorio, eta abantail guztiez xehero mintzatzeko, eta iskiribatzeko, eginbidean, hau izanen zela egiteko gaitz bat, eta asko liburu handiren bethetzeko materiari aski emanen zarotana; eta-hala, erran dezakezu, nik egin dudana dela, itsaso hondar gabetik ur xortatto baten atheratzea, Eskualdunen izpiritueta egartsuaren freskatzeko, Gregorio Sainduak dioen bezala: *Quid aliud agere visi sunt, quam de immenso amne aliquid capere, quod sitientibus fidelium mentibus propinarent.* S. Gregorius. in procem. lib. I. Reg. Eta hala ene xedea ezta jeusere bertzerik izan, baizik Eskualdunei bere hitzkuntzaren ethorkia, eta hatsape-nak gaindiroki, eta pasajaz bere hitzkuntza propialean erakustera, eta ezagutzera eman nahizko desirkun-dea, eta denbora berean jakin dezatentzat, Eskuara eztela salbaja, ez eta-ere bertzetarik ethorkirik duena; aitzitik munduan izan diren, eta orai-ere kausi ahal ditezken zabarrenetarik, garbienetarik, eta nobleneta-rik bat: zeinak gramatikako erregelen laguntzarik bat- here gabe hanbat mendez mende baitirau. Beraz zinez erran diteke gure Eskuara dela laudakizun: zeren egundaino batere antzatura izan eztelarikan, halarikan-ere munduan diren etsairik borthitzenen kontra, mantenatu, eta mantenatzen baita.

§ 4

Hargatik bere jendakiari, edo bere umei deraue obligazino guti; zeren hekien laguntzen bidez jeusik ez baitu errezibitu; duen guztia, bere propiala du: lur edo landa bere baitharik emankara dagoenak, laguntza, eta ontzaillurik gabe, asko arbola progotxos, zuhaitz eder, eta belhar on bere baitharik emaiten tuen bezala, hunek-ere gisa berean erakutsi tu bere naturaleza onaren efektu aberatsak; halako moldez non erran baitezakegu; baldin kausitzen baliz hitzkuntza naturazkorik, hau dela: ezen hunen naturaleza onak dirudi xoilki huntaz artha izan duela konserbarazteko, eta Eskola-nausi ikaiteko, hemen Hipokrate-sen errana egietan atherazen da: *Naturæ omnium sine doctore doctæ*. lib. de alimento, et 6. epid. p. 5. com. 2. Gauza guztien naturalekak ikhasiak, eta jakinak dira irakhaslerik-gabe. Hau bera diote Philosopho zuhurrek-ere: *Erudita est natura, licet recte facere non didicerit*. Jakina, eta ikhasia dela naturaleza ikhasi gabetarikan: hala-nola baita gure Eskuara, zeinaz halaber iduritzen baitzait ausartki erran ditekela. *Eru-*

ditus est cantabrisimus, licet recte facere non didicerit.
Jakina, eta zuhurra dela Eskuara irakhaslerik, eta eskola-nausirik izan eztuelarikan.

§ 5

Ordea halatan da berenez eta naturalki ahal tuz-ken kalitate eder guztiez hain beztitua, eta dothatua: non bertze hainitz hitzkuntzari erakararaziko baitiote ohore, eta errespetu. Ezen dasta hadadi hunen eztitasuna, berak gonbidatzen du: Nahi baduku kausitu onhestrasuna, eta grabetasuna, ikhusiko duzu baituela urgilliarik, eta ergeltasunik gabe; Baldin desiratzen badugu garbitasuna, hunen baithan hain da manera xahuan, non ez baitu onhesten notharen kutsurik gutiena; hargatik hainitzek bilhatzen ohi dute xahutasuneko eginbidetan. Konsidera badadi hunen agudotasuna, hain da bizia, zorrotza, agudoa, eta lasterra, non zaurthugabe pikkatzen baitu, eta minberatu gabe alde batetik bertzera passatzen eta iragaiten.

§ 6

Mintzatzeko maneretan ere, ezta hitzkuntzarik hurbiltzen zajoenik, eta bere perpausak hain justuki komuntztatzen, eta neurtzen tuenik, non hitzen bernizadurarik-gabe, misterioski gauzak konpasatuak bezala deklaritzen baititu hunen zuhurtziaz mintzatu garenean ikhusi duzun bezala. Hitzkuntzaren mintzairaz bezamhatean, guztiei abantail eramaiten deraue bere garazia, eta arraitasunaz: mintzatzean espainik eztu luzatzen, ez biltzen, ez eta-ere mihirik bere tokitik atheratzen: aitzitik letrak miragarriki errepartitzen tu: batzuetan D ganbiaturik, eta khendurik, ezartzen du T. Bai halaber Z khendurik T, eztikiago hitzei soinu eragiteko; Halako moldez, non, hunentzat higintza dutenei berei-ere eder baitzaje.

§ 7

Hitzen abundantziaz bezanbatean-ere ezta eska-sa, ez erromesa, batzuek uste duten bezala: aitzitik baitu asko hitz diferent diferentki mintzatzeko, eta pintatzeko, hitzezko aparailu eder batekin. Perpaus lanoan, eztu uzten jeusere, bere bokkantza ederraz

erregelek manatzen duten eredura konplitu, eta bez-
titu gabe: badu halako, eta hunelako manera sinhe-
tsarazteko, non gaitz bailizateke bertzebat indartsua-
go izaitea. Istorioan umoki, eta majestaterekin parte
guztiak hiltzen eta juntatzen tu: erraiteko maneran
garaziatsua, eta arraja da, eta errefinetan aberatsa,
Axular famatuak, eta Aita Materrak argitara eman tuz-
ten obretan klarki ageri den bezala. Kopletan ezta
ergella, ez muthiria; khentzen tu bertzek obesten tuz-
ten gauza batzuek, hala nola luzatzea, eta laburtzea,
nahi du; koplak izan dadin ozen, garbi, lixer, eta konpli
konturik, edo numerorik faltatu gabe, eta kondizino
hauk gabeko koplak nihori etzaizko agradatzen: hau
hala dela, exenpluz erakusten daroku Etxeberri Zibu-
ruko Jaun appezak egin zuen liburu koplazkoan.

§ 8

Theolojiaren kapetarik haltoenera, eta gizonaren
adimendua dohakeen kukuillorik gorenera, eta garrai-
terik xutenera, hedatzen eta hegaldatzen da, bathere
traburik, behaztoparik, eta motheldurarik gabe: mihia
libre eta sufle du, eta ausartki mintzo da, gauza guz-

tiak xehero, bat-banazka, beregainki, eta bereziki aditzera emaiten tuelarikan: lekhuko dira erran eskualdun Autor haukien liburuak, zeinetan garbiki ageri baita nahiz perpausean, edo dela kopletan trebea eta bokkantzaz bethea dela Eskuara.

§ 9

Iskiribu Sainduetan, kausitzen diren gauzak, eta Sainduen pentsamendu halto, eta sothilak modestki, eta garazioski deklaritzen tu, debozino, eta konsolamendu emaiten darokularikan. Baldin Grekez, eta Latinez iskiribatu diren gauzak, eta Zeruko izpiritu biziareki kantatu, eta erran direnak, erran eta ezarri izan balira Eskuaraz, eta Eskual-herrian; diot berriz ere munduaren artean etzela hek baino estimu guttiagokkoa izanen, aitzitik uste dut ezen, abantail eramannen zerauela .

§ 10

Egiaz alde guztiz hunen zortheta izan da hagitz diferenta bertze lengoaienetarik; zenbatenaz-ere hauk edertzen, eta hazten baitira gehiago jende letradunen artean, eta gaizkoatzen nekhazalenetan; Hanbatenaz Eskuara kontrarago da tratatua; zeren bere garbitasuna konserbatu, eta konserbatzen baitu jende nekhazale estudiantu gaben artean; eta baldin jeus nahastakadurarik lothu bazajo, edo lizundu bada; hori ethorri zajo Eskola-nausien eta presuna estudiantuen ahoetan, zeinek eskuarazko hitzen lekhuan hedatu, eta erain baitituzte izen arrotzak edo dela zeren ahan-tzi baitzitzaizkoten eskuarazkoak, edo ezbaitzituzke-ten behin-ere ikhasi Eskual-herrikoak.

§ 11

Eta hauk hunela entzun eta ondoan, orai zuk zer diozu Mariana? zeure hitzetan kaude? orai erranen othe duzu? *Soli Cantabri linguam hactenus retinuerunt rudem, et barbaram, cultumque abhorrentem?* Eskualdunek xoilki dadukatela bere hitzkuntza kahar barbaro moldegaitza? Egiaz eztut uste; zeren lehen axaletik, eta gaindoro baitzinekien haren berri; baina

orai arrozoin hauk hunela entzun eta ondoan lehen sinhets nekake, erran zenezakela. Sidoniok erran kuena. *Non intelliges, non tam cursum deesse, quam campum.* Sydon. lib. 4. Epist. Eztela Eskuara hain erro-mes, eta moldegaitz, nola eremuz baita eskas, eta labur.

§ 12

Horra beraz Irakurtzaillea ikhusi tutzu orai, zer diren Eskuara, Eskualdunak, eta Eskual-herria; ustez eztut jeusik neure baitharik ekharri, ez eta-ere autore-tan kausitzen ezten gauzarik iskiribatu: *Nihil dictum, quod non sit dictum prius.* Nik egin dudan gauka da, Lirinensek dioenaren eredura; *Eadem tamen, quæ didicisti, ita doce, vt dicas nove, non dicas nova.* Liri-neus. opusculo. advers. hæereses. Lehen Autorek erran tuzten gauzei plegadura berri baten emaita, edo hor hemen banaturik zeudezinak elkhargana bil-tzea, eta Eskuarara ganbiatzea, bide hunetaz Eskual-dunek bertze hitzkuntzetako (?) istorioetako itzalaren azpian dauntzan gauzak, jakin detzaten amoreakga-tik, hartarakotzat baliatu naiz Trogo Pompejoren exen-

pluaz, zeinak Greziako, eta mundu guztiko istorioak Latinez iskiribatu, baitzituen, Latindunek Grekoenak, eta Grekoek Latindunenak irakur zetzatenzat. Halatan bada nik-ere iskiribatzen dut Latinez, eta Eskuaraz, eta halako ordea ibili naiz Rut Moabitarra bezala: *Abijt itaque, et colligebat spicas post terga metentium.* Ruth. cap. 2. Rut Moabitiarra (*sic*) ogi epailen eskue-tarik erortzen ziren buruka biltzen zebilan Boozen lan-dan: Eta nola Istorioak, eta Autoren iskiribuak baitira landa eder, eta kabalak, zeinetan kausitzen baitira falak, eta garba eppaitekoak, halatan laster egin ikatu dut landa eder, kabal, eta aberats hetara.

§ 13

Ordea indarrez eskas kausitzen nuen neure burua eskumenka, edo ahurka landa zabal hetan eppaiten haritzeko, halatan bada kontentatu naiz buruka bil-tzen ibiltzeaz, hetarik moldatu dut oppil hau, ekagutu-rik ene izpiritu xumea eztela gai ogi ossoaren Eskual-herriko mahainean presentatzeko. Denbora berean ibili naiz Autoren mahainetarik erortzen diren papo-rren biltzen, eta baldin menturetan gertha badadi,

hetarik ilkhitzera janhari (?) zapporetsua, eztate ene izpirituko agudeziaz, bainabai ene Aingiru begiralearen inspirazinotikkako obra, eta effetua.

§ 14

Lehen erran dudana, diot berriz ere, utzi tudala hainitz gauza aipatu gabe: ordea hainitz gehiago aipaturik-ere, segur naiz: oraino bertze hainitz gehiago geldituko zitzaizkidala aipatzeko, Senekak dioenaren eredura: *Multum egerunt, qui ante nos fuerunt, Multum adhuc restat operis, multumque restabit, nec vlli nato post mille sæcula recludetur occasio aliquid adhuc adjiciendi, Senec. Facilius tamen id præstabit, qui hæc prius præcognita habuerit, et inventis facilius est addere.* Gure aitzinekoek hainitz gauza egin zuten, oraino hainitz travaillu gelditzen da, eta geldituko-ere bai; milla menderen ondoan-ere ezta parada faltako zerbaiten berretzeko: Eta hunen arrozoina emaiten daroku Kregorio Sainduak: *Quia fere nunquam sic rex exponitur, vt ei non plura remaneant, quoe quotidie exponantur.* S. Gregor. in proæm. ad lib. Reg. Ezta gaukarik hain ongi argitara emaiten, non oraino ezbai-

tira hainitz gehiago bilhatzeko, eta kausitzeko gelditzen: eta hala nik hemen erran tudanak baino gehiago erranik-ere, hainitz gehiago diratezke oraino erraiteko gelditzen direnak. Eta kontrarioaren erraitea lizateke erhokeria handia, eta egiazko erreberia Philosopho zuhur guztiez kondenaturikkakoa: *Qui omnia scire se putat, stultus est, qui omnia se ignorare credit stupidus*. Erhoa da, gauza guztiak dakitzala uste duena, tontoa jeusik eztakiela uste duena.

§ 15

Philosofhoak ezagutzen du gauza batzuek jakin arren, badirela bertze hainitz hark eztakitzenak: *Philosophus autem se quædam scire, et plurima ignorare cognoscit*. Hau da Filosofoen artean dabilan errefin ardurakoa, eta hau bera da nik-ere erran nahi dudana, zeren arrosain hau dela kausa, Gizona loharkaturik legokena, atzartzen eta mugidatzen baita, oraino ezagutzeko eta jakiteko gelditzen zaizkon gauzen bilhartzera, Pliniok dioen bezala: *Incitantur homines ad cognoscenda, quæ deferentur*. Plin. Iun. lib. 9. Epist. 27. Estuzu beraz zer bekhaiztu: zeren eginbide hunetan

eskuak sarthu tudan ezen parada etzaitzu behin-ere faltatuko zerbaiten egiteko, athea bethi zabaldua gel-ditzen zaitzu, baldin jeusik berretu nahi baduzu: eta oraino are baino gehiago zeren nere obratto huni hainitz gauza falta baitzaizko behar den perfezinora hel-tzeko: halatan beraz enplega zaitea zeure eginbidea-ren egiten, zeren obligatua baitzara zeure herriaren progotxutan travaillatzera, baldin egia bada Zizeronek erraiten darokuna: *Cole pietatem, quæ cum sit maxima in parentibus, et propinquis, tum in patria maxima est.* Cic. in Som. Scip. Burasoentzat, eta ahai-dentzateko obligazioa handia delarikan, handiagoa da Sort-herri arentzatekoa: eta bide hunetaz emanen duzu, Kasiodorok dioen bezala, orainokoek athera eztuten zenbait argitasun berri, eder: *Inde fiet, vt aliud inde genus expositionis acutissimum, pulcherri-mun-que nascatur, et quod forsitan priores nostri in commentis minime dilucidarunt.* Casiod. divid. lec. 16. Eta orduan erranen duket bozkario, eta sendagailla handirekin Anjerinok erran zuena: *Quid tunc? Carbo-nes quoque sunt nigri, sed flamma tacti, vnde rosa verna rubent.* Ene obratto hau argitzat ezbadere, agian ikhatzat bederen zerbitzatuko dela, eta zure izpirituko haizetto (?) batekin arrosa gorriaren kolere-

ko khar bizia eraginen diozula: Eta orduan haltoki erranen dukiegu, egiazko Eskualdun balent baten eginbide ohorezkoa zor zaitzula, ordea harmen, eta nabegazinoaren manajatzeko baino, ez estimu gutiagokoa.

§ 16

Egiaz gaitz da, eta halatan behar bada idurituko zaitzu ezin dateken gauka bat aippatzen dudala: *Difficultas magna impossibilitati æquiparatur*. L. 1. §. ex quo, et L. continuus, §. cum quis. D. de verb. Zeren legeak gauza gaitz bat ezin dateken gauzarekin konparatzen baitu.

§ 17

Ordea ezta hau arrozoin bat aski dena bat-bederaren bere eginbidetik gibelarazteko, ezen ezta dudarik bertze hitzkuntzek-ere lehenbiziko hatsapenean eta abiaduran nekhe eta arantze berak iragan zituztela: ordea entsejatuz, eta travaillatuz, azkenean bere

xedera dira; Greziarrak-ere asko joan ethorri, nekhe eta entseju erabilirik Trojara ziren, eta ongi larrutik gostarik hartaz gozatu ziren. Hau da atheka zeinetarik iragan behar baita: *Qui é nuce nucleum esse vult, frangat nucem*. Eltzaur xistorra jan nahi duenak, eltzaurra koskatu, eta hautsi behar du, dio errefinak: Plautok-ere gauza bera dio: *Qui commodum appetit, ne fugiat laborem*. Plau. in Curc. Progotxua nahi tue-nak behartu aberiak, travailluak, eta ekhajak; ezta ontasunik penagabekorik; travailluan, eta nekhean du gizonak bere primeza: *In sudore vultus tui vesceris pane*. (Cap. 3. Gen. v. 19). Eta handik behar du athe-ra bere mantenua, hala gorpputzekoa, nola arimakoa: eta hau da xoilki merezitzeko bidea hala Jainkoaren aitzinean, nola Gizonenean: halakotz beraz atzar zaittea (?), eta duzun animo et (*sic*) kuraia Jainkoak eman darotzun izpirituaren progotxoski enplegatzeko; eta gisa hunetan gidatuko dukezu ene obratto hau perfezinoko portura, eta denbora berean halaber errezibituko duzu zure nekhearen errekonpentsa justua.

Orai nahi dut mintzatu ene kontrako alhamenez, eta errankizunez, zeinak oraidanik entzuten baititut, kanpo alde horietarik erraiten dutelarik ezen, konplitu-tuko dudan baino gehiago prometatu dudala, eta behar den perfezinoan ezin athera dezakedan obrari ekhin natzajola: azkeneko huntaz bezanbatean balukete zenbait arrozoin, ez ordea erraiteaz, nik prometatu dudala; zeren ezbaitiot nik nihori egin eszaitzarik, ez eta-ere egiteko hunetan nihorekin enaiz bahitu. Iduritzen zait hainak dabilzala xoilki zerbailen eraste-ko parada bilha: ordea hainak nor diren nik hemen izendatugabe, eta erhiaz erakutsi gabe, bere mintzotik seinale dira: zeren iskiribu sainduak dioena ezin falta baititeke: *Loquela tua te manifestum facit.*

Hainak dira ene adiskide itxurazko baitzuek ene hutsei jakartzeko mihiak sufle, eta arin tuztenak, eta baldin gauza onik kausi balezate-ere, estimu guti egin lezaketenak: hainak bada nahi baitutzu ongi ezagutu, nihorekin mintzatzera heldu zarenean, solasari guardia emozu: ezen halakoek nihoren abantailla, eta laudoriorik entzuten tuztenean, ez aditu iduri gorrarena eginez, burua bertze alderat dakite itzultzen, eta halako solasari atheak hertsteagatik, gathua brasen gagnetik bezala, saltoka, eta lasterka dohazi bertze per-

paus batetara; ordea aditzen badute, hek gogoan ez tuten zenbait presunaren kontra, badela zenbait erraiteko; orduan beharriak erne tuzte, irria prest, samur eta goj hara, eztute ez orduan solasa ganbiatuko; baina bai lagunduko, eta emanen bide gaizki mintzatzeko; orduan da hekien uzta, hazten dira, eta hagitz atsegin hartzen dute: hauk dute liztorren propietatea; liztorrak dira marrant, eta ausikilari, mintki ausikitzen dute: ordea eztirik ez eskorik, edo argizagirik eztute egiten; bertze presuna hauk-ere bada gisa berean marrant dira ez baitakite gaizki baizik mintzatzeten; ausikilari, zeren jaingin, eta gibel-jale baitira bere Giristino lagunentzat. Hargatik Arxiloxiren thonbako marmola harriaren gainean molderatu zituzten liztorrak ziren mihi-gaixtoen figurak, kopla hunek dioen bezala:

Archilochi tumulo insculptas de marmore vespas,

Esse ferunt, linguæ certa sigilla malæ.

Hauk dakite ederki, eta sothilki bere ustez bat-bederaren kontra bere pozoinaren hedatzen, kapatzat, eta estalkitzat hartzen dutelarikan, ongi ikhasi

nahizko desirkundea, edo itxurapenezko urrikaltzapenaren azpian: krokodilaren kontua dute, mintzo dira ahoan bat, gogoan bertze bat: arnoa kridatzen dute, eta minagrea saltzen: sugearen propietatea dute: sugreak xistuz dagoela ausikitzen du. Halatan eztiote barkhatzen ez Sainduei, ez jakintsunei: behintzat etzioten berkhatu Jeronimo Elikako Dotor, eta Saindu handi hari, ezen huna zer dioen berak: *Cogor per singulos scripturæ divinæ libros adversariorum respondere maledictis: qui interpretationem meam, reprehensionem septuaginta interpretum criminantur. S. Hyeronym. in. prolog. lob. ex hæbreo in Latinum conversum.*

§ 19

Ordea hau nondik heldu den Eklesiastikoak emaiten daroku miragarriki aditzera: Tam invencilia sunt judicia hujus temporis, vt hi qui legant, ne enim considerent, quid legant, quam cujus legant. Eccles. lib. 1. Denbora hunetako izpirituak hain dira flakkoak, non irakurtzen dutenek, ezbaitute konsideratzen zer irakurtzen duten, baizik norena, eta noren eskutikakoa

den eta hori heldu da zeren hainek ezin onhets baitezakete presuna batzuen erranak, eta oraino are gutiago eginak. Hargatik Basilio Sainduak-ere iskiribatzen zioelarikan Libano Sophistari, erran zuen: *Horreo, et tremo diem illum cogitans in quo sermonem meum iudicaturus es.* S. Basil. epist. 18. ad Libanum Sophistam. Lazten, eta ikharatzen naiz, orhoitzen naizenean ene perpausak kure jujamendura ethorri behar duela. Bada nik eztut hala erranen: zeren errankizunetzat ezbainaiz beldur; nihorentzat beldur izaitekotz, behar nuke izan Jakintsunentzat, edo jeusik eztakiten enorantentzat; Behinik behin enaiz beldur jakintsunentzat: zeren manera hunetako akzioanean bere buruak zaurt letzakete, eta hain estimu handitako gizonei eztagoten gauza arrotz bat eginen lukete. Bada are gutiago beldur izaiteko dut jende enorant jeusik ezta kitenentzat: zeren beretzat eztakienak, jeusik ezbaitaiki bertzerentzat: beretzat eztakitenek, nola erakuts, ahal dezokete? errankizunen bada despit, eta hek atsekabe dutelarikan, ossoki deliberatu dut obratto hunen argitara emaitera, Jainkoak demon fortunarekin.

§ 20

Hemendik ordea eztut erran nahi nik: gauzak itsuan, ongi eta umoki konsideratu gabe sinhetsi behar direla: zeren Philosophoen mezua baita: *Dicta philosophorum examinanda, si etiam vera videantur*. Philosophoen erranak ongi pisatu behar dira, egiazkoak iduri izan arren.

§ 21

Ordea badira presuna batzuek asko-orduz jakin gabe zer irakurtzen duten, edo gauzak zer monta duen, edo zertara darontsan ikhusi gabe, eta oraino hekien buruko eztelarikan, berehala arbujatzen, edo onhesten baitute Autoraren alderat duketen gaitzerizkoaren, edo onheritzkoaren eredura.

§ 22

Baina gauza hunen gainean zer dioela uste duzu Platonek? *Qui positioni non credit, reprobare debet, et*

qui reprobare non valet, credere debet, Plato. Ezta ez aski, zuk erraitea, (dio), etzait iduritzen hau hala dela, edo ahal datekela, non kontrarioa klarki, eta garbiki eztuzun arrosoinez frogatzen; eta baldin ezin froga badezakezu, obligatua zara sinhetstera. Bitartean hunelako hauk jeusik ezin froga dezaketelarikan, zeren jeusik ez baitakite, guztiarekin-ere nahiago dute segitu bere burutik heldu zajena, zeren iduria baitagote Philosopho, eta Autor zuhur guztiek baino gehiago badakitela; halatan halakoez erraiten du Thomas a Khenpis gizon handi hark: *Quod si suum sentire magis sequi, quam alijs exercitatis credere volunt, erit eis periculosus exitus, si tamen retrahi a proprio conceptu noluerint*. Thom. a Khemp. (sic) lib. 3. c. 7. § iij. de Imitatione Christi. Baldin nahiago badute, bere burutik heldu zajena, segitu, ezen ez Gizon jakintsunen abisua, eta ez badute nahi bere hartarik apartatu hekinizat izanen da ondore perilosa. Eta hau hunela ikhusirik, erran zuen Jeronimo Sainduak-ere: *Si tanti, et tam eruditi viri fastidiosis Lectoribus displicent, quid de me facturi erant?* S. Hyeron: In Prom. lib. ij in Isaiam. Baldin hanbat, eta hain gizon jakinak ez bazaizte agrada-tzen irakurtzaille fastikosei, zer ikanen da nitaz? dio Jeronimo Sainduak. Beraz eztut zer miretsi zer-nahi

den gauza nitaz erran dezaten, hain Gizon jakinez, eta Sainduz errankizunak zituteztenaz geroztikan.

§ 23

Ordea Katon zuhurak hainitzetan bezala orai-ere emaiten daroku erremedio on bat, jaingin haukien kontra: *Maledictos recté agendo contemne, quum recté agas, ne cures verba obtrectatorum, non est enim in nostro arbitrio situm, quale sit illud quod vnusquisque dicat, quatenus hominum non possumus linguas cohibere.* Caton 1. præcep. lib. ij. Gibel-jale eta errankizun dunak ongi obratuz mespreza zatzu; zeure eginbidea egiten duzuino, etzaitzula jeusik hekien hitzez; eztago gure baithan, ez gure eskuan, bat-bederak zer erran dezan; zeren Gizonen mihiak ezin debekha baitetzakegu. Beraz haukien kontrako erremedioa da xoilki ongi egitea, Autor berak dioen bezala: *Illud stude agere quod bonum est.* Halakotz beraz eztut zer egin kasurik errankizunez, zeren uste baitut ene eginbidea ona dela, Agustin Sainduak dioenaren eredura: *Nemo prohibetur á studio cognoscendæ veritatis, quod ad laudabile pertinet otium.* lib. 19. de Civi-

tate Dei cap. 19. Nihor ezta debekkatzen egiaren eza-
gutzeko estudiotik, eta hunelako enplegua laudatzeko
da. Zeren estudioaren bidez bilhatzen baita egia: har-
gatik erran zuen Galeno mirikuntzako gure Printze
jakintsun hark-ere. *Et veritas investiganda erit, quam
licet non assequamur omnino, tamen propius quam
nunc sumus, ad eam perveniemus.* Gal. lib. de vtilita-
te reip. cap. 1. Egia bilhatu behar da eta ossoki ez
kausitu arren, halere orai baino hurbilago hurranduko,
eta hurbilduko gaizko, bilhatzeko entseiuak eginez.

§ 24

Beraz Autor haukien eredura enaiz gaitz erraiteko,
zeren jarri naizen eginbide ohorezko hunetan, nihork
ezin debekkatuzkoan, eta nihori bidegaberik ekhar-
tzen eztionean? nahi dut enaizen heldu ossoki xedera:
ordea halere hau da xederatzeko bidea, bide hunetaz
ikhasten da, jakintsun batek erran zuen bezala: *Vt
docendi studio possim discere, et quamquam semper
discens, nunquam tamen ad statum perfectionis per-
veniens.* Irakasteko estudioarekin ikhas ahal dezake-
dan, eta ikhasten hari naizelarikan, behin-ere perfek-

zinoko estatura heldugabe, eta egiazki arrokoinekin erraiten du, zeren estudioko enplegua baita jakin nahizko hidropesia bat, zeinak berekin baitakarke ikhasteko, egartsu ezin assesiatuzkoa, Enodio Sainduak dioen bezala kopla hautan:

*Ingenij quisquis festinus tendit ad amnem,
Non putet ambiguum, sic vivit vt sitiati.*

S. Enod. ad Faust. de carmin. suis.

§ 25

Ordea bertzerik ez bada-ere konsolatzen naiz, zeren iduritzen baitzait aski egin dudala, bederen ondokoei perfezinorateko bidearen erakustea; hargatik bada eztezozula beha xoilki ene obra huni, bainabai ene intenzinoari, eta haren arauera ikhusiko duzu ene hutsak barkhakizun direla, zeren Moralisten errana baita: *Quidquid agant homines, intentio iudicat omnes*. Errezibi zazu beraz dena den bezala edo egizu Horaziok dioena:

Si quid novisti rectius istis

Candidus imperti: si non, his vteze mecum.

Horat 19.

Arrozoin hauk baino hobeagorik baldin baduzu,

Adiskidea hetarik zenbait huz dietzadatzu.

Bertzela kontenta zaitea Terentzziok erran zuenarekin: *Si placeo, vtere, sin minus vale.* Ter. On bazaitzu errezibi kazu, bertzela zaude braborik.

§ 26

Eta nola iduritzen baitzait oraikotzat ja askitsu mintzatu naizela, akhabantzaren emaiteko bada, itzuliko naiz orai-ere obra hunen hastean fintzatu nituen Profeta beraren hitzetara. A. A. A. *Domine Deus ecce nescio loqui, quia puer ego sum.* Aita, eta Semea, eta Espiritu Saindua Ene Jainko Jauna hirur presunetan egiazko izaite bat eta Jainkotasun bat bera duzuna, galdegin narotzun, eta eman darotazu garazia; zure erranaren eta promesaren eredura: *Pulsate, et aperietur vobis.* Obratto hunen moldatzeko; milla million esker darotzut garazia hunetaz, eta bertze gainerako

Eternitate guztik egin darozkidatzunez: hekien ezagutzetan bada, eta zeren haitzara zaren bezalakoa, eta guztiz ona: ofrendatzen darotzut obratto hau, eta hunekin batean ene izaite guztia. Eta baldin suertez hemen kausi badadi nihoren progotxuko on dateken gauzarik, biz zure loria Sainduko, zeren zu zeroni baitzara ontasun guztien hatsapena, eta ithurri bizia, zeinetarik sortzen, jajotzen eta heldu baitira gauza on eta ongi gidatu guztiak. Ordea zer-ere huts, edo eskasia, eta falta kausituko baitirateke, hek guztiak ene ganikkakoak dirateke, Godart Gikon handi hark koplaz ederki erran zuen bezala:

*Pulchri quicquid habet, quod cecini, tuum est.
Si quid deficit, est meum.*

P. Godart oda. 3. methaphis.

Eta nola ezarri bainauzu zure Eliza Katholika Sainduan, halatan utzten tut zer-ere falta eta huts egin izan baitituket eta hek guztiak haren menera, ezagutzara, eta autoritatearen azpira. Hark manatzen, eta sinhesten tuen gauza guztiak; nik-ere nahi tut humilki, eta borondate onez onhetsi obeditu, eta fermuki sinhetsi, hala-nola onhesten, obeditzen eta fermuki

sinhesten baititut, hetan nahi dut bizi eta hil-ere bai, zeren hau baita zuk ezarririkko legea, eta zuri agrada-tzen zaitzuna, eta Gizon guztien salbamenduko egiaz-ko bidea; halakotz beraz hala-biz.

Akhabantza